

URAREN KALITATEAREN BABESA ZADORRA SISTEMAKO URTEGIETAN





URAREN KALITATEAREN BABESA ZADORRA SISTEMAKO URTEGIETAN

Arartekoak Eusko Legebiltzarrari egindako txosten berezia

EGILEAK:

Xabier Markiegi, Arartekoa.

Ana Rallo, EHUko Animalia Biologiako katedraduna.

Alex Andía, Arartekoaren aholkulari juridikoa.

© ARARTEKO

Fotokonposaketa eta inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.

Azaleko irudia: *Paisaje romántico. La Puebla*, 1920. Fernando de Américaren olio
pintura oihalean.

Irudiaren ©: Bilboko Arte Eder Museoa.

Itzulpena: BITEZ.

Paper erreziklatua.

ISBN: 84-89776-10-5.

L.G.: VI-8/99.

URAREN KALITATEAREN
BABESA ZADORRA
SISTEMAKO URTEGIETAN

AURKIBIDEA

Aurkezpena	11
Siglen zerrenda	17
I. Kapitula. Sarrera eta helburuak	21
1.1. Sarrera	23
1.2. Helburuak	24
II. Kapitula. Ingurune fisiko eta hidraulikoaren deskribapena	25
2.1. Urtegien deskribapena	27
2.2. Arroen deskribapena	29
III. Kapitula. Hornitzeko uraren erabilera eta arrisku potentzialak	33
3.1. Hornitutako biztanleria	35
3.2. Uraren kalitaterako arrisku potentzialak	37
A) Hiri- eta industria-isurketak	38
B) Merkantzia arriskutsuen garraioa	39
C) Aisia- eta kirol-jarduerak	39
D) Nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzako jarduerak	40
IV. Kapitula. Uraren kalitatearen azterketa ekologikoa	43
4.1. Helburuak	45
4.2. Metodologia	45
4.3. Emaitzak	46
4.4. Laburpena eta emaitzen eztabaida	48
4.5. Ondorioak eta jarduteko gomendioak	48
V. Kapitula. Gaur egun dauden babes-neurriak	51
5.1. Lurraldearen antolamendua eta hirigintza	53
A) EAeko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak	53
B) EAeko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana - Isurialde mediterraniarra	57
C) Zona Hezeetako Lurraldearen Arloko Plana	61
D) Udal Plangintza	63

E) Zadorrako Urtegia eta Santa Engraziako Urtegia Babestu eta Erabiltzeko Plan Berezien Proiektuak ..	66
F) Uribarri-Ganboako urtegiaren ertzak ekologikoki egokitzeko Plan Berezia	67
5.2. Neurri hidraulikoak: Ebro Ibaiaren Plan Hidrologikoa ..	68
5.3. Zaintza analitikoak. Uraren kalitatearen kontrola	71
5.4. Saneamendua: Hondakin-urak arazteko sistemak	73
5.5. Aisialdirako mugak: ontzi motoredunen debekua	76
5.6. Poluzioa gutxitzen duten nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzako praktikak	78
5.7. Erakundeen neurriak: koordinazio-organismoak	81
VI. Kapitula. Uraren erregimen juridikoa eta aginpide-banaketa ..	83
6.1. Sarrera	85
6.2. Oinarrizko araudia	86
A) Uren 29/1985 Legea	86
B) Konstituzio Auzitegiaren 227/1998 Epaia, Uren Legeari buruzkoa	90
C) Europako Batasuneko araudia eta Estatuaren antolamendu juridikorako inkorporazioa	94
6.3. Aginpide-esparrua	111
A) Estatuaren eta EA Eren arteko aginpide-mugaketa ...	111
B) Aginpide-mugaketa EA Eren baitan	118
6.4. Lurraldearen antolamenduaren eta plangintza hidrologikoaren arteko erlazio-irizpideak	122
VII. Kapitula. Ondorioak eta gomendioak	133
7.1. Ondorioak	133
7.2. Gomendioak	137
A) Orokorrak	137
B) Arlokoak	137

AURKEZPENA

AURKEZPENA

Txosten honek Zadorra sistemako urtegi-tako uren kalitatea denbora igaro ahala aztertzea du helburu, hala denborak eragindako aldaketak, naturalak eta/edo gizakiek eragindakoak detektatu eta etorkizunerako joerak ezagutu ahal izango baitira. Halaber, Administrazioak Uribarri-Ganboa eta Urrunaga edo Santa Engrazia urtegi-tako ura eta urtegi hauen inguruak babesteko eskueran dituen neurri eta tresnak aztertzen dira.

Arartekoak egindako ezohiko txostena da eta zeharo berritzailea da aztergai duen problematikari dagokionez, orain arte egin diren txosten monografikoek gizarte-kolektibo bereziki ahulen (atxilotuak, espetxeratuak, ospitale psikiatrikoetako gaixoak, adineko jendea, adin-txikikoak...) egoera aztertzea izan baitute helburu.

Txosten honek bide berri bat urratzen du, ingurugiroaren problematikarena, arlo eta diziplina anitzekoa, herritarren bizi-kalitatean zuzeneko eragina duten alderdiak azpimarratzen dituena. Ezin dugu ahaztu botere publikoek erantzukizun garrantzitsua dutela ingurugiroa babestu eta ingurune naturala zaintzeko eginkizunean. Gainera, txosten monografiko hau une berezian aurkezten da, izan ere, hainbat forotan eztabaidatzen ari baitira ingurugirorako eskubidea Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean barne hartzea, herritar guztien bizitzarako funtsezko eta oinarrizko eskubidea baita, bereziki babestu beharrekoa.

Ezohiko txosten hau egiteko erabakia hartu dugu Uribarri-Ganboa eta Urrunagako urtegiak ia Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren erdia urez hornitzen dutelako eta baliabide hidriko ordezkaezina eta zeharo zaugarria osatzen dutelako.

EAEko isurialde kantauriarreko urtegiak ibaien goi-ibarretan kokaturik daude, nekez hurbiltzeko modukoak diren leku isolatueta. Zadorraren urtegiak, ordea, EAEko handienak izateaz gain, Arabako Lautadaren erdian daude eta komunikabide garrantzitsuak dituzte inguruan eta, horrenbestez, hainbat hirigunetatik eta, batik bat, Gasteiztik bertara hurbiltzeko erraztasun handiak daude. Testuinguru fisiko eta geografiko honen ondorioz, gizakien presioa eta eragina askoz ere handiagoa da, baita uraren kalitaterako eta urtegien inguru-erako arriskuak ere.

Hain gai korapilatsuari aurre egiteko, Ana Rallo EHUko Animalia Biologiako katedradunaren laguntza izan dugu. Honek, 1984tik 1994ra arte lortutako uren kalitateari buruzko datuak abiapuntutzat hartuta, estatistika-analisia egin du, txostenaren eranskin gisa osorik azaltzen dena; gainera, gauzak argiago azaltzearen, "Uren kalitatearen

azterketa ekologikoa” izeneko IV. kapituluaren barne hartu da bere lanaren eta ondorioen laburpena.

Urtegien egoerari buruzko diagnosia urtegien bildutako uren kalitaterako arrisku-faktoreak diren erabileren azterketarekin osatzen da (III. kapitulua). Zehazki, honako alderdi hauek aztertzen dira: hiri- eta industria-isurketak; merkantzia arriskutsuen garraioa; aisia- eta kirol-jarduerak; eta nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzako jarduerak.

Bestalde, V. kapituluak Administrazioak arazo honi ematen dion erantzuna eta erantzun honen eraginkortasuna ditu aztergai. Bertan, lurralde-antolamendu eta hirigintzaren, plangintza hidraulikoaren, zaintza analitikoaren eta hondakin-uren arazketaren esparruan dauden babes-neurriak eta alor hauekin lotuta dauden beste esparru batzuetakoak (aisia, nekazaritza...) aztertzen dira.

Azterketa hau egiterakoan deigarrien gertatu zaigun alderdietako bat erakunde desberdinen arteko aginpide-barreiadura handia izan da. Esan genezake administrazio eta erakunde guztiek dutela aginpideren bat uraren kalitatean zuzeneko edo zeharkako eragina duten gaitan. Fenomeno hau, dudarik gabe, urak baliabide natural gisa duen garrantzia itzelaren ondorio da, izan ere, gizakiaren ia jarduera guztietan baitago eta ezinbestekoa baita pertsonak, animaliak eta landareak bizi ahal izateko.

Administrazio-esparru desberdinen aginpideak argitu eta aplikatu daitezkeen oinarriko araudia ezagutu ahal izateko, ahalegin eskerga egin da VI. kapituluaren uraren erregimen juridikoa sistematizatzeko.

Azkenik, VII. kapituluak txostenaren ondorioak bildu eta hainbat gomendio egiten ditu, orokorrak batzuk eta arloka taldekatuta besteak.

Txostenaren ondorio nagusia Administrazioak urtegi-tako uren kalitatea eta urtegien inguruak babesteko irizpideak bateratu eta ekintzak koordinatzeko premiari buruzkoa da, etorkizuneko belaunaldiak oinarriko elementu hauetatik gozatzeko aukera izan dezaten. Ildo honetan aurrera egiteko ezinbestekoa da, alde batetik, arloko arteko koordinazio-erakunde bat sortzea eta, bestetik, Zadorra ibaiaren arroaren lurralde osoan eta urtegi-tan bultzatu edo kontrolatu behar diren ekintzak koherentziaz definitzea. Irizpide hauek zehaztu ahal izateko, Lurraldea Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plan bat lantzea proposatzen da.

Hona hemen txostenean gomendio gisa jaso diren beste ondorio garrantzitsu batzuk:

1. Urbazterreko landaredia berreskuratzeko premia, hala inguramendu biologiko naturalak sortuko bailirateke urtegien perimetroan hauek babesteko.
2. Zadorraren arroko ingurune urtarra nekazaritzan sortutako nitratoek eragindako poluziotik babesteko premia, horretarako arroaren lurraldea “zona urrakortzat” aitortuz, 91/676/EEE Arteztarauaren ondorioetarako.
3. Hiri eta industriako hondakin-uren tratamenduan prozesu aurreratuagoak sartzeko komenientzia. Horretarako, Zadorraren arroaren lurraldea “zona

sentikortzat” aitortzea proposatzen da, 91/271/EEE Artzatarauaren ondorioetarako.

Aurkezpen hau amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiet, eskaini diguten lankidetzaz, informazio eta aholkularitzaz, txosten hau gauzatzen lagundu diguten pertsona eta erakunde guztiei.

Gasteizen, 1999ko martxoaren 22an.

Uraren Mundu Eguna
(NBEko Batzar Nagusiaren 1992ko abenduaren 22ko 47/193 Erabakia)

Xabier Markiegi Candina
ARARTEKOA

SIGLEN ZERRENDA

SIGLEN ZERRENDA

ALHAO	Araba Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala
AMVISA	Aguas Municipales de Vitoria SA
BAO	Bizkaiko Aldizkari Ofiziala
BOE	Boletín Oficial del Estado
CN	Club Náutico
DBO	Demanda bioquímica de oxígeno
DQO	Demanda química de oxígeno
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa
EAEAE	Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua
EEE	Europako Ekonomia Elkartea
EHAA	Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria
EIAE	Europako Ikatz-Altzairuen Elkartea
EK	Espainiako Konstituzioa
EO	Europako Elkarteen Egunkari Ofiziala
EURATOM	Europako Atomo-Energiaren Elkartea
HJA	Herri Jabari Hidraulikoari buruzko Araudia
HUA	Hondakin-uren araztegia
KFA	Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuei buruzko Foru Araua
LAA	Euskal Herriko Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak
LAP	Lurraldearen Arloko Plana
LHL	Lurralde Historikoari buruzko Legea
NTK	Nitrógeno total Kjeldhal
OOAA	Ordezko Arauak
TJOL	Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legea
UAPA	Uraren Administrazio Publikoari eta Plangintza Hidrologikoari buruzko Araudia

I. KAPITULUA

SARRERA ETA HELBURUAK

1. SARRERA ETA HELBURUAK

1.1. Sarrera

Urtegi edo urbilduak ibaiadarretatik, euritik edo iturbegietatik datozen lurgaineko urak biltzeko sistemak dira. Hauei esker ura ureztatze-sailetan, edateko uraren horniduran eta industrian erabil daiteke, energia hidrodinamikoaren iturri gisa (urjauziak), baita ibai effluenteen emariak erregulatzeko ere. Horrez gain, urtegiek eta beren inguruneak balio paisajistiko nabarmenak dituzte eta astialdirako baliabide gisa erabil daitezke (arrantza, bainua, txangoak, nabigazioa eta abar).

Urtegia elementu biziak dituen sistema dinamikoa da, hau da, flora, fauna eta mikroorganismo biziak biltzen ditu, baita hauen guztien hondakin organikoak ere, bai uretan, bai sedimentuan. Sistemako elementu bizidun hauen eta elementu bizigabeen (geologikoak, fisikoak eta kimikoak) arteko elkarrekintza arras konplexuari “urtegiaren metabolismo” deritzo eta honen baldintzek eta funtzionamendu orokorrak sistemaren egoera une bakoitzean ezagutzeko aukera ematen dute.

Urtegian bildutako ura denbora jakin batean egoten da gordeta (egonaldia), batzuetan luzeagoa bestetan laburragoa, eta denboraldi horretan materia trukutzen du hondo edo substratuarekin, ibaiak herrestan eramandako material solidoen metaketaren bidez batik bat (sedimentuen metaketa). Sedimentuak, aurrerago, urari konposatuak itzul diezazkioke, elkarrekintza dinamikoa gauzatzuz.

Modu naturalean, urtegiek sedimentua metatzeko joera dute (kolmatatu egin daitezke) eta bertako urek landareentzako gatz nutritiboen (nutrienteak) kontzentrazio gero eta handiagoak dituzte. Uretan dagoen nutriente-kontzentrazioaren arabera, hasieran oligotrofikoak (*oligo*, gutxi, urria, eta *trofos*, janaria) izaten dira eta denboraren poderioz eutrofiko (*eu*, betea, eta *trofos*, janaria) izatera iristen dira, bitarteko egoera mesotrofikotik igaro ondoren.

Sedimentuek urtegien izaera edo baldintzetan izandako aldaketen oroimen historikoa gordetzen dute eta, horrenbestez, uraren azterketa eginda ezagutu ezin diren joerak edota susmatu direnak eta modu horretan egiaztatzen direnak aztertzei aukera ematen dute. Sedimentuak oso disolbagarriak ez diren substantzia kimiko jakin batzuk atzeman eta metatzen ditu eta denbora igaro ahala hauen kontzentrazioa handitu egiten da, baina beste baldintza batzuetan (uraren pH-aren arabera, esate baterako) berriz disolba daitezke; metal astunak dira honelakoak. Gizakiaren perturbazioek bizkortu egiten dituzte prozesu hauek eta, gehienetan, elementu poluitzaileak gehitzen dituzte.

Urtegien bildutako urari eman nahi zaion erabileraren arabera, lortu beharreko kalitatea desberdina da. Biztanleria urez hornitzeko erabiltzen bada, urek oligotrofitoak izan behar dute eta ez dute egungo disoluzioan edo disoluzio potentzian (sedimentuan dagoelako) giza osasunerako substantzia kaltegarriak izan behar: metal astunak, pestizidak eta konposatu organokloratuak orokorrean, petrolioaren deribatuak eta bestelakoak.

Zadorra sistema deritzona bi urtegi osatzen dute (Uribarriko urtegia eta Urrunagako urtegia). Lehendabizikoak Zadorra, Barrundia eta Alegria edo Dulantzi ibaietako urak biltzen ditu eta bigarrenak Santa Engrazia eta Urkiola ibaien eta Albiña erreken urak, batez ere herriak urez hornitzeko.

Urtegiako ura Gasteizko biztanleak hornitzeko erabiltzen da eta, halaber, Bizkaiko 34 udalerrri guztiz edo zati batean hornitzen ditu. Bizkaiko udalerrri hauen artean lurralde historiko horretako biztanle-kopururik handiena dutenak aurki daitezke: Bilbo, Barakaldo, Getxo, Portugalete, Santurtzi eta abar.

Zadorra sistemako urtegiak hornitzen duten Araba eta Bizkaiko populazioa 903.440 biztanlekoa da kalkuluen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren %43.

Horrez gain, baliabide hidriko ordezkazekin direla eta edateko uraren eskaria gero eta handiagoa dela kontuan hartzen badugu, argi eta garbi dago botere publikoek arazo honetan esku hartu behar dutela eta, ildo horretan, Zadorra sistemako urtegiako uraren eta ingurunearen kalitatea etorkizunari begira babesteko dela ziurtatuko duten neurriak hartu behar dituztela.

1.2. HELBURUAK

Urtegien bildutako uraren ezaugarri eta propietateen denboran zeharreko bilakaerak epe ertain edo luzera biztanleria hornitzeko erabiltzea zalantzan jar dezakeen aldaketa adierazgarriak islatzen duen jakin nahi da.

Horretarako, Ana M^e Rallo andreak, Euskal Herriko Unibertsitateko animalia biologiko katedradunak, urtegiako uren kalitateari buruzko azterketa ekologikoa egin du. Lan hori gauzatzeko, uren kalitateak 10 urteko denboraldian (1984tik 1994ra) izan duen bilakaera aztertu du, hainbat organismo, Bilbo-Bizkaia Partzuergoak batik bat, argitaratutako datuak ustiatuz horretarako.

Halaber, uren kalitatea babesteko neurrien sorta osoa aztertu da, administrazio-mailakoak edo arau gisakoak zein neurri teknikoak eta arlokoak miatuz, eta uren erregimen juridikoari eta aginpide-banaketari buruzko azterlan batekin osatu da txostena.

Ondorioak eta gomendioak edo jarduteko proposamenak aztergai dituen idazati batek burutzen du lana. Idazati honetan, administrazioak har litzakeen neurri-sorta zabala planteatzen da, Zadorra sistemako urtegiako uren eta ingurunearen kalitatea etorkizunari begira hobeto babesteko azpimarratu beharreko alderdiak azaltzen dituen aldi berean.

II. KAPITULUA

INGURUNE FISIKO ETA HIDRAULIKOAREN DESKRIBAPENA

2. INGURUNE FISIKO ETA HIDRAULIKOAREN DESKRIBAPENA

2.1. URTEGIEN DESKRIBAPENA

Ikuspegi hidraulikotik begiratuta, urtegiak bertan urak isurtzen dituzten ibai eta errekek ekartzen dituzten materia guztiak bildu eta sedimentatzen dituzten ontzi hartzaileak dira. Horregatik, interes handikoa da bai ontzi horien eta bai urtegiak elikatzen dituzten arro hidraulikoaren ikuspegi orokorra izatea, hala aukera izan baitezakegu urteak igaro ahala zer-nolako ekarpenak jasoko dituzten eta denboraren poderioz urbilduen bilakaeran zenbaterainoko eragina izan dezaketean jakiteko.

Zadorraren arroko urtegi deritzenek Uribarri-Ganboa eta Urrunaga edo Santa Engrazia urtegiak barne hartzen dituzte. Lehenengoak 1.489 hektareako azalera dauka, ia bigarrenaren azalaren bikoitza, honek 785 hektarea ditu-eta.

Albiñako urtegia ere aipatu beharra dago, zeren Zadorraren arroan kokatuta badago ere, ezaugarri fisiko eta funtzional oso bereziak eta desberdinak baititu. Izan ere, Arabako Lautadatik at kokatuta dago, oso tamaina txikia dauka, 50 hektarea besterik ez, eta noizean behin baino ez da erabiltzen biztanleria urez hornitzeko.

Hala eta guztiz ere, ingurune fisikoaren ikuspegi zabalagoa lortzearren, eta kapitulu honetan bakarrik bada ere, Zadorraren ur-hornidurako sistemaren partetzat hartuko dugu.

Pentsa daitekeen bezala, urtegien gehieneko **edukiera** eta edukiera erabilgarria beren azalerarekin lotuta dago, ondoko taulan ikus daitekeen bezalaxe; dena den, adierazi beharra dago edukiera erabilgarria organismo guztiak erreferentziazko datu gisa erabili ohi dutena dela:

	<u>Gehieneko edukiera (hm³)</u>	<u>Edukiera erabilgarria (hm³)</u>
Uribarri-Ganboako urtegia	148	125
Urrunagako urtegia	72	65
Albiñako urtegia	5,5	5

Uribarri-Ganboa eta Urrunagako urtegiak 1957. urtean eraiki zituzten. Komunikazio-galeria batek lotzen ditu bi urtegiak; 3.551 metroko luzera, 2 metroko diametroa eta

8 m³/s edukiera dauka. Komunikazio-galeria honi esker urak bi norantzetan zirkula dezake eta ura urtegi batetik bestera eramán daiteke.

Hidrologikoki, hiru urtegiak Zadorraren azpiarroaren zati dira eta hau, era berean, Ebroen arroan barne hartuta dago; beraz, EAeko isurialde mediterraniarrekoak dira.

Beren kokapenari dagokionez, hiru urtegiak Arabako lurraldean kokatuta daude, nahiz eta Urrunagako urtegiaren atzealdearen zati txiki bat Bizkaiko lurretan egon, Otxandioko udalerrian.

Lurraldearen ikuspegitik begiratuta, urtegietakoz lurzorua honakoz udal hauena da:

1. Albiña: Aramaio.
2. Uribarri-Ganboa: Arratzu-Ubarrundia, Burgelu eta Barrundia.
3. Urrunaga: Legutio, Zigoitia eta Otxandio.

Urtegiak biztanleria eta industria **urez hornitzeko** eskariari erantzuteko asmoz sortu ziren. Horregatik, bi aprobetxamendu-emakida eman ziren: bata, urteko 152,76 hm³ koa (4.844 l/s), Bilbo Handiko Ur eta Hornidura Partzuergoaren alde (gaur egun, Bilbo-Bizkaia Ur Partzuergoa); eta bestea Gasteizko Udala Urak/Aguas Municipales de Vitoria, SA (AMVISA) sozietatearen alde. Azken honek urteko 33,88 hm³-ko aprobetxamendua du emakidapean Gasteiz urez hornitzeko eta horretarako 850 l/s hartunea dauka Uribarriko urtegitik.

Bilbo-Bizkaiko Ur Partzuergoak Urrunagako urtegian instalatuta dauka hornidurarako ur-kaptazioa. Horrela, 12.500 metroko luzera eta 4,25 metroko diametroa daukan lurpeko galeria baten bitartez, ura eramaten du Urrunagako urtegitik Zeanuriko Undurragako urtegiraino, Barazarko zentral hidroelektrikoa zeharkatuz; eragiketa honen bidez, arro batetik bestera eramaten da ura, Zadorraren azpiarroan hartzen baita, hots, isurialde mediterraniarrean, eta isurialde kantauriarrean eramaten baita, Arratia ibaiaren azpiarrora. Hurrengo fase batean, Undurragako urtegian isuritako urak tutuerien bidez eramaten dira Arrigorriaga eta Bilboko udalerrien arteko mugan dagoen Venta Altako araztegiraino.

Urtegietakoz urak **energia elektrikoa sortzeko** ere aprobetxatzen dira. Azpiegitura hidroelektrikoz garrantzitsuena "Barazarko Urjauzikoa" da, arro kantauriarrean. Zadorraren urtegietakoz urak Arratia ibaiaren arroan dagoen Undurragako urtegira (Zeanuri) eramaten dira eta hemen, Barazarko lurpeko zentrolean, turbinatu egiten dira, 328 metroko altuerako desnibel gordina aprobetxatuz. Zentral honek 42.500 kW-eko bi ekipo elektriko ditu, guztira 84.053 kW-eko potentzia batzen dutenak.

Iberdrolaren titulartasuneko den jauzi hidrologikoz honetarako emakida segundoko 9 m³-koa da (283,82 hm³/urte).

Horrez gain, urtegietan badira beste azpiegitura hidroelektrikoz batzuk, sortzen duten potentziari dagokionez garrantzi txikia dutenak. Hauexek dira:

Mendibil - 20 kW

Lacorzana - 100 kW
Uribarri - 610 kW
Urrunaga - 610 kW

Nekazaritzan erabiltzeko ur-eskariei dagokienez, adierazi beharra dago Zadorra garaian, Uribarriko urtegitik ibaian gora, 2.268 hektareako ureztatze-saila dagoela; honek urtean 3,94 hm³-ko eskaria dakar edo, bestela esanda, urtean hektareako 1.750 m³-ko zuzkidura.

Ebroren aroko Plan Hidrologikoak Zadorraren azpiarrokako nekazaritzan erabiltzeko aurreikusitako zuzkidurak urteko 3.463 hektareakoak dira; Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren arabera, ordea, lurralde historiko osoan benetan erabilitako zuzkidurak urteko 1.750 hektareakoak dira, aukera hidrologikoak baino dezente txikiagoak beraz.

Logikoa eta aginduzkoa denez, urtegiek ibaiadarren emaria ziurtatu behar dute ibaian behera igarotzen den ibaitartean. Horretarako aurreikusita dago konpentsazio-emaria 250 l/s izatea Urrunagako urtegitik eta 500 l/s Uribarri-Ganboako urtegitik, azken honetan emaria 800 l/s kopururaino handituz ekainetik irailera arte.

2.2. Arroaren deskribapena

Zadorra ibaiaren azpiarroa urtegirik handiena, Uribarri-Ganboakoa, urez hornitzen duena da eta 276 km²-ko azalera hartzen du urtegiaren ipar-ekialderantz eta ekialderantz orientatuta dauden lur aski lauetan.

Zadorra ibaia da, Las Ventas erreka eta Barrundia ibaiaren urak Maturana inguruan jaso ondoren, Uribarri-Ganboako urtegian urak isurtzen dituen ibai nagusia. Azpimarratzekoa da, halaber, Alegria edo Dulantzi ibaiak bere izena daraman kanalaren bitartez egiten duen ekarpena; baimendutako emaria 500 l/s da, baina praktikan egiten duen emari-ekarpena dezente txikiagoa da.

Azpiarroaren muga eta berau zeharkatzen duten erreka gehienek sorburua Urbasa, Entzia eta Iturrieta mendizerretan daude.

Zadorra ibaia, hain zuzen ere, Opakua mendatearen aldamenean jaiotzen da, Los Corrales iturbegian, 1.045 metroko altitudetan, Donemiliagako udalerriko lurretan.

Azpiarroak 7.000 biztanle ditu gutxi gorabehera, 22 herrigunetan banatuta. Hauen artean, Agurain (3.796 biztanle) eta Dulantzi (1.234 biztanle) nabarmentzen dira, 1996ko erroldaren berrikuspeneko datuen arabera.

Gainerako herriguneak tamaina txikiak dira, baina honako hauek aipa daitezke udalerrika bilduta:

DULANTZI: Egileta.
ARRATZU-UBARRUNDIA: Azua, Landa eta Uribarri-Ganboa.

ASPARREN: Arriola.

BURGELU: Añua, Argomaiz eta Gazeta.

IRURAITZ-GAUNA: Azilu, Alaitza, Arrieta, Erentxun, Ezkerekotxa, Gazeo, Gauna, Gereñu, Jauregi eta Langarika.

DONEMILIAGA: Adana, Aspuru, Txintxetru, Luzuriaga, Munain, Narbaxa, Okaritz, Ordoñana, Uribarri-Jauregi eta Zuazo-Donemiliaga.

Lurzoruaren zatirik handiena nekazaritzarako erabiltzen da eta zereal, tuberkulu eta bazka-landareen laborantza da nagusi. Horrez gain, azienda garrantzitsua da, batez ere ardi-azienda, 25.000 abelburu biltzen baititu gutxi gorabehera.

Industria-erabilerak Aguraingo industria-poligonoan kontzentratzen dira batik bat. Poligono hau Zadorra ibaiaren ibilgutik hurbil dago eta bertara isurtzen dituzte hondakin-urak.

Kirol-erabilerei dagokienez, bi klub nautiko daude: "CN Aldayeta" eta "CN Vitoria". Adierazi beharra dago, halaber, Arabako Foru Aldundiak gazteentzako kanpamentu/aterpetxe bat duela Zuazako uhartean eta jende ugari erabiltzen duela, batez ere udaldian.

Horrez gain, Landa eta Garaioako parkeak aipatu behar dira. Jende asko izaten da parke hauetan eta udan barnealdeko benetako hondartzak izaten dira; sarritan izaten dira bertan Gasteizko eta inguruko beste herri batzuetako biztanleak.

Mendixurko penintsulan, urtegiaren hego-ekialdean, hegazti urtarren espezie dezente, anfibioak eta narrastiak hazi eta ugaltzen diren parke ornitologiko bat dago.

Bestalde, udan urtegiaren urbazterreko leku askotan hondartzak sortzen dira bat-batean. Hondartza hauetan jende ugari izaten da, baina gehienek ez dituzte beharrezkoak diren gutxieneko ekipamenduak.

* * *

Santa Engrazia edo Undobe ibaiaren azpiarroa izen bereko urtegia urez hornitzen duena da. 121,05 km²-ko azalera hartzen du, urtegiaren iparralderantz eta mendebalderantz orientatuta.

Santa Engrazia ibaiatz gainera, Barazar, Urkiola, Inola eta Albiña dira urtegiaren isurtzen dituzten erreka nagusiak. Ibaibide hauek Gorbeia eta Urkiola inguruko mendietan dute sorburua.

Azpiarroak 2.700 biztanle ditu gutxi gorabehera. Herrigune nagusiak Legutio (1.311 biztanle), Otxandio (1.046 biztanle) eta Ubide (161 biztanle) dira, 1996ko erroldatik lortutako datuen arabera.

Lurzoruaren erabilerei dagokienez, azpiarroaren 14.261 hektareetan basogintza-erabilera da nagusi, 9.213 hektarearekin, belardiek 2.314 hektarea hartzen dituzte eta hiri-eremuek

106 hektarea besterik ez. Abeltzaintza-erabilerak ere azpimarratzekoak dira, izan ere 24.190 abelburuko azienda dagoela kalkulatzen baita.

Industria-erabilerei dagokienez, zenbait tailer daude Otxandion, nahiz eta guztiak udaleko saneamendu-sarera lotuta ez egon. Legutiotik hurbil dagoen industrialdeari dagokionez, Goiango poligonoa, urtegiaren goi-ibarretik ibaian behera dago eta, hortaz, bere isurketek ez dute eraginik uren kalitatean.

Kirol- eta aisia-erabilerei dagokienez, urtegiaren atzealdetik hurbil dagoen Legutioko Arraunketa Zentro Olinpikoa aipa daiteke. Horrez gain, bi parke daude: Sabalain eta Sorgimendi. Bestalde, urtegi honetan bainu-jarduera ez da Uribarri-Ganboakoan bezain sarria, baina udaldian jende asko bainatu ohi da.

* * *

Albiñako urtegia da, alde handiarekin, hiru urtegietatik txikiena: 50 hektareako azalera eta 5 hm³-ko edukiera besterik ez dauka. Urtegiari izena ematen dion Albiña ibaiak hornitzen du. Arabako Lautadako lurretan eta kota beretsuan dauden Uribarri-Ganboa eta Urrunagako urtegiak ez bezala, Albiñako urtegia beste biak baino kota altuagoan dago, Krutzeta mendatearen hegalean kokatuta, Aramaiorako sarbide-errepidearen ondoan.

Urtegi hau buztin-lurraren gainean asentatuta dago eta, horregatik, burdin kontzentrazioa (Fe) altua da eta manganeso-kontzentrazioa (Mn) txikixeagoa, baina aipagarria. Metal disolbatuen kontzentrazio hau handitu egiten da udazkenean, hautsi egiten baita termoklina edo azaleko uren eta ur sakonen arteko bereizte-zona eta metal-kontzentrazio handiagoa duten hondoko urekin nahasten dira.

Kontsumitzeko uren aprobeixamenduaren emakidadunak AMVISA eta, zati txiki batean, Legutioko Udala dira (1 l/s). Dena den, uraren kalitateari buruzko exijentziak gero eta handiagoak direnez eta urtegi honetako urek metal-eduki handia dutenez gero, edateko uren araztegiaren tratamendu koalifikatua eman behar zaie eta, ondorioz, Albiñako urtegi ura gero eta gutxiago erabiltzen da. Hori dela-eta, urtegi hau ez da normalean erabili ohi den baliabidea, Gasteiz urez hornitzeko erreserba estrategikoa baizik.

Urtegiaren ez dira zilegi ez aisia-jarduerak, arrantza izan ezik, ez bainu-jarduerak; izan ere, urtegiarako sarrera mugatuta dago bere perimetro osoa inguratzen duen hesi baten bidez.

III. KAPITULUA

HORNITZEKO URAREN ERABILERA ETA ARRISKU POTENTZIALAK

3. HORNITZEKO URAREN ERABILERA ETA ARRISKU POTENTZIALAK

3.1. HORNITUTAKO BIZTANLERIA

Zadorra sistemako urtegiak Gasteiz eta Bizkaiko 34 udalerrri hornitzen dituzte urez. Bizkaiko udalerrri hauen artean Nerbioiren itsasadarraren ertzetan kokatutako guztiak daude, Bilbo barne.

ZADORRAKO URTEGIAK (100%)		ZADORRAKO URTEGIAK + BESTELAKO BALIABIDEAK	
Udalerrriak	Biztanleak*	Udalerrriak	Biztanleak*
ARRIGORRIAGA	10.413	ABANTO	8.417
BARRIKA	1.047	ARRANKUDIAGA	730
BASAURI	48.490	BARAKALDO	100.474
BERANGO	4.645	BILBO	358.875
DERIO	4.677	GALDAKAO	29.646
ERANDIO	23.613	LARRABETZU	1.518
ETXEBARRI	6.374	LAUKIZ	937
GETXO	82.196	LEZAMA	2.057
GORLIZ	3.523	UGAO-MIRABALLES	4.173
LEIOA	26.256	MUNGIA	12.807
LOIU	1.686	MUSKIZ	6.367
PLENTZIA	3.117	URTUELLA	8.601
PORTUGALETE	54.071	TRAPAGA	12.855
SANTURTZI	49.976	ZARATAMO	1.597
SESTAO	34.496	ZIERBENA	1.148
SONDIKA	3.582		
SOPELA	9.460		
URDULIZ	2.787		
ZAMUDIO	3.053		
GUZTIRA	373.462	GUZTIRA	550.202

* Estatistika Institutu Nazionaletik lortutako biztanleriari buruzko datuak, 1996ko maiatzaren 1eko Biztanleen Udal Erroldaren arabera.

Urtegietao uraren hornidura, edateko uraren arazketa eta banaketa AMVISAk (Gasteizko Udal Urak/Aguas Municipales de Vitoria, SA) kudeatzen du Gasteizko udalerrian eta Bilbo-Bizkaia Partzuergoak bertan sartuta dauden Bizkaiko 34 udalerrietan. Dena den, partzuergoan esku hartzen duten udalak dira ura biztanleei etxeetara banatzeaz arduratzen direnak.

Oso zaila da hornitutako biztanle-kopuru osoa zehatz-mehatz ezagutzea, Bizkaiko 34 udalerrietatik 19 baino ez baitira Zadorra sistematik datorren urez bakarrik hornitzen direnak, eta 375.116 biztanle biltzen dituzte.

Bizkaiko beste 15 udalerriek (550.202 biztanle), urtegietao datorren uraz gainera, beren baliabideak erabiltzen dituzte; baliabide hauen ustiapena aldatu egiten da urtaro eta urte batetik bestera, plubiositatearen eta beren kaptazioen emariaren arabera. Hori dela-eta, zail samarra gertatzen da udal hauek beren baliabideak eta urtegietao ura zein portzentaiatan erabiltzen dituzten zehatz-mehatz kalkulatzeko.

Bilboko Udalaren kasua bereziki aipatzekoa da, Arabako urtegietao gainera Burgosko probintziako iparraldean dagoen Ordunteko urtegietao urak erabiltzen baititu bertako biztanleak (358.875 biztanle) urez hornitzeko.

Ordunteko urtegia Kadaguaren ibaiadarra den Ordunte ibaiaren arroan kokaturik dago, 22 hm³-ko edukiera erabilgarria dauka eta 139 hektareako azalera okupatzen du Villasana de Mena udalerrian. 1934. urtean abiarazi zuten eta Bilboko Udalak 1.500 l/s aprobetxamendu-emakida dauka. Urak 16 km-ko luzera, 2 metroko altuera eta 1,38 metroko zabalera duen tutueria baten bitartez eramaten dira Zallan dagoen Sollanoko araztegiaraino; hemen ura ponpatu egiten da Bilboko biztanleen %60 inguru hornitzeko. Urtegietao uren kalitatea ona da eta Zadorra sistemako urtegiek baino eutrofia-maila txikiagoa du, hauek baino zaharragoa izan arren.

Arabako urtegietao hornitzen den Bizkaiko biztanleriaren gutxi gorabeherako kalkulua egin daiteke, honako datu hauek abiapuntutzat hartuta: Ordunteko urtegiak Bilboko biztanleen %60 hornitzen du urez; gainerako %40 Zadorra sistemako urtegiei dagokie; bestalde, Bilbo-Bizkaia Partzuergoaren ura eta beren baliabideak elkarbanatzen dituzten beste udalerrietan, lehendabizikoa urteko kontsumoaren %90ekoa da batez beste. Premisa horiek abiapuntutzat hartuta, ondoko datuak izango genituzke Zadorra sistemako urtegiek hornitzen duten biztanleriari dagokionez:

ZADORRAREN URTEGIEK HORNITZEN DUTEN BIZTANLERIA, GUTXI GORABEHERA

Araba	214.234
Gasteiz	214.234
Bizkaia	689.206

Bertatik bakarrik hornitutako biztanleria	373.462
Zati batean hornitutako biztanleria	550.202
Bilbo:	$358.875 \times \%40 = 143.550$
Bestelako udalak:	$191.327 \times \%90 = 172.194$
Guztira	315.744

Hornitutako Araba eta Bizkaiko biztanleria guztira ... 903.440

Beraz, egindako kalkuluaren arabera, Zadorra sistemako urtegiak Araba eta Bizkaiko 903.440 biztanle urez hornitzen dituztela esan daiteke, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria osoaren %43.

EAEko biztanleria	2.098.055
Zadorraren urtegiak hornitutako biztanleria	903.440

Zadorraren urtegiak hornitutako EAEko biztanleria %43

3.2. Uraren kalitaterako arrisku potentzialak

- A) Hiri- eta industria-isurketak.
- B) Merkantzia arriskutsuen garraioa.
- C) Aisia- eta kirol-jarduerak.
- D) Nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzako jarduerak.

Zadorraren urtegiak eraginpean hartzen dituzten arrisku potentzialak Arabako Lautadan kokatuta egotearen eta urtegiaren eta hauek hornitzen dituen arroan garatzen diren erabileren ondorio dira batik bat.

Gainera, badira faktore geografiko batzuk, arrisku horiek izatea errazten dutenak, esate baterako errepidez hurbiltzeko erraztasuna (Barazar, Urkiola, Arlaban, Leintz-Gatzaga...), bai N-1 errepidetik eta bai goi-lautadarako sarbideetatik; gainera, Gasteiz bezalako hirigune handi bat hurbil izateak areagotu egiten du arriskua. Hurbiltzeko erraztasun honek, era berean, komunikabideen azpiegiturak urtegietatik hurbilegi dauden lekuetan zehar igarotzea dakar.

Arabako Lautada oso lur emankorra da eta bertan tradizio handikoak dira zereal, tuberkulu eta bazka-landareen laborantza eta nekazaritza-ustiapen intentsiboak. Nekazaritzako laboreek errendimendu ezin hobea izateko ongariak eta intsektizidak erabili behar dira eta produktu hauek oso poluitzaileak dira eta arrisku-faktorea dira urtegiak urentzat.

Urrunagako urtegiaren aldamenean Legutio eta Otxandioko hiriguneak daude. Hemen hiri- eta industria-hondakinak sortzen dira eta behar bezalako tratamendua ematen ez bazaie eragin handia izan dezakete urtegiak bildutako uren kalitatean.

Zadorra sistemako urtegiak beti izan dira oso erakargarriak aisia-jarduerak garatzeko eta bertara heltzeko erraztasuna mesedegarria izan da gainera. Bere balio paisajistiko

eta naturalaz gain, ur-laminak kirol nautikoak egiteko aukera ematen du, baita ontzi motoredunak erabiltzeko ere, udaldiko bainuak ahaztu gabe.

Faktore hauek guztiak, aldi berean, uraren kalitatean eragin negatiboa duten arrisku errealak eta potentzialak dira, urtegiaren baldintzak epe ertain eta luzera arriskuan jartzen dituztenak.

Ez dugu ahaztu behar, ibai eta errekek ez bezala, urtegiatiko urak berriztatzeko oso ahalmen mugatua daukela eta urtegiaren hondoak bertara iristen diren hondakin solido guztiak bildu eta metatzen dituela. Horren ondorio da bere urrakortasun-maila handia eta hartze-ahalmena galtzeko joera naturala, baita urtegian bildutako uren kalitatea galtzekoa ere.

Poluitzeko arrisku-faktoreak aztertzerakoan, ezinbestekoa da ibaiadarretan eragina dutenak ongi aztertzea, zeren arroko ibai eta errekek jasotzen dituzten isurki eta elementu poluitzaileak autoarazteko ahalmenik ez duten heinean, prozesu naturalari jarraiki ibaian behera eramango baitituzte, horiek guztiak hartzen dituzten urtegiatan metatu arte.

A) Hiri- eta industria-isurketak.

Urtegiek biltzen dituzten zuzeneko hiri-isurketa nagusiak beren ubidearen ondoan asentatuta dauden herrietatik datoz. Hauxe da batez ere Urrunagako urtegian Otxandio (1.046 biztanle) eta Legutiorekin (1.311 biztanle) gertatzen dena. Bi herri hauek badituzte araztegiak, baina instalazioak hobetu beharra dago Otxandioren kasuan eta Legution, aldiz, ezinbestekoa zen jarduera integrala berehala gauzatzea. Arabako Foru Aldundiak 1998ko amaiera aldean esku hartu zuen, hiriko hondakin-urak kolektore baten bitartez Goiaingo industria-poligonoko araztegiara eramanez.

Otxandioko inguruetan, El Limitadon, kokatuta dauden tailer eta industriak kontuan hartu beharreko beste faktore bat dira, beren isurketak ez baitaude behar adina araztuta eta urtegitik hurbil baitaude.

Bi herri hauetaz gain, Urrunagako urtegiaren ubidearen ondoan badira beste landa-herrigune batzuk, batzuk besteak baino sakabanatuagoak, hondakinak bertan isurtzen dituztenak: Ollerias, Elosu eta Nafarrete.

Uribarri-Ganboako urtegiaren inguruetan, hondakinak zuzenean isurtzen dituzten tamaina txikiko landa-herriguneak baino ez daude: Uribarri-Ganboa, Langara-Ganboa, Mendixur, Marieta-Larrintzar eta Matura.

Hala eta guztiz ere, urtegi honetan garrantzi handiagokoak dira bere ibaiadar nagusia den Zadorra ibaian gora dauden herriguneetan sortzen diren hondakinen isurketak. Aguraingo herrikoak (3.796 biztanle) dira azpimarragarrienak, bertako industria-poligonokoak batik bat.

Albiñako urtegiari dagokionez, leku isolatu batean kokatuta dagoenez, Krutzeta mendiaren hegalean, bertara ez da hiri- edo industria-hondakinik isurtzen.

B) *Merkantzia arriskutsuen garraioa.*

Merkantzia arriskutsuen errepedeko garraioari dagokionez, legeak garraio-mota hau autobide eta errepede nazionalera mugatzen duen arren, ez da baztertu behar horretarako bigarren mailako beste errepede batzuk erabil daitezkeela. Hau urtegia poluitzeko arrisku-faktore garrantzitsua izan daiteke, merkantzia arriskutsuak edo bestelako produktu toxikoak isuri baitaitezke urtegiara.

Madril-Irun errepede nazionalaren (N-1 errepedea) trazadura azpimarratu beharra dago, Uribarri-Ganboako urtegitik hurbil igarotzen baita, Mendixurko inguruetan; gainera, Zadorra ibaian isurtzen diren arro horretako erreka batzuetatik hurbil igarotzen da. Beraz, oinarritzko bide-ardatz honetan zeharreko merkantzia arriskutsuen trafikoa urtegian bildutako urak eta urtegiaren inguruak poluitzeko etengabeko arrisku-faktorea da.

Urtegiatan eragina izan dezaketen bide nagusiak, goian adierazitako N-1 errepedeaz gain, honako hauek dira:

- N-240: Bilbo-Gasteiz errepede nazionala, Barazar mendatean zehar.
- A-627: Gasteiz-Bergara-Maltzaga eskualde-errepedea, Arlaban mendatean zehar.
- A-623: Legutio-Otxandio-Durango eskualde-errepedea, Urkiola mendatean zehar.
- N-104: Gasteiz-Ozeta errepede nazionala (N-1 errepede zaharra).
- A-3012: Ozeta-Egino toki-errepedea.
- A-3014: Landa-Ozeta toki-errepedea.
- Madril-Irun trenbidea.

C) *Aisia- eta kirol-jarduerak.*

Jolas-jarduerari dagokienez, honako modalitate nagusi hauek aipa daitezke:

- Udaldian bainatzea.
- Ontzi motoredunak edo motoregabeak erabiltzea.
- Kanpatzea.
- Jolas-parkeetan txangoak egitea.
- Mendi-bideetan ibiltzea.
- Hegazti urtarrak behatzea.

Jarduera hauetako batzuek zuzeneko isurketak eragiten dituzte; ontzi motoredunek esate baterako, urtegiako uretara olio eta gasolio kantitate txikiak isurtzen dituzte.

Beste jarduera batzuek, ordea, ur-laminatik edo ubidetik hurbil dauden ertzetako zonetan dute eragina. Horrela gertatzen da jolas-parkeetan, batez ere noizbehinka egiten diren kanpaldietan, isurketak izaten baitira eta hondakinak pilatu, baina antzekoa gertatu ohi da urtegiaren ertzaren aldamenean dauden zonak ibilgailuak aparkatzeko erabiltzen direnean eta, areago, bertan kotxeak garbitzen dituztenean.

Udaldiko bainuei dagokienez, jarduera hau ura baldintza ezin hobeetan iraunarazteko oso gomendagarria ez bada ere, erabilera honek ez dio urari kalte handiegirik egiten, batez ere urtegiaren bildutako ur-bolumena oso handia dela eta udaldian bakarrik garatzen dela kontuan hartuta. Alabaina, bainu-eremu hauetako ekipamendua (komunak, zabor-bilketa, aparkalekuak...) areagotu egin beharko litzateke, hain zabaldua dagoen jarduera honek sor dezakeen eragin negatiboa oso neurri handian murriztuko bailuke.

D) Nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzako jarduerak.

Nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzako jarduerak ere arrisku-faktorea izan daitezke urtegiatako uren kalitatearentzat.

Mendien hegaletan gertatzen den baso-soiltzea dela-eta, zoruek ez dute euri-ura atxikitzen eta isurketak landare-geruza herrestan eramaten du, zorua biluzik utziz. Prozesu honen ondorioz, arroko erreka eta ibaiek sedimentu eta substantzia mineral gehiago jasotzen dituzte, aluminioa eta burdina batik bat.

Baso-zoruek bi urtegiaren arroen azalera osoaren %43 hartzen dute, hau da, 19.746 ha. Gainera, mendi hauetako asko herriaren onurakotzat aitortu ditu arloko administrazioak; horrez gain, herri-administrazioa, hots, kontzejuak, udalak eta foru-aldundiak, baso-aberastasun honen zati handi baten jabe dira. Hori dela-eta, foru-aldundiek beren funtzio teknikoak eta tutoretzakoak betez garatzen dituzten basogintzako politikak ez dira interesik gabekoak; izan ere, zuzen-zuzeneko eragina dute urak urtegiatan isurtzen dituzten erreka eta ibaien uren kalitatean eta, basoz inguratuta dagoen heinean, urtegiaren bildutako uretan bertan.

Nekazaritza oso zabaldua dago Uribarri-Ganboako urtegia hornitzen duen arroan, Arabako Lautadaren ekialdean. Arabako Foru Aldundiak, 1997an egindako azterlanean, 13.046 hektarea labore zenbatu zituen inguru honetan. Labore horien artean, azalerari dagokionez, zereala (7.402 ha) eta patata (1.412 ha) dira nagusi.

Nekazaritzako labore hauek, batez ere patatak eta zerealak, ordena honetan, behar-beharrezkoa dute produktu fitosanitarioak (herbizidak, intsektizidak edo pestizidak eta fungizidak) eta ongarririk behin eta berriz erabiltzea, batez ere ongarririk nitrogenatuak, fosforatuak eta potasikoak. Produktu toxikoak eta iraunkor hauek behar ez bezala edo gehiegi erabiliz gero, gerta daiteke, eta zenbaitetan hala gertatzen da, eurien eta isurketen ondorioz lurrak eta landareek zurgatu ez duten produktuaren zatia urtegiatara isurtzen diren ubideetara iristea eta, hala, urtegiaren bildutako uren kalitateari kalteak eragitea. Egindako kalkuluen arabera, Uribarri-Ganboako urtegiaren arroan bakarrik urtean 10.000 tona inguru ongarririk erabiltzen dira eta hauen zati txiki bat urtegiaren elikagai edo nutriente bilakatzen da, urak bertara isurtzen dituzten ibaiek, batez ere Zadorrak eta Alegria ibaiaren kanalak, egindako ekarpenen bitartez.

Kontuan izan behar da nitrogenoa (N) eta fosforoa (P) herbizida, ongarririk eta produktu fitosanitario erabilienean osagaiak direla eta, era berean, hauek direla urtegiatako uren eutrofizazioa eta, hortaz, bere kalitate-galera eragiten duten elementu nagusiak. Horrez gain, produktu fitosanitario asko oso toxikoak dira uretako bizitzarako.

Abeltzaintza-jarduerari dagokionez, bere ahalmen poluitzaile nagusia animaliek sortzen dituzten hondakinen ondorio da. Urrunagako urtegiaren inguruetan ustiategi gehiago daude Uribarri-Ganboakoaren inguruetan baino; dena dela, azken urteotan abelburu-kopurua nabarmenki murriztu da. Arabako Foru Aldundiaren 1997ko datuen arabera, ardi-azienda nabarmentzen da, 16.072 abelbururekin, abelgorri-azienda da hurrengoa, 6.266 abelbururekin, eta txerri-aziendak 4.680 abelburu ditu.

Urtegi eta ubideetatik hurbil dauden ustiategi intentsiboak, mindak eta simaurra ezabatzeko instalazio egokiak ez dituztenean, kontuan hartu beharreko elementu kutsatzaileak izan ohi dira. Halaber, ez da ahaztu behar ustiategi intentsiboek izan dezaketen eragin degradatzailea; izan ere, horrelakoetan abereek, batez ere ardiek eta abelgorriek, zuzenean edaten dute ibai eta erreken ubideetan edo urtegian bertan.

Badira, azkenik, abeltzaintza-jardueraren ondorio diren beste poluzio-iturri batzuk, zenbaitetan oso arriskutsuak izan daitezkeenak: abereen parasitoak hiltzeko edo tratamendu farmakologikorako erabilitako produktuen isurketak.

IV. KAPITULUA

URAREN KALITATEAREN AZTERKETA EKOLOGIKOA

4. URAREN KALITATEAREN AZTERKETA EKOLOGIKOA

4.1. Helburuak

Txosten honen helburua Zadorra sistemako urtegietako (Uribarri-Ganboa eta Urrunaga) uren egungo kalitatea baloratzea eta, baldin badaude, denborazko aldaketa naturalak edo antropogenoak antzematea da, hala horietan joerak adierazi eta aldaketa honen etorkizuna iragarri ahal izango baita.

Beraz, hauxe lortu nahi da:

1. Zadorra sistemaren osagaien baldintzak beren ezaugarri fisiko eta kimikoen (eta, alderdiren batean, biologikoen) arabera deskribatzea.
2. Baldintza horiek espazioan eta denboran ebaluatu eta konparatzea.
3. Diferentziak adierazgarriak diren ala ez zehaztea.
4. Denborazko joerak antzematea, baldin badaude.
5. Aurkitutako emaitzak interpretatu eta eztabaidatzea.
6. Sistemaren erabilerekin lotutako jarduteko jarraibideak proposatzea.

4.2. Metodologia

- Zadorra sistema elkarri eragiten dioten hiru azpisisisteman banatuta dago:
- Ibaiadarrek isurtzen dituzten urak.
- Urtegian bildutako urak.
- Urtegietako sedimentuak.

Analizatutako aldagaiak uraren egoera fisiko eta kimikoari dagozkionak dira (tenperatura, pH, konduktibitatea, alkalinitasuna, gatz-kontzentrazioa, hala nola sulfatoak, kloruroak, fosfatoak, nitratoak, nitroak, silikatoak, sodio-ioiak, potasioa, magnesioa, kaltzioa, metal astunak eta abar). Sedimentua nutrienteen eta metal astunen edukia eta urtegiaren hondoak duen oxigeno-gabezia neurtzen duten redox-potentzialaren balioak ezagutzeko aztertzen da. Sistemari ur-ekarpenak egiten dizkieten ibaiak beren uragatik (urtegietako urak bezalaxe) eta indize biotikoen arabera definitutako beren kalitate biologikoagatik aztertu dira. Indize hauek ibaian dagoen makroornogabeen faunan oinarritzen dira. Uren kalitatea zenbat eta handiagoa izan, hainbat eta aberatsagoa da fauna hau eta espezie sentikorragoak ditu.

Datuak, 1984tik 1994ra bitartekoak, biak barne, honako dokumentu hauetatik lortu dira:

- *Zadorra sistemako urtegien urteko zikloak. 1984-1994 urteak.* Bilbo: Ur, Hornidura eta Saneamendu Partzuergoa, 1996.
- *Uribarri-Ganboa, Santa Engrazia eta Albiñako urtegietakoko uraren egoera trofikoa eta kalitatea: 1986. urteko zikloa.* Bilbo: Ur, Hornidura eta Saneamendu Partzuergoa, 1996.
- *Uribarri-Ganboa, Santa Engrazia eta Albiñako urtegietakoko uraren egoera trofikoa eta kalitatea: 1995. urteko zikloa.* Bilbo: Ur, Hornidura eta Saneamendu Partzuergoa, 1996.
- *RALLO A. Araba eta Gipuzkoako ibai-sarearen karakterizazio hidrobiologikoa.* Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila, 1992.
- *EAEko uren kalitatea eta ibaien ingurugiro-egoera zaintzeko sarea. Hainbat urte.* Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila.

Aplikatu den datu-analisia estatistiko unibariantea eta multibariantea da (aldagaiak nola aldatzen diren, banan-banan edo guztiak batera, lekuaren eta denboraren arabera). Emaizak estatistikoak dira, hots, lan-mota hauetan erabili ohi diren errore-marjinei lotuta daude.

4.3. Emaizak

Emaizen kapituluak Ura, Sedimentuak eta Ekarpenak (orokorrak eta bereziki Zadorra ibaiarenak) dira eta korrelatiboki zenbakitutako paragrafoetan laburbiltzen dira:

4.3.1. Urtegietakoko ura. Emaizta garrantzitsuenak honela laburbiltzen dira:

1. Fosforo totalaren kontzentrazioa adierazgarria da (irizpide honen arabera urtegiak mesotrofiko gisa sailkatzen direla adierazten du). Nitrogeno/fosforo erlazioa 16 baino askoz ere handiagoa da; urtegiak sailkatzeko ezagutu eta erabili ohi diren indizeen arabera, balio honek adierazten du fosforo-kontzentrazioak altuak izan arren, Zadorraren urtegietan produkzio primarioarako faktore mugatzailea nitrogenoa dela.
2. Dirudenez, pestiziden kontzentrazioak eragotzi egiten du mikroorganismoek ur sakonenetan eta sedimentuan materia organikoa deskonposatzeko burutu ohi duten ekintza.
3. Pestiziden kontzentrazioak eta konduktibitate-alkalinitasuneko (UG) eta ur sakonetako oxigeno-gabeziako baldintzek bereizten dituzte Uribarri-Ganboa

eta Urrunagako urtegiak. Bi kasuetan, Uribarri-Ganboako urtegiak Urrunagakoak baino balio altuagoak ditu. Denborarekin ez da aldakuntza nabarmenik ikusten.

4. Denboraren poderioz hidrokarburo-edukiaren (beste aldagai batzuei lotuta) igoera adierazgarria antzematen da Uribarri-Ganboako urtegian.

4.3.2. Urtegiako sedimentuak:

5. Nutrienteen eta metal astunen kontzentrazioak eskuarki altuagoak dira Uribarri-Ganboan Urrunagan baino. Bi kasuetan kontzentrazio hauek handitu egiten dira denbora igaro ahala. Koalitatiboki urtegiak desberdinak dira: Uribarri-Ganboa kromo-kontzentrazio handiagatik nabarmentzen da.
6. Manganeso eta burdin kontzentrazioak, halaber, gora egiten dute denbora igaro ahala, eta sedimentuaren oxigenazio-mailarekin erlazionatuta daude.
7. Urtegiako sedimentuak bereziki desberdinak dira karbono- eta kromo-edukiagatik, baina ez fosforoagatik, ezta nitrogenoagatik ere.

4.3.3. Ur-ekarpenak:

Azterlana bi fasetan egiten da: fase batek, orokorrak, urtegiara ura eramaten duten ibai guztiak aintzat hartzen ditu; bigarrenak Zadorra bakarrik du aztergai eta sakonkiago aztertzen du ibaia. Emaitzak honela laburbiltzen dira:

8. Zadorra eta Alegria ibaiak ekartzen duten nutriente-karga beste hiru ibaiena baino askoz ere handiagoa da, eta handiagoa Alegria ibaiaren kasuan. Horregatik, Uribarri-Ganboako urtegia da karga-isurketa handiena jasotzen duena. Bi urtegiatan ez dirudi denbora igaro ahala kargek igoera garrantzitsurik dutenik. Dena den, Zadorrak eramaten duen amoniako-kantitate handiagoa du bereizgarri (hondakin-uretatik edo nekazaritzako ongarrietatik dator); dirudenez, azken urteetan behera egin du zertxobait.

Bi ibaiak nekazaritza-eremu garrantzitsuak eta herrigune handi samarrak zeharkatzen dituzte eta, horrenbestez, ekarpenak batez ere gizakiaren jarduera hauek eragindako perturbazioen ondorio direla pentsa daiteke. Ekarpen handienak lehortetako urteei dagozkie eta hauen ondoren isurkiek karga gutxiago izan ohi dute, Urkiolaren kasuan izan ezik.

9. Zadorra, bereziki, bi laginketa-puntutan aztertzen da: Agurainen (Z1) eta Eturan (Z2). Ibaia oso desberdina da bi puntuotan: Agurainen fosforo- eta amonio-karga handia du eta kontzentrazioak handitu egiten dira denbora igaro ahala. Ibaian behera lehenatu egiten da (Z2).

4.4. Laburpena eta emaitzen eztabaida

Aurreko emaitzak honako puntu hauetan laburbiltzen dira:

- A. Uraren kalitatea kontuan hartuta, urtegiak egoera mesotrofikoan sailkatzen dira baina, fosforo totalaren kontzentrazio altua dela-eta, eutrofia potentzial indartsu baten pean daudela antzematen da. Fosforo hau, bereziki, eta nutrienteak, orokorrean, ibaien ekarpenen ondorio dira eta hauek nabarmenki handiagoak dira Uribarri-Ganboan Urrunagan baino. Denbora igaro ahala larriago bihurtzen den egoera hau zeharo desegokia da uraren helburu den hornidura-erabilerarako.
- B. Mikroorganismoek ur sakonenetan burutu ohi duten materia organikoaren deskonposaketa oztopatzen bide duten pestizidak aurkitu dira. Konposatu hauen jatorria nekazaritza-jardurekin lotuta dago.
- C. Hidrokarburo-kontzentrazioa (nitrogeno/fosforoaren kontzentrazioarekin lotuta) denbora igaro ahala handitu egiten delako hipotesia onar daiteke. Hidrokarburoen jatorria askotarikoa izan daiteke: ibaien ekarpenak edo urtegiaren azaletik edo urbazterretatik datozenak.
- D. Denbora igaro ahala, sedimentuetan dauden nutriente eta metalen kontzentrazioak handitu egiten dira, Uribarri-Ganboan Urrunagan baino gehiago. Bereziki, kromo-kontzentrazioa askoz ere altuagoa da, baina azken urteotako analisietan jada ez da metal hori antzematen. Berriz ere, elementu hauen iturburua ibaietatik uretan dago.
- E. Ibaien bidezko ekarpenak desberdinak dira. Hala, nutrienteak Zadorra eta Alegria ibaietatik iristen dira batik bat, Uribarri-Ganboaren ibaiadarretatik hain zuzen. Zadorra ibaiaren azterketa zehatzagoa eginez, ibaia bereziki poluituta dagoen puntu bat aurki daiteke: Agurain. Horrez gain, urtaroen arabera aldakortasuna antzeman daiteke: fosfatoek eta amonioak udazkenean izaten dituzte baliorik handienak. Alegria ibaiaren nekazaritza-ekarpenak ere azpimarratzeko modukoak dira.

4.5. Ondorioak eta jarduteko gomendioak

Zadorra sistemako urtegi-tako ura denbora igaro ahala handitzeko joera duen eta bere sedimentuan islatzen den eutrofia potentzial indartsu baten eraginpean dago. Nutrienteen (eta beste poluitzaile batzuk, bereziki kromoa) ekarpenen zati bat ibaien bitartez egiten da, baina urtegian zuzenean gainazalitik edo urbazterretatik sartzen direnak ere garrantzitsuak izan daitezke (hidrokarburoak, esate baterako). Horrek arrisku handia dakar epe ertainera nagusiki gizakiak kontsumitzeko erabiltzen diren uren kalitatearentzat. Hori guztia dela-eta, **perturbazio hauek guztiak ezabatu edo, behintzat, murriztuko dituen presako jardueraren plan** bat gauzatzea gomendatzen da. Plan honek gutxienez jarraian adierazitako alderdiak kontuan hartu beharko lituzke:

- 1. Urtegiei dagokienez,** uraren kalitatea ahalik eta gehien babestu beharko litzateke eta horretarako:
 - 1.1. Sarguneak mugatu eta kontrolatu.
 - 1.2. Urbazterreko landare naturalez egindako inguramendu aski zabala sortu.
 - 1.3. Jarduera perturbatzaileak arautu, batez ere ontzi motoredunen erabilera.
 - 1.4. Ibai-ertzetatik egiten diren isurketak eragotzi, hiri- edo kirol-instalazioetatik zein nekazaritzakoetatik datozenak, behar hainbat araztegi eta iragazki berde ezarriz.
 - 1.5. Erabilera-zonak mugatu eta biomasa erauzteko jarduerak sustatu (arrantza intentsiboa, esate baterako). Hegazti urtarren asentamendu naturalak, balio naturalistiko handia izateaz gain, elementu interesgarri eta positiboa dira helburu honetarako.

- 2. Ibaiadarrei dagokienez,** Zadorra ibaia izango litzateke ekintzarik garrantzitsu eta presakoenak beharko lituzkeena:
 - 2.1. Ibaiek isuritako uraren kalitatea kontrolatzea.
 - 2.2. Sedimentu-ekarpenak ahalik eta gehien murriztea (esate baterako, kontrolatu eta garbitzeko moduko dekantagailuen bitartez).

- 3. Sistemara iristen diren urak biltzeko zonei dagokienez,** hau da, urak bertara isurtzen dituen arro osoa barne hartuta:
 - 3.1. Arroak oihaneztatzea, batez ere goi-ibarretan eta malda handiko inguruetan.
 - 3.2. Ibaibideen urbazterrak landaretza-zerrenda aski zabalak (galera-basoak) ezarriz defendatu, babestu eta berriztatzea.
 - 3.3. Lurraldea antolatzea, erabilera desiragarriak, onargarriak eta onartezinak definituz.
 - 3.4. Izan litezkeen poluzio-gune puntual edo zehaztugabeak (hiriguneak, industriak, nekazaritza eta abeltzaintza) kontrolatzea, arriskuak ebaluatzea eta babes-neurri bereziki seguruak hartzea.

V. KAPITULUA

GAUR EGUN DAUDEN BABES-NEURRIAK

5. GAUR EGUN DAUDEN BABES-NEURRIAK

5.1. Lurraldearen antolamendua eta hirigintza

Zadorra sistemako urtegiak babesteko neurrien artean, lurraldea antolatzeko tresnek eta hirigintza-planek ezarritakoak azpimarra daitezke. Plan hauek lurraldearen antolamendu koherentea ezartzea dute helburu, horretarako lurzoruaren erabilerak eta bere erregimen juridikoa arautuz. Hala, paisaje ireki eta naturala duten lekuak eta bertako oreka ekologikoa babesteko neurriak ezartzeko dokumentu ezin hobe bilakatzen dira.

Lurraldearen antolamenduari dagokion mailan hiru tresna azpimarra daitezke:

1. EAEko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak (LAA).
2. EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.
3. Zona Hezeetako Lurraldearen Arloko Plana.

Aipatzen diren gainerako tresnak, Arau Subsidiarioak eta Plan Bereziak, hirigintzari dagokion esparruan kokatzen diren plangintza-figurak dira.

A) EAE-KO LURRALDEAREN ANTOLAMENDURAKO ARTEZPIDEAK (LAA)

LAA-ak, oinarritzko eta arlo askotako tresna gisa, Euskal Herriko Lurraldearen Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legeak (EHAaren 131. alea, uztailaren 3koa) sortu zituen eta gainerako lurralde- eta hiri-mailako antolamendu-tresnak, hau da, Lurraldearen Zatiko Planak eta Lurraldearen Arloko Planak, Plan Orokorrak eta Arau Subsidiarioak formulatzeko erreferentzia-esparru orokorra osatzen dute.

Gaur egun indarrean dagoen agiri hori, denbora luzez eztabaidatu eta lanketa-prozesu konplexua igaro ondoren, Eusko Jaurlaritzak otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuaren bidez onartu zuen eta otsailaren 12ko EHAaren 29. alearen gehigarrian eman zuen argitara.

“LAAen lurralde-eredua” izeneko atalaren barruan, “14. URA” kapituluan, esku artean dugun gaiarekin zerikusia duten kontsiderazio batzuk egiten dira, interesgarriak direlako hitzez hitz adieraziko ditugunak. Halaber, “8.5.2.D. Lurrazaleko uren

tratamendua” eta “8.6.8.7. *Lurrazaleko uren babesa*” epigrafeak aipatuko ditugu, bertan aurreikusten baita EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzekeo Lurraldearen Arloko Plana idaztea:

* * *

“14-2. KAPITULUA. ETORKIZUNEKO IKUSPEGIA. ETORKIZUNEKO ERRONKA ETA DESAFIOAK.

Azken urteotan **urari eta bere kalitateari loturiko eskaria** etengabe handitu egin da, eta honen ondorioz baliabide hau urritu egin da eta gero eta garestiagoa da, eta datozen urteotan joera hau ez da aldatuko. Baliabide hidrikoen aurrezkoa eta aprobetxamendu razionala ezinbestekoa da etorkizuneko erronkei aurre egiteko.

Uraren kalitateari loturiko eskaerak gero eta handiagoak izango dira, eta honen ondorioz beharrezkoa izango da isurketak eta ingurugiroaren poluzioa geldiarazteko neurriak hartzea, epe luzera kalitatezko baliabide hidrikoak izan ditzagun. Ildo honi jarraiki, gaur egungo joerak «poluitzen duenak ordaintzen du» araua aplikatzearen beharra adierazten dute.

(...)

3. HELBURUAK ETA IRIZPIDEAK.

(...)

3.4. Lurrazaleko eta lurpeko **baliabide hidrikoen babesa** uraren ziklo osoaren batasunaren ikuspuntutik, beharrezkoak diren erabilera-mugapenak ezarriz, bizi-kalitatearen hobekuntza lortzeko eta ibaien eta urtegien posibilitate potentzialak errekuiperatzeko xedez.

(...)

3.6. Euskal Autonomia Erkidegoko isurialde lehorretik (mediterraniarretik) isurialde hezera (kantauriarrera) **ur-eramate berriak ahal den neurrian ez egitea**, azken isurialde honetan bere baliabide hidrikoen erregulazioa optimizatuz, isurialde mediterraniarrean baino askoz ugariagoak baitira.

3.7. Uraren ziklo osoaren **kudeaketaren hobekuntza** (hornikuntza eta saneamendua), xede horretara orientatutako udalaz gaindiko organismoen sorkuntzaren bitartez.

(...)

4. ARTEZPIDEAK ETA JARDUKETA-ARAUAK.

4.1. Plangintza Hidrologikorako tresnak.

(...)

4.1.2. Bereziki, eta beren etorkizuneko aurrikuspenen ondorioetarako, Plan Hidrologikoak Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren asentamendu-ereduaren, ekonomia-jardueraren eta espazio naturalen babesaren konfigurazioari dagokionez LAA hauetan ezarrita dagoenean oinarrituko dira.

4.1.3. **Euskal Autonomia Erkidegoko Barne Arroetako Plan Hidrologiko bat landuko da**, Lurraldearen Arloko Plan izaerarekin, eta Ebro ibaiaren eta Iparra II eta III arroetako Plan Hidrologikoekin batera Euskal Autonomia Erkidego osorako erreferentzia gisa erabiliko den plangintza-dokumentu bakarra eratuko duena, administrazio eskudunen lankidetzaren emaitza gisa.

4.1.4. **Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakin Uren Saneamendu eta Arazketarako Gida Plan bat landu beharko da** berehala, ondoren aipatu diren plan hidrologikoetan barne hartu ahal izateko. Aipatutako Gida Plan honek Euskal Autonomia Erkidegoan baliabide hidrikoen kalitate-helburu egokiak lortzeko hartu behar diren jarduketa eta irizpideak teknikoki eta ekonomikoki barne hartuko ditu.

* * *

8.5.2.D. EPIGRAFEA. LURRAZALEKO UREN TRATAMENDUA.

d1. Epigrafe honek EAEko urtegi, ibai eta erreken aldamenen dauden lur urbanizaezinen, urbanizagarrien eta hiri-lurren lurralde-antolamendua du aztergai. Ubide iraunkorrak ulertuko dira ibaitzat eta errekek, berriz, urtaroen arabera zirkulazio hidrikoa dutenak izango dira.

d2. Urbanizaezin gisa sailkatutako lurzoruan Lurrazaleko Urak Babesteko Antolamendu-Kategoriarako ezarritako zehaztapenak aplikatuko dira, 6.8.7. Artezpidean azaltzen denaren arabera. Antolamendu-kategoria hau adierazitako elementuek eta hauei dagokien babes-zonak osatzen dute. Sare hidrografikoko babes-zerrenden zabalera, ibai eta erreka, aintzira eta urtegien multzorako, urek ohiko ur-bolada handietan duten gehieneko mailatik edo gehieneko urtegi-mailatik neurtuta, EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeke Lurraldearen Arloko Planak zehaztuko du.

EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeke LAP hau behin-betiko onartzen den artean, plangintza orokorrak eta hiri-plangintzak Lurralde

Antolamendurako Batzordeak horretarako erabili ohi dituen irizpideak hartuko ditu aintzakotzat.

d3. Sare hidrografikoaren aldamenen dagoen **urbanizagarri gisa sailkatutako lurzoruan**, EAeko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko LAP behin-betiko onartzen den artean, udal-plangintzak Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeak horretarako erabili ohi dituen irizpideak hartu beharko ditu kontuan. Eraikinekin ibai-ubidearekiko mugan duten gehienezko lerrokaduraren eta uren gehienezko mailaren kanpoaldeko lerroaren artean dagoen espazioan Lurrazaleko Urak Babesteko Zona bat ezartzean dautza irizpide hauek.

d4. Lurzoru urbanizagarrian, Lurrazaleko Urak Babesteko Zona espazio librean sistema/berdegunetzat hartu ahal izango da eta derrigorrezko eta doako lagapen bidez lortu ahal izango da, lurzoru urbanizagarriko aldameneko sektorearen kargura.

d5. Sare hidrografikoaren aldameneko **hiri-lurzoruko lurretan**, egun dagoen antolamenduari eusteko beharrezkoa denean, d3 idazatian lurzoru urbanizagarriko adierazitako babes-zerrenden zabalera murrizteko baimena eman dezake udal-plangintzak, betiere alde aurretik murrizketa hori eta lurzoruaren destinoa justifikatuta. Dena den, Uren Legean adierazitako herritarren erabilerarako zortasunak bere horretan utziko dira.

d6. **Udal-plangintzak**, Uren Legean eta berau garatzen duen araudian ezarritakoaren arabera, lurzoruaren erabilerak baldintzapean dituen **Lurrazaleko Urak Babesteko Zona** urbazterren alde bietan 100 metroko distantziaraino **zabal dezake** lurzoru urbanizagarrian eta urbanizaezinean, udalerriko ubideen eta ur-masen berariazko ezaugarrien arabera eta arrisku naturalari buruzko irizpideak eta Eusko Jaurlaritzaren «Uholdeen Prebentziorako Plan Integralaren» gomendioak kontuan hartuta.

d7. **EAeko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana idatziko da.**

d8. Oro har, EAeko lurrazaleko baliabide hidriko guztietarako, edozein ur-aprobetxamendu eman baino lehen, froga bidez ziurtatu beharko da gutxieneko emari ekologikoari eutsiko zaiola.

d9. **Debekatuta dago** itsasoan, herri-ubideetan, urtegiatan, ureztatze-erretetan edo lurpeko akuiferoetan urak poluitu eta herritarren osasunari edo aprobetxamenduei kalteak eragin diezazkiekeen konposizio kimiko edo fisikoa edota eduki bakteriologikoa duten urak **zuzenean** edo zeharbidez **isurtzea**. Isurkiak sor ditzakeen edozein jardueratarako lizentzia lortu ahal izateko, sare orokorrera zuzenean konektatzen direnak izan ezik, lurrazaleko, lurpeko edo itsasoko urak

ez poluitzeko moduko tratamendua justifikatu beharko da. Hondakin-uren tratamenduak ingurune hartzailearen autodepurazio-ahalmena errespetatu beharko du, emaitzazko uren kalitatea destinatzen direneko erabilerei exiji dakiekeen kalitate-arauen barruan egon dadin. Herribideen kasuan, kalitate hori beren legezko sailkapenak ezarritako mugetara egokituko da.”

“8.6.8.7. LURRAZALEKO UREN BABESA.

1. Definizioa

Antolamendu-kategoria hau EAEko ibai eta errekek eta hauen babes-zonak osatzen dute. Zona hau behin-betiko ezarriko du EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzekeo Lurraldearen Arloko Planak. LAP hau onartzen ez den artean, Lurralde Antolamendurako Batzordeak horretarako erabili ohi dituen babes-zerrendak erabiliko dira.

2. Irizpide orokorra

Zona hauetan jarduteko irizpidea uren kalitatearen iraunarazpena ahalbidetzean, ubideen eta urbazterren okupazioa edo aldakuntza saihestean eta arrisku naturalen ondoriozko kalteak minimizatzean datza.

3. Bultzatu beharreko jarduerak

Antolamendu-kategoria honetan kontserbazio-jarduerak, ingurugiroa hobetzeko jarduerak eta ingurunearen ezagutza hobetzera, herrien ur-hornidura bermatzera, kalitatea hobetzera eta arrisku naturalak minimizatzen zuzendutako azpiegitura hidraulikoak bultzatuko dira.

4. Jarduera onargarriak

Espreski debekatuta ez dauden beste jarduera guztiak, jolas-jarduera zabalak izan ezik, garapen-plangintzak arautuko ditu.

5. Jarduera debekatuak

Debekatuta daude nekazaritza-industriak, hondakindegia eta zaborteziak eta eraikuntza-mota guztiak.”

B) EAE-KO IBAIEN ETA ERREKEN ERTZAK ANTOLATZEKO LURRALDEAREN ARLOKO PLANA (Aurrelaburpena: Isurialde mediterraniarra-Araba-Bizkaia)

Arestian adierazi dugun bezalaxe, LAAek aurreikusi zuten LAP hau idaztea, “Lurrazaleko uren tratamendua” ataleko 8.5.2.D7. epigrafean:

“EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana idatziko da”.

LAP hau idazteko bi dokumentutan banatu da: isurialde kantauriarreko ibai eta errekei dagokiena, Bizkaia eta Gipuzkoa barne hartzen dituena; eta isurialde mediterraniarrari dagokiona, Araba eta Bizkaiko zati txiki bat barne hartzen dituena. Bi dokumentuek metodologia, egitura eta terminologia bera dute; horri esker, bidezkoztat jotzen bada, aurrerago erraz bategin ahal izango dira dokumentu bakar batean.

LAPean erabilitako metodologiak ibaibide guztiak ibaitarteka ikuspegi hirukoitzetik kategorizatzea hartzen du abiapuntutzat: ingurugiro-ikuspegia, hidraulikoa eta hirigintzari dagokiona. Horrela, erreka edo ibai jakin baten ubideko edozein puntutarako LAPetik eratortzen diren mugak edo betebeharrak ezagutzeko, ingurugiroari dagozkion mugak gehitu behar zaizkie muga hidraulikoei eta hirigintzakoei. Era berean, muga hauek zorrotzagoak edo zabalagoak izango dira, ibaitarte horri adierazitako disziplina bakoitzetik esleitzen zaion kategoriaren arabera. LAParen beraren hitzetan: *“LAP honen esparruko puntu bakoitzari aplikatu beharreko araudia osagai bakoitzaren arabera dagokion araudia batera aplikatzearen emaitzakoa izango da”.*

Hiru osagaietariko bakoitzaren arabera ezartzen diren kategoriak honako hauek dira:

1) Ingurugiro-osagaia:

- Lehenetsuneko interes naturalistikoko zonetako ertzak.
- Ondo kontserbatutako urbazterreko landaredia duten ertzak.
- Higadura- eta lerradura-arriskua edo/eta akuiferoen urrakortasuna dituzten zonetako ertzak.
- Berreskuratzeko premia duten ertzak.

2) Osagai hidraulikoa:

- 1 km²-tik gorako artoa.
- 10 km²-tik gorako artoa.
- 50 km²-tik gorako artoa.
- 100 km²-tik gorako artoa.
- 200 km²-tik gorako artoa.
- 400 km²-tik gorako artoa.
- 600 km²-tik gorako artoa.

3) Hirigintza-osagaia:

- Landa-eremuko ertzak.
- Hiriarteko komunikazioetarako azpiegiturek betetzen dituzten ertzak.
- Garatutako hiri-eremuetako ertzak.
- Hirigintza-garapen berriak egiteko potentziala duten ertzak.

Urtegiei dagokienez, LAParen aplikazio-esparrua zingiren inguruan dauden 200 metroko zabalerako lur-zerrendek osatzen dutela ezartzen da. Hala, memoriaren “5.1. Izaera orokorreko irizpideak eta proposamenak” atalean honako proposamen hauek ezartzen dira:

“Babes-eremu gisa definituko dugu gehienezko ohiko urtegi-mailari dagokion lerrotik abiatuta neurtutako 200 metroko banda perimetrala. Urtegi baten babes-eremuaren barruan egin nahi den edozein jarduketa-edo erabilpen-mota egin ahal izateko, dagokion plan berezian jasotako berariazko araudiari jarraitu beharko zaio.

Irizpide orokor gisa, ahaleginak egingo dira hornidura-urtegien drenaje-arroetan gauzatzen diren erabilera eta jarduerak higadura saihets dezaten eta uren poluzioa edo eutrofizazioa erraz ez dezaten.

Araudiaren C.3 kapituluan erabileren eta jardueren arautze bat proposatzen da.”

Proposamen hauek 2. liburukian, “Araudia”, zehazten dira. Liburuki honek “Hornidura-urtegiak eta ur-kaptazioak babesteari buruzko araudia” ezartzen du (C.3 epigrafea); honen arabera idatzi beharko da LAParen zehaztapenak garatuko dituen plan berezia:

“C.3 HORNIDURA-URTEGIAK ETA UR-KAPTAZIOAK BABESTEARI BURUZKO ARAUDIA

Babes-eremu gisa definituko dugu presaren goiko aldean eta bere isurialde-arroaren barruan duen gehienezko ohiko urtegi-mailari edo laku- eta aintzira-mailari dagokion lerrotik abiatuta neurtutako 200 metroko banda perimetrala. Aipatutako eremu horri buruzko plan berezi bat, LAP honen zehaztapenak zehatz garatuko dituen, idatzi beharko da. Urtegi baten babes-eremuaren barruan egin nahi den edozein jarduketa-edo erabilpen-mota egin ahal izateko, dagokion plan berezian jasotako berariazko araudiari jarraitu beharko zaio.

Hornidura-urtegi, laku eta aintziren ondoan dagoen lur urbanizagarri edo urbanizatzeko egokitzat jotakoan, udal planeamenduak babes-banda bat ezarriko du, gutxienez 50 metrokoa, urtegi, laku eta aintzirekiko mugan dauden eraikinen gehienezko lerrokadura-marraren eta uren gehienezko ohiko mailaren artean.

Urtegi bakoitzari dagokion plan bereziaren onarpenaren ordezkatzailerik gisa erabileren inguruko honako arautzea ezartzen da Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan zehaztutako erabileren sistematikari eta definizioari jarraiki.

a) Erabilera bultzatuak:

- Kontserbazioa.
- Ingurugiroaren hobekuntza.

b) Araudi honen E eta F kapituluetan eta C.4 epigrafean ezarritakoa betetzearen menpeko erabilera onargarriak:

- Jolas-jarduera zabalak eta trinkoak.
- Ehiza- eta arrantza-jarduerak.

- Nekazaritza.
- Negutegiak.
- Abeltzaintza.
- Basozaintza.
- Garraiobideak.
- Aireko lineak.
- Lurpeko lineak.
- Nekazaritza-jarduerari lotutako egoitza-erabilera isolatua.

c) Erabilera debekatuak:

- Nekazaritza-industriak.
 - Erauzketa-jarduerak.
 - Zerbitzu ez-linealen instalazio teknikoak, A motakoak, urtegiaren funtzionaltasunarekin zerikusia dutenak izan ezik.
 - Zerbitzu ez-linealen instalazio teknikoak, B motakoak, urtegiaren funtzionaltasunarekin zerikusia dutenak izan ezik.
 - Herri-onurako eta gizarte-intereseko eraikinak, urtegiaren funtzionaltasunarekin zerikusia dutenak izan ezik.
 - Hondakin solidoen zabortegeak eta hondakindegia.
 - Egoitza-erabilera isolatua.
 - Instalazio arriskutsuak.
- (...)"

Izaera orokorrean, LAPak ezartzen du hirigintzaren ikuspegitik "landa-eremuan" kategorizatuta dauden ibaien ertzetan, eraikuntzak derrigorrez errespetatu beharko duela 50 metroko erretiro-lerroa, ohiko ur-goraldi handienari dagokion herri-ubidearen mugabanaketa-marratik neurtuta. Parametro hauze ezartzen zaie urtegi guztien inguruetan egin beharreko eraikuntzei; beraz, Zadorra sistemako urtegiak ere hartzen ditu.

Euskal Herriko Lurraldearen Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legeko 17-4. artikulua ezartzen duenaren arabera, LAP nagusitu egiten zaio hirigintza-antolamenduari eta, horrenbestez, oinarrizko udal-plangintza, hots, plan orokorrak eta arau subsidiarioak, LAPak xedatutakora egokitu beharko dira hau indarrean jartzen denetik aurrera.

LAAetan xedatutakoa (8.4.2.D-d2) betez, LAPak adierazten du udal-plangintzak "Lurrazaleko urak babesteko lurzoru urbanizaezina" kategoria ezarri beharko duela lurzoru urbanizaezineko ubideen ertzetan. "5.5.2. Ertzak beren hirigintza-osagaiaren arabera antolatzeke irizpideak" atalean adierazten du, "landa-esparruko ertz" gisa kategorizatutako urtegietakozonetan (Zadorraren urtegiak inguratzen dituen koroa ia osoa hartzen du) edozein eraikuntza edo lur-mugimendu egiteko ubidetik urtegiaren gehieneko mailak markatzen duen 50 metroko gutxieneko erretiroa errespetatu beharko dela.

Araudiko G.2. atalean izaera loteslea duten LAParen zehaztapenak eta izaera orientatzailea dutenak bereizten dira. Izan ere, "udal-plangintzak bildu behar dituen

irizpideen” artean, izaera loteslekoa beraz, arestian transkribatutako “*Hornidura-urtegiak eta ur-kaptazioak babesteari buruzko araudia*” adierazten da (C.3. atala).

LAPak, halaber, uholdeen prebentziorako har litezkeen neurriak aztertzen ditu, Eusko Jaurlaritzak 1990ean landutako Uholdeen Prebentziorako Plan Integralaren datuak eta 1995ean idatzitako Herrizaingo Sailaren “EAEko uholdeen arriskuaren aurreko Larrialdietarako Plan Bereziaren Multzo Teknikoa” izeneko dokumentua abiapuntutzat hartuta. Bertan adierazten denez, urtegien arroan antzemandako arrisku bakarra Zadorra ibaiaren zona batzuei dagokiena dela, baina hauetako gehienak beheko eta erdiiko ibilguan daude.

Bitxikeria gisa, adierazi beharra dago LAPak urtegiaren definizio terminologikoa ezartzen duela, ondoko hitzetan:

“Presaren baten bidez haran baten ahoa ixteko euste artifiziala (15 metro baino gehiagoko altuera edo 500.000 m³ baino gehiagoko eustebolumena)”.

Isurialde kantauriarreko LAPa abenduaren 415/1998 Dekretuaren bidez (EHAAren 33. alea, 1999ko otsailaren 18koa) onartu da behin-betiko.

Isurialde mediterraniarreko LAPari dagokionez, jada gainditu du aurrelaburpen-fasea eta 1999ko lehen seihilekoan behin-betiko onartuko dutela espero da.

Bi dokumentuak ia berdina dira alderdi arau-emaileari dagokionez, urbanizazioek eta eraikuntzek errespetatu behar duten erretiro-lerroari buruzkoan izan ezik, 2 eta 4 metrokoa baita hurrenez hurren isurialde kantauriarrean, eta 5 metrokoa bi kasuetarako isurialde mediterraniarrean.

Azpimarratzeko modukoa da, halaber, urtegien aldameneko zonetan erabilerak modu zabalagoan onartzen direla isurialde mediterraniarrean kantauriarrean baino. Izan ere, Isurialde kantauriarrekoak goi-ibarreko urtegiak direnez gero, erabilerak, hauen artean aisia-erabilera, modu murriztaileagoan kontuan hartzen dira.

C) ZONA HEZEETAKO LURRALDEAREN ARLOKO PLANA

LAAek ingurune fisikoa (8. kapitulua) eta ura (14. kapitulua) antolatu eta babesteko premia planteatzen dute, baliabide hidrikoen poluzioa prebenitzen eta sistema urtarrak ekosistemak direla kontuan hartuta babestu eta berreskuratzen ahaleginduz.

LAAek diseinatutako markoa Lurraldearen Zatik Planen eta Lurraldearen Arloko Planen bitartez garatu behar da. Plan hauen helburua, aztergai dugunari dagokionez, ingurune fisikoaren azterketa zehatzagoa eta ezagutza hobea lortzea eta sistema naturalak babestu eta berreskuratzeko neurriak ezartzea da.

Zona Hezeetako Lurraldearen Arloko Planak leku hezeetako problematikari heltzen dio, bai kostaldekoenari (itsasadarrak, padurak) bai barnealdekoenari (lakuak, aintzirak,

zohikaztegiak, putzuak, ureztatze-urmaelak, urtegiak...). EAEn dauden ekosistema garrantzitsu eta hauskorrenetako bat babestu eta leheneratzea du helburu.

Lurraldearen Arloko Planaren Aurrelaburpenak, izan ere horixe baita dokumentua une honetan dagoen egoera, barnealdeko zona hezeen inbentario bat dauka III. eranskinen eta bertan barne hartuta daude Albiña (EA-10), Uribarri-Ganboa (EA-6) eta Urrunagako (EA-11) urtegiak.

Antolamendu-proposamenen garapen-maila zehazteko, LAPak hiru multzotan sailkatzen ditu zona hezeak, garrantzi handikoenetik txikienera, eta Zadorra sistemako urtegiak III. multzoan kokatzen ditu. Horrez gain, zazpi antolamendu-kategoria ezartzen ditu udal-plangintzan aplikatu beharrekoak, inbentariatuta dauden eta beste inolako antolamendu xehaturi loturik ez dauden barnealdeko zona hezeen tipologietarako, Zadorra sistemako urtegiak kasu. LAAen dokumentutik aterata dauden kategoria hauetako bakoitzari erabilera eta jarduera baimenduen berriazko arautzea dagokio. Hona hemen zazpi antolamendu-kategoriak:

1. Babes berezia.
2. Ingurugiroaren hobekuntza.
3. Berreskuratu beharreko eremu degradatuak.
4. Lurrazaleko uren babesa.
5. Nekazaritza eta abeltzaintzako zona eta landazabala.
6. Basoa.
7. Baso babeslea.

Kategoria hauek zona hezeetan 200 metroko lur-zerrenda batean ("inguruko zerrenda") aplikatzen dira, gehieneko ohiko ur-goraldietan urek hartzen duten mailarik handienetik neurtuta.

Urtegiei esleitzen zaien kategoria laugarrena da, hots, "*Lurrazaleko uren babesa*".

LAParen Aurrelaburpenak diseinatutako antolamendu-marko orokorra erabilera eta jardueren zerrenda sistematizatu batekin osatzen da: ingurugiroaren babesa, aisia eta astialdia, lehen sektoreko baliabideen ustiapena, azpiegiturak eta, azkenik, hirigintza-hazkundera eta eraikuntza-jarduketara isolatuak. Erabilera hauez gain, lurraldearen antolamendurako dokumentuak aurreko sailkapenei gainjartzen zaizkien beste hainbat baldintzaren ezartzen ditu: urpean gera daitezkeen eremuak, akuiferoak poluitzeko arriskua duten eremuak eta espazio natural babestuak.

Lurraldearen Arloko Plana indarrean jartzen denean, eraginpean dauden udalek epe jakin bat izango dute beren hiri-plangintzako zehaztapenak Planak leku heze konkretu bakoitzerako ezartzen duen araudi orokorrera egokitzeko.

LAPak jarduteko proposamen orokor batzuk biltzen ditu, baina iradokizunak oso konkretuak ez direnez gero, kasu bakoitzean zehaztu eta egokitu egin behar dira. Proposamen hauen artean ondokoak azpimarra daitezke:

- Isurketen baldintzatu eta kontrolatzea, batez ere hiri-eremu eta industrialdeetan.

- Nekazaritzako tekniken eta aplikatu beharreko produktu fitosanitarioen kontrola.
- Higaduraren kontrola.
- Lehengoratzeko morfologikoa, landareztatzea eta urbazterrak hobetzea.
- Aisia- eta jolas-jarduerak hartzeko ahalmena zehaztea; behar izanez gero, lurralde-mugak eta muga koantitatiboak ezar daitezke jende ugari biltzeari dagokionez.
- Zona hezeak “zona sentikorren” artean bare hartzea, ingurugiroaren gaineko eraginaren ebaluazioari buruzko araudia aplikatzeko.
- Jabeen diru-laguntzak eta pizgarriak ematea eragin ekologikoa duten jarduerak ezabatzeke.

LAParen aurrelaburpenak ez du Zadorra sistemako urtegiei buruzko erreferentzia zehatzik biltzen, inbentarioan jaso eta antolamendu-kategoria bat eman baino ez du egiten, lurrazaleko urak babesteko, lehen adierazi dugun bezala. Hala eta guztiz ere, aipatzekoa da LAPak egiten duen aipamena: *“azpimarratzekoa da Mendixurko atzealdea, Uribarri-Ganboako urtegian (EA 6), izan ere bere potentzialtasun biologiko handia dela-eta fauna migratzaile eta negutarra hartzeko habitat arras egokitzen jostu baitaiteke”*

D) UDAL-PLANGINTZA

Zadorra sistemako urtegien hondoa, Albiñako urtegiarena barne, sei udalerriren jabetzakoa da: Aramaio, Arratzu-Ubarrundia, Barrundia, Burgelu, Legutio eta Zigoitia. Guztiek onartuta dituzte beren udalerriaren hirigintza-antolamendua ezartzen duten Plangintzako Arau Subsidiarioak. Antolamendu horretan, hain zuzen, urtegiak inguratzen dituzten lurzorua barne hartuta daude, jarraiak aztertu ahal izango dugun bezala.

1 - Uribarri-Ganboako urtegia Arratzu-Ubarrundia, Barrundia eta Burgeluko udalerrien artean kokatuta dago. Udal hauek beren Plangintzako Arau Subsidiarioetan jasota daukate urtegien inguruko lurretan gauza daitezkeen erabilera eta jardueren buruzko arautze edo erregulazio partikularizatua. Urtegien inguruko lur horiek kokatzerakoan, Uribarri-Ganboako urtegiaren ubidearen inguruko 200 metroko zabalerako lur-korua batek osatuko dituela adierazten dute.

Erabileren arautzea antzeko samarra da hiru udalerrietan. Zehazki, **Barrundiako eta Burgeluko Arau Subsidiarioek** eremukako banaketa berbera ezarrita dute Hirigintza Ordenantzako 201. eta 199. artikuluen bidez hurrenez hurren, eta urtegiaren ingurua “Ibaibideak eta ur-masak babesteko zona” gisa sailkatzen dute.

Zona horretako erabilera baimendu aipagarrienak honako hauek dira:

“A - Eraikuntzaz bestelako erabilerak eta jarduerak.

- 1. Zonan baimendutakoak.
- Espazioaren beraren babesarekin kontraesanean ez dauden nekazaritza eta abeltzaintzakoak.
- Basogintzakoak (kontserbazio, hobekuntza eta birsorkuntzakoak besterik ez).

- Urbazterreko formazioen lehengoratzea eta hobekuntza.
- Jolas-jarduerak eta aisia pasibokoak.
- Bideak lurzoru urbanizagarrian, betiere honako babes-zerrenda honi eusten bazaio:
 - ibaietan: 30 m
 - erreketan: 20 m
 - laku, aintzira eta urtegieta: 100 m
- Debekatuta daude negutegiko laborantzak.

B- Eraikuntza-erabilerak eta -jarduerak.

- Arrain-haztegiak eta karramarro-haztegiak.
- Nekazaritzako lanabesak gordetzeko bakarrik erabiltzen diren biltegiak.
- Herri-onurako eta gizarte-intereseko eraikinak, instalazioak eta azpiegiturak, ingurune urtarrari loturik daudelako aukeratutako lurrean kokatu behar direnak.
- Deskribatutako eraikuntza-erabilerak guztiak espazioa bera babesteko helburuekin bateragarriak direnean baino ez direla baimenduko ulertuko da. Debekatuta daude negutegiak eta nekazaritza-jarduerari lotuta dauden biltegi ez-komertzialak.
- Orokorrean, arrain-haztegiatarako izan ezik, “ubide edo ur-masetarako gutxienezko tartea” izendatutako hirigintza-parametroa honela ezarriko da:
 - Kontsumorako erabiltzen ez diren ibaibide, urmael eta putzuetara 50 m.
 - Hornitzeko putzu eta iturbegietara 200 m.”

Burgeluko Arau Subsidiarioetan, halaber, 12. zona izenekoa sortzen da: “Zadorrako urtegia babesteko zona”. Atal honetako araudia iragankorra da, Zadorrako Urtegia Babestu eta Erabiltzeko Plan Berezia onartu arteko indarra du eta une horretatik aurrera Plan hau izango da aplikatzekoa (200. artikulua). Aurrerago adieraziko dugun bezalaxe, Plan Berezi hau Arabako Foru Aldundiak idatzi zuen 1994. urtean, baina izapideak ez dira egin. Aipatzekoa da Garaio parkeko ekipamenduak finkatu egiten dituela, 2.000 m²-ko gehieneko sabai eraikia seinatuz.

Bestalde, **Arratzu-Ubarrundiako Arau Subsidiarioek** “Hidrologia- eta baso-mailako babes-zona” bat sortzen dute eta “Babes hidrologikorako zona” bat gainjartzen diote Zadorrako urtegiaren inguruko 200 metroko koroan (223. art.). Babes hidrologikorako zona hau 232. artikuluan arautzen da. Baimendutako erabilerak uren erregulazioari lotutakoak eta egun daudenak direla adierazten du eta beste guztiak debekatu egiten ditu. Azpimarratu beharreko berezitasun gisa, 232. artikulua 6. atalak erabat debekatzen du esparru horretan lursailak zatitzea.

Osagarri gisa, Hirigintza Araudiko 225. artikulua, urtegiaren ibilguaren inguru osoa hartzen duen hidrologia- eta baso-mailako babes-zona arautzen duenean, “Club Náutico Aldayeta” elkartearen eraikuntzak onartzen direla ezartzen du, baina honako hau dio: “lurzoru honetan dauden gainerako eraikinak eta instalazioak antolamenduz kanpokotzat aitortzen dira”.

Zuazako uhartea “Eskuhartze bereziko zonetan” barne hartuta dago eta araudiak ezartzen duenez bertan edozer egiteko plan berezi bat idatzi beharko da eta, gainera: “*egungo erabilera bakarrik onartzen da (haurrentzako udalekuak), eraikita dagoen azalerari eutsiz, azalera osoaren %20 gainditzen ez duten zabalkuntzak egiteko aukerarekin*”.

2 - Urrunagako urtegia Legutio eta Zigoitiko udalerrien artean kokatuta dago.

Legutioko Arau Subsidiarioek “Ibaibideak eta ur-masak babesteko zona” gisa kalifikatzen dute urtegiaren ingurua. Zona honek ibilguaren aldameneko lurak hartzen ditu eta 200 metroko gutxieneko zabalera dauka (81. art.).

Jarraian, 82. artikulua adierazten du esparru horretan baimentzen diren eraikuntza edo instalazioetan sostengatutako erabilera eta jarduera bakarrak “uren erregulazioari lotutakoak” direla. Halaber, beste erabilera batzuk onartzen ditu, aldez aurretik plan berezi bat idazten bada: aireko azpiegituren erabilera (linea elektrikoak) eta espazio naturalak, paisajea, ingurune fisikoa eta landa-ingurunea eta hauen komunikabideak babestu, katalogatu, kontserbatu eta hobetzeko jarduerak.

Zigoitiko Arau Subsidiarioei dagokienez, hauek ere kalifikazio bera jasotzen dute: “Ibaibideak eta ur-masak babesteko zona - 7. zona”. Honen kokalekua Arau Subsidiarioen kartografian adierazitako zerrendari dagokio eta urtegiaren ubidearen inguruko 200 metroko koroa batek osatzen du gutxi gorabehera.

Hala ere, zona horretan baimenduta dauden erabilerak eta jarduerak adierazterakoan irizpide zabalago eta permisiboagoa hartzen dute. Gauzak horrela, hirigintza-ordenantzako 145. artikulua ezartzen duen eraikuntzako eta eraikuntzaz bestelako erabilera eta jarduera baimenduen zerrenda arestian adierazi dugun Barrundia eta Burgeluko udalek ezarritakoaren oso antzekoa da.

3 - Azkenik, **Albiñako urtegia** oso-osorik dago Aramaioko udalerriaren barruan. **Aramaioko Arau Subsidiarioek**, 118. artikuluan, zona naturalak eta nekazaritzakoak sailkatzen dituztenean, urbazterreko 300 metroko perimetroa eraginpean hartzen duen “Babes hidrologikorako zona” bat ezartzen dute.

Hirigintza-ordenantzako 119. artikulua baimentzen dituen erabilera eta jarduera bakarrak ingurune urtarrari loturik egon behar duten herri-onurakoak edo gizarte-interesekoak dira: ur-errotak eta uretako ustiapenak. Hurrengo artikuluan eraikuntza-jarduera horiek errespetatu behar dituzten hirigintza-parametroak arautzen dira.

Ikus daitekeenez, nolabaiteko homogeneousuna antzeman daiteke urtegien urbazterretako udalerrri guztietako Arau Subsidiarioetan. Izan ere, guztiek sailkatzen dute lurzoru hori urbanizaezin gisa eta, bestalde, ubideen hurbileko inguruetan baimenduta dauden erabilera eta jarduerak modu beretsuan xehatzen dituzte. Arau Subsidiario guztietan ezartzen da 200 metroko zabalera babes-zona urtegiaren ibilguaren inguruan, Albiñako urtegian izan ezik, 300 metrokoa baita. Gainera, eraikuntzako eta eraikuntzaz

bestelako erabilera eta jardueretarako ezartzen den arautze edo erregulazioa murriztailea da, nahiz eta ordenantza batzuek beste batzuek baino muga zabalagoak izan.

Azpitarratzekoak dira, beren zerizan babeslea dela-eta, Arratzu-Ubarrundiako Arau Subsidiarioak Uribarri-Ganboan eta Legutiokoak Urrunagan.

Arau Subsidiario batzuetan abeltzaintza estentsiboa eta nekazaritza bezalako erabilerak, aisia- eta jolas-jarduerak, arrain-haztegiak edo nekazaritzako lanabesak gordetzeko biltegiak onartzeko joera antzeman daiteke. Erabilera eta jarduera hauek, zein baldintzatan burutzen diren, kontraesanean egon daitezke, kasu batzuetan bestetan baino nabarmenago, urtegian bildutako uren kalitatea babesteko helburuarekin.

Aipatu beharra dago uretako ustiapenak, arrain-haztegiak eta karramarro-haztegiak ez direla oso erabilera egokiak biztanleak urez hornitzeko erabiltzen diren urtegiatan, ustiapen hauek sortzen duten karga organiko handiaren ondorioz urei gaineratzen zaien elementu poluitzailea izan baitaitezke. Gaur egun urtegiatan eta arroan uretako ustiapenik ez dagoenez gero, komenigarriagozat jotzen da Arau Subsidiarioek baimendutako erabilera gisa ezabatzea.

E) ZADORRAKO URTEGIA ETA SANTA ENGRAZIAKO URTEGIA BABESTU ETA ERABILTZEKO PLAN BEREZIEN PROIEKTUAK.

Arabako Foru Aldundiak 1994az geroztik ditu idatzita Urtegiak Babestu eta Erabiltzeko bi Plan Berezi: Zadorra edo Uribarri-Ganboakoa bata eta Santa Engrazia edo Urrunagakoa bestea. Hala eta guztiz ere, 1994ko urtarrileko data duten eta disziplina anitzeko talde berak idatzi zituen bi dokumentu hauen izapideak ez zituzten inoiz egin eta, horrenbestez, ez dute inolako administrazio-eraginkortasunik. Dena dela, Plan Berezi hauek hiru helburu bete nahi zituzten batik bat, honako hauek:

- *“Lehentasunez gizakiak urez hornitzekoak diren urtegian bildutako uren kalitatea babestu eta hobetzea.*
- *Urak hartu eta erregulatzen dituen elementua bera, hots, urtegia eta bere zuzeneko eta zeharkako isurialde-arroa, beren baliabide eta elementuekin, babestu, katalogatu, kontserbatu eta hobetzea.*
- *Jada sartuta eta finkatuta, edo oraindik sartu gabe dauden giza jarduerak antolatzea (mugatzea, baztertzea, bultzatzea), betiere hauen eta aurreko helburuen arteko bateragarritasuna ekologikoki, ekonomikoki eta sozialki onartzeko modukoa bada”.*

Bere antolamendu-esparruari dagokionez, honakoa adierazten du memorian: “Azterlanak uren kalitatea izan balu helburu nagusi, isurialde-arro osoa aztergai izatea zatekeen logikoa...”. Hala eta guztiz ere, “zuzeneko isurialde-arroak okupatzen duena aukeratu da espazio-esparrutzat; hau da, Urtegia zuzenean hornitzen duten urak edo erreka txikien bitartez hornitzen dutenak biltzen dituen” urtegiratzen den ibaia bera kanpo utziz.

Kudeaketari dagokionez, bi Plan Berezien Memorieta 8-2. atalean, zeren biek idazkera bera baitute, organo kudeatzaile bat sortzea proposatzen zen:

“Urtegian bildutako baliabide hidraulikoaren zein esparruaren balio natural handiaren garrantzia eta zonifikazioan onartutako erabilera eta jardueren garapena antolatu eta arautzeko premia kontuan hartuta, ezin bestekoa da Organo Kudeatzaile bat sortzea, Europako beste herrialde batzuetan izandako esperientzien ildotik Plan honen zehaztapenak eta bertatik eratortzen diren erabilera eta jarduerak koordinatu eta kudeatzeko.

Organo honetan ordezkaturik egon behar lukete, alde batetik, administrazio- eta hirigintza-organismoak (Arabako Foru Aldundia, Arratzu-Ubarrundiako Udala, Barrundiako Udala eta Burgeluko Udala, Ebroko Konfederazio Hidrografikoa) eta, bestetik, enpresa emakidadunak (AMVISA, Bilbo Handiko Ur Partzuergoa eta IBERDROLA). Besteak beste, honako aginpide hauek hartu beharko dituzte beren gain: urtegian bildutako urak erregulatzea, jarduera nautikoak erregulatu edo arautzea, basogintza-jarduera gainbegiratzea, eskuhartze bereziak sustatzea eta urbanizazio-, hirigintza- eta produkzio-ekintzak gainbegiratzea”.

Hirigintza Arauei dagokienez (Plan Berezien 3. dokumentua), erabilera eta jarduerak murriztu eta mugatzeko izaera dute bereizgarri. Jarraian adierazitako zehaztapenak ditugu horren erakuskari:

- Urak babesteko 200 metroko zerrenda sortzen da urtegiatarako eta 30 metrokoa ibaibideetarako (14. art.).
- Ezinezkoa dela frogatzen denean izan ezik, hiriko hondakin-urak urtegiarenaz bestelako arro batera isuri behar dira (16. art.).
- Bere esparruan debekatuta dago pestizida fitosanitarioak eta/edo ongari kimikoak erabiltzea dakarren edozein nekazaritza-jarduera (17. art.).

F) URIBARRI-GANBOAKO URTEGIAREN ERTZAK EKOLOGIKOKI EGOKITZEKO PLAN BEREZIA.

Dokumentu labur hau Arabako Foru Aldundiak landu du eta, bere izenak adierazten duen bezalaxe, Uribarri-Ganboako urtegiari bakarrik dagokio. Hauxe da bere helburua: *“Uribarri-Ganboako urtegian bide perimetral bat ezartzea, jolas- eta kultura-ibilbide gisa eta ur-laminatik hurbil dagoen urbazterra kontrolatu eta zaintzeko jardueren lagungarri gisa erabili ahal izango dena, poluzio zehaztugabea mugatu, uren mailak dituen gorabeheren ondorio izan litezkeen higadura-prozesuak zuzendu eta eremu degradatuak beren onera ekarri ahal izateko”.*

Urtegiaren perimetroaren inguruan 2 metroko sekzioko oinezkoentzako bide bat eraiki nahi da, baita aldameneko ezpondak berrezarri eta horren beharra duten eremu higatuak berriztatu ere.

Elementu hauen eraikuntza oso baliagarria izango da beste erabilera erasokorrago batzuk urtegiaren ertzetatik kanporatzeko eta oztopo gisakoa izango da poluzio zehaztugabea murrizteko. Horretarako, egungo bideak eta pistak hartzen ditu sostengu eta pasealeku gisako 30 km bide berriren eraikuntzarekin osatuko da.

Trazadurari dagokionez, bi ibilbide planteatzen dira, 29 km-koa bata eta 12 km-koa bestea, begizta itxurakoak, Zadorra ibaiak osatzen duen oztopo fisikoak bereizten dituenak. Urtegiaren gehieneko maila normalari dagokion eta urtegiaren ubide gisa herri-jabari hidraulikoaren eraginpean dagoen espazioa mugatzen duen 546,5 metroko kotaren azpian eratzea aurreikusten da.

Obra hau Arabako Foru Aldundiaren kargura burutuko da eta aurrekontua 120 milioi pezeta ingurukoa izango dela kalkulatu da.

Hirigintza, Arkitektura eta Ingurugiroko diputatuaren urriaren 13ko 695/1998 Foru Aginduaren bidez, administrazio-izapideak egiten hasi dira, Plan Bereziaren espedienteari hasierako onarpena eman zaio (ALHAOren 124. alea, urriaren 30ekoa) eta jendaurrean jarri da hilabeteko epean.

Adierazi dugun bezala, hirigintza-dokumentu labur eta xumea da, memoriak, bost artikuluko hirigintza-araudiak, ekonomia- eta finantza-azterlanak eta planoek osatzen dutena.

Iruzkin gisa-edo, adierazi beharra dago oinezkoentzako jolas-ibilbide hau eraikitzen denean, orain arte nekez hurbiltzeko modukoak ziren eta horrexegatik kontserbazio-egoera onean zeuden urtegiako inguru askotara jende ugari heldu ahal izango dela.

5.2. Neurri hidraulikoak: Ebro ibaiaren plan hidrologikoa

Uren 29/1985 Legeak, abuztuaren 2koak, plangintza hidrologikoaren teknika ezartzen du baliabide hidrikoak hobekien antolatzeke metodo apropos gisa.

Plangintza hau Plan Hidrologiko Nazionalaren eta Arroetako Plan Hidrologikoen bitartez garatu behar da. Arroko erakundeek eta plan hidrologikoen lurralde-esparruak definitzen dituen maiatzaren 8ko 650/1987 Errege Dekretuko 2. artikulua ezartzen duenez, Ebroren Arroko Plan Hidrologikoa bakarria izango da eta zuzenean edo zeharbidez baliabideak Ebro ibaira isurtzen dituzten zona, azpizona eta eremu guztiak bilduko ditu.

Hori dela-eta, Zadorra ibaiaren arroa Ebroren Arroko Plan Hidrologikoaren barruan jasota dago. Era berean, sistema hidraulikoak ustiatzearen ondorioetarako, Plan Hidrologikoak 17 Ustiapen Batzordetan banatzen du Ebroren arroa. Batzar hauetako bakoitzean, elkarrizkeria eragin diezaioketen aprobetxamenduak dituzten azpiarroak edo azpiarroen zatiak sartuta daude. Zadorraren arroari, Baiaren eta Inglaresen arroekin batera, guztiak Arabako lurraldean, 17. Ustiapen Batzordea dagokio.

“Hiru ibai hauen arroak dira Ustiapen Batzorde honetako garrantzitsuenak. Arrorako kontsumo-aprobetxamendurik garrantzitsuena

Zadorra-Arratia ur-eramateari dagokiona da, aprobetxamendu hidroelektrikorako eta Bilbo Handiaren hiri- eta industria-hornidurarako erabiltzen dena”.

Uraren Administrazio Publikoari eta Plangintza Hidrologikoari buruzko Araudiko (927/1988 Errege Dekretua, uztailearen 29koa) 73-4. artikuluan xedatutakoaren arabera, baliabideak ustiatzeko sistema bakoitza Plana lantzerakoan dagoen egoera abiapuntuko erreferentziatzat izango duen denbora-horizonte baterako izango da. Adierazitako aginduak gaineratzen duenez, ustiapen-sistemek bi denbora-horizonte izango dituzte erreferentziatzat:

“Bata 10 urtekoa: bertan, aurreikus daitezkeen eskariak asetzea kontuan hartuko da.

Bestea 20 urtekoa: bertan, erabilera desberdinei dagozkien eskariak zabaltzeko aukerak baloratu edo kalkulatu dira”.

Ildo honetan, Ebroren Arroko Plan Hidrologikoak hainbat jarduera planteatzen ditu 67 eta 84. artikuluetan Zadorraren azpiarroan 10 eta 20 urteko denbora-horizonte horietan burutzeko:

“67. art. 10 urterako esleipena 17. Ustiapen Batzordean: Baia, Zadorra eta Inglaresen arroak.

1. 10 urteko horizontea amaitzen denean erabilgarri izango diren baliabideak gaur egun erregulatutakoak gehi honako jarduera hauetatik eratorritakoak izango dira:

- Uribarri eta Urrunagako presak handitzea.*
- Zadorraren urtegi-sisteman Zaia ibaia erregulatzea. Baia ibaiaren goi-ibarra erregulatzea, urtegia eginez eta lurpeko urak aprobetxatuz.*
- Gaztela eta Leon eta Euskal Autonomia Erkidegoetan urtegi txikiak eta erregulazio-urmaelak eraikitzea ureztatzeko.*
- Subilana-Langarako eta Kantauriko mendizerrako akuiferoak ustiatzea.*

2. Uribarri eta Urrunagako presak handitzeak ez du, izatez, zuzenean erabil daitezkeen baliabideen gehikuntzarik ekarriko, baina zeharka hobetu egingo ditu hornidura-bermeak, ur-boladak laminatzeko gordelekua edukitzeko aukera emango baitu.

3. Zadorraren urtegi-sisteman Zaia ibaia erregulatuz lortutako baliabideak Ustiapen Batzordearen hiri-horniduretarako gordeko dira, batez ere Gasteizko eskualdeko horniduretarako, eta Ustiapen Batzordearen beste industria-erabilera batzuetarako ere gordeko da.

4. Baia ibaia goi-ibarrean urtegia eginez eta lurpeko urak ustiatuz erregulatzetik lortutako baliabideak arro barruko aprobetxamen-

duetarako, gutxieneko emari ekologikoetarako eta Gasteizko hiri-hornidurarako gordeko dira.

Gaztela eta Leon eta Euskal Autonomia Erkidegoek planteatutako erregulazio txikiak bertako ureztatze-eskariak asetzeko erabiliko dira.

Subilana-Langarako, Trebiñoko eta Kantauriko mendizerrako akuiferoak ustiatuz sortzen diren baliabideak lehentasunez bertako horniduretarako eta ureztatze-sail tradizionalak finkatzeko erabiliko dira.

Ekialdeko Lautadan planteatutako erregulazioak eskaintzen dituen baliabideak eskualdeko bertako eskariak asetzeko erabiliko dira.

Ustiapen Batzordearen barruan Ebroren arrotik Iparraldeko arrora gaur egun eramaten den urteko ur-bolumena ez da handituko, ezohiko zirkunstantzia denboraz edo geografikoki puntualak biltzen direnean izan ezik.

84. art. 20 urterako esleipena 17. Ustiapen Batzordean: Baia, Zadorra eta Inglaresen arroak.

Baliabideen erabilgarritasuna ez da aldatuko aurreko horizonteari dagokionetik hona.”

Planak Zadorrako urtegiatarako aurreikusten duen jarduerarik garrantzitsuena urtegiatarako presak ibaiadarren ezohiko ur-boladak kontrolatu ahal izateko handitzea da. Egungo fabrika-obrak Uribarri-Ganboako presaren kasuan 1,30 metro eta Urrunagakoan 0,75 metro handitzea planteatzen du. Obra hauen aurrekontua 2.481 milioi pezetatan baloratzen da. Jarduera honek ez luke zuzenean erabil daitezkeen baliabideen inolako gehikuntzarik ekarriko; bere helburua ur-boladak laminatzeko erreserba-bolumena lortzea litzateke.

Plan Hidrologikoaren idazkeraren literaltasunak besterik adierazten duela badirudi ere, Ebroko Konfederazio Hidrologikoak eta Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herrilan Sailak beste interpretazio bat egiten dute proposamen honi buruz, are dokumentu ofizialetan ere. Hauen arabera, handitzeak presen uhateetan baino ez du izango eragina, hauek presaren hormaren koronazio-kotaren azpiko kota batean daude-eta. Beraz, uhateak presetako hormen koronazio-altueraraino handitzea izango litzateke obraren xedea.

Bestalde, Plan Hidrologikoak edukiera txikiko urmaelak sortzea proposatzen du, alde batetik neguko emariak erregulatzeko eta, batez ere, “*nekazaritza-ustiapenen produktibitatea hobetzeko, batez ere neguko zuhain eta zerealen sostengu gisako ureztatzearen bitartez*”. Dena dela, Arabako Foru Aldundiak sustatu beharko lukeen geroztiko azterlan batera igortzen da proposamen hori zehazteko eginkizuna.

“Arabako hornidurak hobetzeko” jardueri dagokienez, azpimarratzekoa da Gasteizko eta inguruko udalerrietako hornidura hiru baliabide hidriko berri erabiliz hobetzeko proposamena:

1. Subilanako akuiferoa ustiatzea.
2. Gasteizko mendietako lurpeko urak eta isurtzen direnak ustiatzea.
3. Baia ibai erregulatzea, horretarako 15 hm³ inguruko urtegi bat eraikiz goi-ibarrean, Sarriatik ibaian gora.

Hondakin-uren saneamendu eta arazketari dagokionez, “hondakin-uren isurketak hiriko hondakin-uren arazketari buruzko Europako Batasuneko araudira egokitzea” ezartzen du helburutzat Plan Hidrologikoak. Horretarako, ondoko jarduera proposatzen du, besteak beste:

“Saneamendu-azpiegiturak hobetzea Zadorra ibaiaren arroan, Krispiñanako hondakin-uren araztegia (HUA), Aguraingo kolektoreak eta HUA birmoldatu eta hobetuz eta Oka-Iruñako instalazioak hobetuz”.

Ebro Ibaiaren Plan Hidrologikoa, erkidegoen arteko gainerako plan hidrologikoak bezalaxe, duela gutxi onartu dute uztailaren 24ko 1664/1998 Errege Dekretuaren bidez (BOEren 191. alea, abuztuaren 11koa), Arroko Uraren Kontseiluak 1996ko otsailaren 15ean eta Uraren Kontseilu Nazionalak 1998ko apirilaren 27ko bilkuran aldeko txostena eman ondoren.

1664/1998 Errege Dekretuko 2. artikulua adierazten du Plan Hidrologikoak aurreikusitako 10 eta 20 urteko denbora-horizonteak Errege Dekretu hau BOEn argitaratzen diren egunetik aurrera zenbatzen hasiko direla. Halaber, aditzera ematearen ondorioetarako, edozein pertsonak kontsultatu eta kopiak lortzeko aukera izan dezan aurreikusten da. Horrez gain, araudia BOEn argitaratuko da eta Ingurugiro Ministerioak argitalpen ofiziala plazaratuko du (4. artikulua eta azken xedapen bakarra).

Adierazi beharra dago, halaber, Plan Hidrologikoetan aurreikusita dauden azpiegitura hidraulikoak eraiki baino lehen “beren bideragarritasun tekniko, ekonomiko eta ingurugirokoari buruzko analisia” egin beharko dela eta betiere “ingurugiroaren gaineko eraginaren ebaluazioari buruzko indarreko araudiaren, aurrekontu-aurreikuspenen eta dagozkien arloko planen” menpe egongo direla (2-e artikulua).

5.3. Zaintza analitikoa. Uraren kalitatearen kontrola

Uren kalitatearen zaintzari esker etengabeko diagnosia izan dezakegu beren kalitateari buruz eta berehala antzeman daitezke egon litezkeen narriadura-arriskuak.

Bilbo-Bizkaia Ur Partzuergoak eta AMVISAK urtegieta jasotzen dituzten laginak analizatuz egiten da uraren kalitatearen kontrola. Horregatik, beste hainbat konturen artean, guztiz interesgarria da lagin horiek zein puntutan lortzen diren, laginketak zein maiztasunekin egiten diren eta laginketa bakoitzean analizatzen diren parametroak zein diren.

Bai AMVISAK Urbarri-Ganboa eta Albiñako urtegieta, bai Bilbo-Bizkaia Ur Partzuergoak Urrunagakoa, laginketa-estazioak dituzte hornidurarako ura hartzen duten kaptazioen ondoan; honi esker kontrolak egin ditzakete maiztasun desberdinekin, analizatu beharreko parametroaren arabera.

Horrela, bada, bi erakundeok egunero analizatzen dute uraren pH-a, tenperatura, kolorea, uhertasuna eta konduktibitatea goian adierazitako hiru kaptazioetan. Horrez gain, Bilbo-Bizkaia Ur Partzuergoak egunero analizatzen ditu aluminioa, fluoruroa, koliformeak, aerobioak, estreptokokoak eta pseudomonak. Gainerako parametroak hilean behin aztertzen ditu eta AMVISAk, bestalde, batzuk hamabostean behin eta besteak bi hilean behin.

Uretan disolbatutako pestiziden kontrolari dagokionez, adierazitako erakundeez gainera, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak ere esku hartzen du, urtean bi kanpaina eginez, udaberrian bata eta udako amaiera-aldean bestea. Analizatzen dituen pestizida-motak ondoko taldeetakoak dira: organokloratuak, organofosforatuak, triazinak, fenoxiazidoak eta N-Metilkarbonatoak.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak EAeko ibaiak zaindu eta kontrolatzeko sarea ezarri du. Horretarako, bi laginketa-estazio ditu Zadorraren arroan, urtegietatik ibaian gora: Etura eta Zuazu Donemiliagakoa. Urtean 4 lagin hartzen dituzte puntu bakoitzean. Análisi fisiko-kimikoak eta mikrobiologikoak egiten dituzte, baita makroornogabe bentikoak analizatu eta arrain-komunitatea aztertu ere.

Bilbo-Bizkaia Ur Partzuergoak ere egiten ditu laginketa-kanpainak Zadorraren arroko eta Urrunagakoaren ibaietan, bi kanpaina hain zuzen ere. Kanpainak udaberrian eta udazken-neguan egiten ditu. Ibai hauetatik lortzen ditu laginak:

1. Zadorra ibaiaren arroa: Zadorra, Barrundia eta Alegria ibaiaren kanala.
2. Santa Engrazia ibaiaren arroa: Santa Engrazia, Urkiola, Oleta eta Albiña.

Bilbo-Bizkaia Ur Partzuergoak ibai hauetako laginei egiten dizkien analisiak Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak Zadorra ibaiaren laginketa-estazioetan egiten dituenen antzekoak dira.

Ibai hauek urtegiekin bat egiten duten puntuan analisiak maizago egiten dira: bi kanpaina egiten dituzte urtaro bakoitzean.

Urtegietakoa uraren kontrolari dagokionez, Bilbo-Bizkaia Ur Partzuergoak honako laginketa-estazio hauek ditu instalatuta:

- Uribarri-Ganboa: erdiko puntuan eta presaren ondoan.
- Urrunaga: presaren ondoan.
- Albiña: presaren ondoan.

Puntu hauetan ur-laginak hartzen dira sakonera desberdinetan, baita urtegien hondoa metatutako sedimentuen laginak ere. Análisien maiztasunari dagokionez, kasu honetan ere urtaro bakoitzean bi kanpaina egiten ditu partzuergoak.

Uraren kalitateari buruzko informazio hau guztia izateak urak denbora igaro ahala izan duen bilakaera ezagutzeko eta izan litezkeen arrisku potentzialak aldeztatik antzemateko aukera ematen digu. Hala, urtegietakoa egiten diren nutriente-ekarpenen

mota eta kantitatea eta denboran zeharreko bilakaera ezagututa, eutrofizazio-arriskua zehaztu eta ekarpen horiek kontrolatzeko neurriak har ditzakegu.

Administrazioak une honetan bere buruari planteatzen dizkion helburuen artean, datu hauek guztien ustiapena ahalik eta informazio handiena lortzeko era ezin hobean razionalizatzea eta, orobat, interesa duten erakunde publiko edo pribatuek datu horiek eskuratzeko eskubidea bermatzea aipa daitezke.

Gauzak horrela, Zadorra Sistemako Urtegiak Babesteko Mahaia eratzeko hitzarmenean (aurrerago helduko diogu gai honi 5.7. atalean) ondokoa aurreikusten da: *“Batzorde Teknikoaren (Mahaiaren organoetako bat) oinarritzko tresna izango da Zaintza Analitikorako Plan Koordinatua, urtegietan bildutako zein ibaiadarretako uren kalitatea kontrolatu eta zaintzeko aginpideak dituzten administrazio eta erakunde desberdinen eskuetan dauden datu analitiko guztiak bildu eta bateratuko dituena”* (3. estipulazioa).

5.4. Saneamendua: Hondakin-urak arazteko sistemak

Jarraian, egun dauden hondakin-urak arazteko sistemak deskribatuko ditugu:

OTXANDIO

Udaleri honek, 1.046 biztanlekoak, duela 15 urtez geroztik dauka hondakin-uren araztegia (aurrerantzean HUA). Araztegia aerobioa da (oxigeno-presentziarekin funtzionatzen du), udal-titulartasunekoa, eta Bilbo-Bizkaia Ur Partzuergoari dagokio mantenimendu eta ustiapena. HUA honek tratamendu biologikoa dauka eta bere lohiak, osagai organiko altua dutenez gero, nekazaritzarako erabiltzen dira.

Urkiola ibaiaren ubide ondoan kokatuta dago, Otxandioko hirigunearen eta Urrunagako urtegiaren artean, Zubietako inguruetan.

Kalkuluen arabera, HUA honek urtean 75.900 m³ isurki tratatzen ditu, baina bolumenak handixeagoa izan beharko luke, Mekoleta auzoa ez baitago sarera konektatuta. Adierazi beharra dago, HUAren dimentsioa kontuan hartuta, hondakinak tratatzeko ahalmenaren mugan dagoela.

Aramaioko Oleta auzoko hondakin-urak hobi septiko baten bitartez arazten dira Olazar errekarara isuri baino lehen (urtean 2.900 m³ isurtzen dira bertara). Bestalde, auzo honetan bi granja garrantzitsu daude, urak Inola errekarara isurtzen dituztenak.

Industria-isurketei dagokienez, Otxandion dauden tailer txikiek udaleko saneamendu-sarera isurtzen dituzte urak eta, horrenbestez, ur horiek ez dira HUA-n tratatzen. Ez da gauza bera gertatzen Oleta ondoan, El Limitadon kokatuta dauden bi enpresek: Aulasa (Auxiliar Laminadora Alavesa, SA), altzairu-ijezketan lan egiten duena, eta Talleres Amenabar, SA, igogailu-fabrikatzailea. Horregatik, komenigarria izango litzateke bi enpresak behar bezala konektatzea udaleko saneamendu-sarera.

Isurketek olio- eta koipe-eduki handia dute. Beraz, argi dago udalerriko tailer eta garaje mekanikoez produktu hauek zuzen-zuzenean isurtzen dituztela saneamendu-sarera.

UBIDE

Orain arte Ubideko 161 biztanleen hiri-isurkiak hobi septikoetan tratatzen ziren, bertan elementurik astunenak dekantatu eta gero urak Santa Engrazia ibaira isurtzen ziren. 1998an kolektore-sare bat instalatu eta tratamendu primario eta sekundario edo biologikodun HUA bat eraikitzeke proiektu teknikoa onartu da. 1999ko ekainean abiaraziko dela espero da. Bilbo-Bizkaia Ur Partzuergoa arduratuko da bai HUA eraikitzeaz bai ondoren ustiatu eta mantentzeaz.

Azpirarratzekoa da hainbat abeltzaintza-ustiategi dagoela, ardiak dituztenak batik bat, eta hauek sortzen dutela hondakin-uren bolumenik handiena.

LEGUTIO

Legutioko hiriguneak, udalerriko 1.003 biztanleatariko ia guztiak bizi diren eremuak, orain arte zuzenean isurtzen zituen hondakin-urak Urrunagako urtegiara, ubidearen ondoan kokatuta dagoen HUAn tratatu ondoren. Kalkuluen arabera, isurketen bolumena urteko 139.365 m³-koa da.

HUAren funtzionamendua akastun samarra da; izan ere, zenbaitetan urpean geratzen da zingirako uren mailak gora egiten duenean. Horregatik, Arabako Foru Aldundiak kolektore bat instalatzeko obrari ekin dio, hiri-isurkiak urtegitik ibaian behera eramateko Goiaingo industrialdeko HUAraino; hemen hondakin-urak araztu egiten dira osasungarritasun-baldintzak betez isuri baino lehen. Kolektore hau 1999ko lehenengo hilabeteetan abiaraztea espero da.

Jarduera honen bitartez Legutioko hondakin-urak urtegien arrotik kanpo isurtzea lortzen da eta, horrenbestez, urtegiaren bildutako uraren kalitateari kalterik egiteko arrisku guztiak desagertu egiten dira.

AGURAIN

Hondakin-ur gehien isurtzen duen arro osoko udalerrria da; kalkuluen arabera, urtean 450.000 m³ isurtzen ditu. Halaber, biztanle-kopururik handiena duen udalerrria da: 3.796 biztanle.

HUAk ez du behar bezain ongi funtzionatzen, zenbaitetan isurketa- baimenaren baldintzak betetzen ez dituela egiaztatu da-eta. Bere ahalmenaren mugatik hurbil dago, 6.000 biztanleri zerbitzu egiteko diseinatuta dago eta une honetan hiriguneko ia 4.000 biztanleei eta 1998az geroztik udal-kolektorera konektatuta dagoen Litutxipiko industrialdeko tailerrei egiten baitie zerbitzu. Aguraingo Udala bera arduratzen da HUAren mantenimenduaz.

Udalaren jabetzako HUAz gainera, badira beste bi araztegi. Bat Fundiciones Ocariz, SA enpresarena eta bestea zurratze-fabrikarena; azkeneko hau birmoldatu eta SAL bilakatu da eta plantila txikiagoa du baina funtzionatzen du oraindik.

Udalaren jabetzako HUA hobetzea komeni da. Horretarako, alde batetik nitrogenoa ezabatzea helburu duen zona anoxikoaren (oxigeno molekularrik ez duena) edukiera handitu behar da eta, bestetik, fosforoa tratatzeko sistema bat sartu, burdina(II) sulfatoarekin dosifikatuz edo beste metodo kimikoren batez baliatuz.

DULANTZI

Alegria ibaiak Zadorrarekin urtegietatik ibaian behera bat egiten duen arren, kanal baten bitartez lotuta dago Uribarri-Ganboako urtegiarekin. Horrexegatik da hain garrantzitsua Alegria ibaiaren goiko ibaibidean egiten diren isurketak kontrolatzea, gehienetan zehaztugabeak eta nekazaritzan sortuak izaten baitira.

Dulantzin (1.178 biztanle) hiriguneko hondakin-urak arazten dituen HUA bat dago. Funtzionamendua zuzentzat jo daiteke, baina nitrato-kontzentrazio garrantzitsua detektatu da. Udala bera arduratzen da araztegi honen mantenimenduaz.

Komenigarritzat jotzen da araztegi instalazioak hobetzea. Horretarako, tratamenduak sartu behar dira nitrogenoa zona anoxiko bat eraikiz ezabatzeko eta fosforoa burdina(II) sulfatoarekin tratatuz ezabatzeko.

* * *

Arroan tamaina txikiko landa-gune ugari daude, hondakin-urak kasurik onenean hobi septikoen bidez arazten dituztenak. Gure iritziz administrazio aginpidedunak zehatz-mehatz eta zorrozki aztertu beharko luke problematika hau. Gauza bera esan daiteke urtegien edo hauen ibaiadarren inguruetan kokatuta dauden granja eta abeltzaintza-ustiapen intentsiboei buruz.

Guztira, 45 puntu detektatu dira, gune barreiatu txikietatik eta granja edo etxebizitza isolatuetatik datozen hondakin-urak isurtzen dituztenak. Isurketa hauetatik guztietatik, bederatzik putzu beltzak erabiltzen dituzte eta 36k aurretiko tratamendu-sistemaren bat dute.

Dena dela, detektatu diren 45 isurketa-puntuetatik, oso gutxi dira Ebroko Konfederazio Hidrografikoak landutako isurketa-baimenen erroldan ageri direnak. Errolda horretan, honako emari hauek baimentzen dira:

- Elosu: 143 m³/egun, gehi 3 m³/egun herriko etxebizitza isolatuetarako.
- Marieta-Larintzar: 20,6 m³/egun, Uribarri-Ganboako urtegiara zuzenean isuriz.
- Heredia: 12,4 m³/egun.
- Larrea: 12 m³/egun.

Arroan isurtzen diren hondakin-uren kalitatea hainbat erakunde ari da zaintzen: Ebroko Konfederazio Hidrografikoa, Bilbo-Bizkaia Ur Partzuergoa eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila eta Garraio eta Herrilan Saila.

Ohiko zaintza gauzatzeko laginketa-estazioak arroko herri nagusietako araztegien efluentean kokatuta daude, Dulantzi, Agurain, Otxandio eta Legutiokoetan hain zuzen ere. Horrez gain, Garraio eta Herrilan Sailak, Uren Zuzendaritzaren bitartez, isurketa-puntu gehienetako efluenteen lehenengo karakterizazio analitikoa egin du.

Udal-araztegieta hilean behin egin ohi dira laginketak. Hauexek dira araztegi gehienetan aztertzen diren parametro fisiko-kimikoak: pH-a, konduktibitatea, esekidurako materia, DBO, DQO, amonioa, NTK, fosforoa, kloruroak, kromoa, nitratoak, burdina eta manganesoa.

5.5. Aisialdirako mugak: ontzi motoredunen debekua

Zadorraren urtegieta garatzen diren aisia- eta kirol-jarduerak kalteak eragiten dizkiote urtegiari, batzuek zingiraren inguruei eta besteek zuzen-zuzenean ur-laminari. Lehenengoen artean kanpaldiak, aire libreko txangoak, mendi-bideetan ibiltzea, hegazti urtarrak behatzea... aipa daitezke. Bigarrenen artean udaldiko bainuak, piraguismoa, bela, ontzi motoredunak erabiltzea, windsurfa eta abar egongo lirateke.

Urtegiak Gasteiztik hurbil egotea, bertara heltzeko erraztasuna eta Durangaldea, Deba Garaia edo Arratia bezalako eskualdeekin duten komunikazio ona, erabilera horiek intentsiboagoak izan daitezen faboratzen duten faktoreak dira. Hori dela-eta are premiazoagoa suertatzen da erabilerak kontrolatzea.

Aisia-jarduerak bigunen eta bestelakoen artean bereiz daitezke. Lehenengok berez ez diote inolako kalterik eragiten inguruneari: mendi-bideetan ibiltzea, ibaiko arrantza, hegaztiak behatzea eta abar. Bigarrenak, ostera, ingurunean zuzen-zuzeneko eragina eta urtegieta bildutako uraren gainean zeharkako eragina dutelako edo zuzenean uretan bertan egiten direlako (ontzi motoredunak erabiltzea, txango kontrolatugabeak, karabanak ezartzea eta kanpaldiak, eta abar), kontrolatu egin beharko lirateke.

Aisia-jarduerak eta, bereziki, beren ondorio degradatzaileak kontrolatzeko modurik egokiena sakabana daitezen eragozte da. Erabiltzaileentzat erakargarriak diren zona ongi ekipatuak sortzea komeni da, mota guztietako zerbitzuek hornituak (hondakin-bilketa batik bat), hala erabilerak kontrolatutako zona horietara bidera daitezen eta urtegieta koroa osoan zehar barreia ez daitezen.

Albiñako urtegia salbuespena da erabilera hauei dagokienez, hemen udaldiko bainu eta arrantza-jarduera bakan batzuk baino ez baitira izaten.

Azpimarratzekoa da Arabako Foru Aldundiak zenbait parke eta jolasgune egokitu eta ekipatzeko egin duen ahalegina. Hauen artean nagusi dira Garaio eta Landa parkeak Uribarri-Ganboako urtegieta eta Urrunaga edo Sorgimendi eta Itesaun Urrunagako

urtegian. Ere mu hauetan hondakinak biltzeko instalazioak daude eta zerbitzu hau aldian-aldian egiten da.

Arabako Foru Aldundiko Hirigintza, Arkitektura eta Ingurugiro Sailak azterlan bat egin berri du jendea kontrolik gabe sartzeak eta ekipamendurik ez izateak eragindako degradazio-arazoak dituzten urtegietao inguruetao eremuak detektatzeko.

Bada kontuan izan beharreko beste arazo bat, izan ere gero eta txabola eta etxola gehiago baitaude urtegien ingurueta, batzuetan ur-lamina ukitzen dutela ezarrita gainera. Jendeak eguna pasatzera joateko eta zenbaitetan asteburuan lo egiteko ere erabiltzen ditu eraikuntza hauek. Arazo honek benetan kezkatu du Arabako Foru Aldundia eta 1997an legez kanpoko txabola eta etxolen inbentarioa egin du, kasu bakoitzean beharrezkoak diren hirigintzako eskuhartze-neurriak hartzeko.

* * *

Hidrokarbuero eta olioek ura polui ez dezaten, mugak ezarri dira urtegietao **ontzi motoredun** berriak erabiltzeko baimenak emateko. Halaber, dagoeneko baimena duten ontzien zaldi-potentzia ere mugatu egin da. Horrez gain, duela gutxi aurrerapauso handia egin da helburu hori lortzeko bidean, horizonte-data bat ezarri baita Zadorra sistemako urtegietao ibilgailu motoredunak erabiltzeko muga gisa.

Erabaki hau Zadorra sistemako urtegiak babesteko Batzorde Teknikoak iradoki zuen eta Eusko Jaurlaritzako Uren Zuzendaritzak proposamen gisa hartu eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoari helarazi zion. Hala, 1998ko ekainean, erakunde autonomiadun honen Gobernu Batzordeak Urrunaga eta Uribarri-Ganboako urtegietao ontzi motoredunak erabiltzea debekatzeko erabakia hartu zuen, nahiz eta behin-behineko denboraldi bat ezarri neurri hau eraginkor bihurtu arte.

Ontzi motoredunak, salbamendu eta sorospenean aritzen direnak, zaintza-lanak egiten dituztenak, herri-erabilerakoak eta eski nautiko federatukoak izan ezik, ondoko urteetao desagertu beharko dira urtegietao:

<u>Urtegia</u>	<u>Urtea</u>
Urrunaga	2003
Uribarri-Ganboa	2007

Epeen arteko desberdintasun hori ulertzeko Urrunagako urtegietao baimena duten ontzi motoredunen kopurua Uribarri-Ganboako urtegietao baimena dutenena baino askoz ere txikiagoa dela kontuan hartu behar da. Gainera, Urrunagan baimena duten ontzi batzuek Uribarri-Ganboan nabigatzeko baimena ere badute eta, hortaz, 2007 urtera arte erabili ahal izango dira. Jakina, neurri honek ez du eraginik arraunontzi edo belaontzien erabileran, ezta windsurf-taulen erabileran ere.

Albiñako urtegian inoiz ez da zilegi izan inolako ontzirik erabiltzea, ezta bainatzea ere. Beraz, ez da inolako neurririk hartu behar izan.

* * *

Urtegien inguruetan dauden **gazte-udalekuetarako instalazioei** dagokienez (edukiera eta ekipamenduagatik Zuazako uhartekoa nabarmentzen da), behar bezala ekipatutako instalazioak dituztenez gero, ez lukete inolako arriskurik izan behar urtegiatan bildutako uraren kalitaterako.

Udalekuetarako lau instalazio daude, denak Uribarri-Ganboako urtegiaren inguruetan. Hona hemen instalazioen zerrenda, bakoitzari dagokion edukiera aldamenean adierazita duela:

1. Landa:	30	persona.
2. Santiagolarra:	120	persona.
3. Ozaeta:	80	persona.
4. Zuazako uhartea:	500	persona.

5.6. Poluzioa gutxitzen duten nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzako praktikak

Une honetan erakundeak hainbat neurri hartzen ari dira **nekazaritza-jarduerak** sortzen dituzten ondorio poluitzaileak gutxitzeko; ekimen hauetako gehienak Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak sustatu ditu.

78/1998 Foru Dekretua azpimarra daiteke, irailaren 8koa (ALHAOren 114. alea, urriaren 5koa), ingurugiroa babesteko eta espazio naturala kontserbatzeko exijentziekin (2078/92 EEE Araudia) bateragarriak diren nekazaritza-produkzio metodoak sustatzeko laguntza-erregimena onartzen duena. Laguntza-erregimen hau Eusko Jaurlearitzak sustatu du foru-aldundiekin elkarlanean jardunez eta hauek arduratuko dira erregimena garatu eta aplikatzeaz. Programa honek hainbat jarduera edo ekintza ditu ardatz:

- Nekazaritza-produkzio ekologikoa sustatzeko eta nekazaritza-ongarri konpostatuak erabiltzeko laguntzak.
- Mendiko larreak kontserbatzeko laguntzak.
- Laborantza debekatzea ibai eta erreken ubideen inguruko 10 metroko zerrendan eta urtegien inguruko 100 metroko zerrendan.
- Produktu fitosanitarioen erabilera debekatzea babestu beharrekotzat aitortutako zonetan.

Halaber, 78/1998 Foru Dekretuak ezartzen duenez, ibaiak eta errekek babesteko eta urtegiak eta aintzira naturalak babesteko neurrietara bildu nahi duten nekazaritza-ustiapienen titularrek konpromisoa hartu beharko dute nekazaritza-produkzioetik 10 metroko zerrenda bat kentzeko lehenengo kasuan eta 100 metrokoa bigarrenean, eta belardiak baldin badira, zerrenda horretan ongarririk edo pestizidarik ez erabiltzeko (5-

2 d) eta e) art.). Laguntza-lerro honetarako diruz lagundutako sariak hektareako 41.500 pezetakoak dira ibai eta erreken ertzetarako eta hektareako 99.600 pezetakoak urtegiarako, labore-mota gorabehera.

Adierazi beharra dago 78/1998 Foru Dekretuak indargabetzeko xedapen bat daukala, oso antzeko laguntza-erregimena ezartzen zuen uztailearen 16ko 84/1996 Foru Dekretua (ALHAOren 89. alea, abuztuaren 7koa) indargabetzen duena.

Horrez gain, Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiekin batera, Nekazaritza-lanetan Egoki Jarduteko Kodea landu du, abenduaren 22ko 390/1998 Dekretuaren (EHAAREN 18. alea, 1999ko urtarrilaren 27koa) bidez onartu duena. Bere interesa dela medio, “*Ur-bideetatik hurbil dauden lurretan ongarririk zabaltzeko baldintzak*” izenburua duen 8. kapitulua hitzez hitz adieraziko dugu:

“Ongarririk ur-korronteetatik hurbil zabaltzen direnean, ongarririk horiek lur gaineko uretara isurtzeko arriskua dago, eta hala, ongi mugatu behar dira isurkiak non ezin diren inolaz ere zabaltu edo egitekotan, kontuz ibili behar deneko eremuak, ondokoak oinarritzat hartuta:

- *Urbazterraren izaera (topografia, landaredia). Arriskua areagotzen duten alderdien artean ezpondak, malda handiko ur-bazterrak eta landaredirik eza aipa ditzakegu.*
- *Urak gainez egin dezakeeneko inguruak, esate baterako, uholdeak eragiteko arriskua duten ur-bideen bazterrak, edota mareak jasaten dituzten itsasbazterreko urak.*
- *Bai ongarririk-motak berak, bai zabaltzeko moduak ere areagotu egin dezake injekzio bidezko arrasterako arriskua. Hala gertatzen da osagai meheekin (tantatxoak eta bikorrak eta zenbait ekiporekin (banaketa zentrifugoa, barreatzaileak, ihinztargailuak) adibidez. Ekipoa geldituz gero, areagotu egiten da isurketa eragiteko arriskua eta beraz, aplikazioa zenbateraino den zehatza, ekipo horien doikuntzaren arabera izango da. Lursailak zuinkatzea komeni da, eta abereek ur-korronteetatik zuzenean edatea galarazi behar da.*

Berariazko jarduketak:

- *Kanoi bidezko aplikazioa: Zerrenda bat (5-10 metro bitartekoa) ongarririk gabe utzi edo kanoia ur-bidetik lursailera zuzendu.*
- *Ihinztargailuen bidezko aplikazioa: 3-5 metro bitarteko zerrenda bat ongarririk gabe utzi eta haizeak ongarririk uraren ibilgura eramaten ez duela ziurtatu.*
- *Ongarrizatzeko makinaren, lainoztargailuen edo simaurra zabaltzeko makinaren bidezko aplikazioa: gutxienez 3 metroko zerrenda bat utzi behar da ongarrizatu gabe.*

Simaurra edo hondakin organikoa zabaltzeko ekipoek behar bezala doituta egon behar dute.

Ur-bazterretan landaredia egotea komeni da, eta beraz, zaindu egin beharko da alderdi hori ere.

Gogoan izan Ingurugiroa Babesteko Neurriei buruzko 2078/92/EEE Araudia araupetzen duen Dekretuak dioena. Ibai-ibilgutik 10 metroko zerrenda batean eta urtegien kota gorenetik 100 metroko zerrenda batean ez landatzea saritzen du.

Lur azpiko urak kutsatzeko arriskua gutxitzeko, isurki eta hondakin organikoak ezin dira gizakiek edateko edo abereak jertzeko erabiltzen den ura ematen duen iturri, putzu edo zulo batetik 50 metroko distantziara isuriko dira.”

Nekazaritza-lanetan Egoki Jarduteko Kode hau borondatez aplikatzeko da nekazaritza-ustiapenen titularrentzat, Euskal Autonomia Erkidegoak “zona urrakor” izendatu dituen eremuetan kokatuta daudenentzat izan ezik. Izan ere, kodea eremu horietan nekazariak derrigorrez aplikatzekoa da, Urak nekazaritzan sortutako nitratoek eragindako poluzioaren kontra babesteari buruzko 91/676/EEE Arztejaraua bere legeriara egokitu duen otsailaren 26ko 261/1196 Errege Dekretuak ezartzen duenaren arabera.

Orain arte “zona urrakortzat” aitortu den eremu bakarra Gasteizko Unitate Hidrogeologikoa izan da, Ekialdeko Sektorea, Gasteizko akuiferoak kokaturik dauden eremuari dagokiona, Uribarri-Ganboako urtegiaren hego-mendebaldean. Hain zuzen ere, Nekazaritza-lanetan Egoki Jarduteko Kodea onartu duen 390/1998 Dekretuaren bidez (2. art.) eremu hori zona urrakortzat izendatu da (xedapen gehigarria).

Arabako Foru Aldundia ere hainbat plan experimental egiten ari da ongarriztatzea optimizatu eta higadura minimizatzeko. Plan hauek emaitzak nekazarien artean zabaltzen ditu hauek beren ustiapenetan aplikatu dituzten.

Nekazariak laboreak ubideetako urak, eta zenbaitetan urtegiak ere, erabiliz urrezta ez ditzaten, Arabako Foru Aldundiak dagoeneko eraikita dauden urmaelen kopurua areagotzeko asmoa dauka, hala neguan ura bildu ahal izango baita agorraldietan nekazaritzarako erabili ahal izateko, ubideetako ura erabili beharrik izan gabe.

Bestalde, ez dago inon jasota arroan dauden nekazaritzako lurak Nekazaritzan sortutako nitratoek eragindako poluzioari buruzko 91/676/EEE Arztejaraua gure antolamendu juridikora inkorporatzen duen 261/1196 Errege Dekretuak xedatutakoaren ondorioetarako “zona urrakortzat” aitortzeko aukera aztertu denik.

Abeltzaintza-ustiapenei dagokienez, Arabako Foru Aldundia hainbat ekintza aurrera eramaten ari da: ustiapen intentsiboetan isurketarik ez egiteko aholkularitza ematea, hildako abelburuak jasotzea, parasitokontra ekintzak produktu ez hain erasokorrekin egitea eta soberako likidoak jasotzea, eta abar.

Ekimen hauez gain, Nekazaritzako Ikerketa eta Hobekuntza Zerbitzua (NIHZ) nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenetatik eratorritako ondorio poluitzaileak murrizteko garatzen ari den ikerketa aplikatuak azpimarratu behar dira.

390/1998 Dekretuaren bidez onartutako Nekazaritza-lanetan Egoki Jarduteko Kodeak “*Simaurtegi, minda-putzu eta bazka-siloen edukiera eta diseinua, eta animalien gorozkiak edo siloratze-isurkiak dituzten likidoen lur gaineko edo lurrazpiko urak kutsatzea eragozteko neurriak*” ditu aztergai 9. kapituluan. Dena den, lehen adierazi dugun bezala, kodea borondatez aplikatzekoa da, zona urrakor izendatutako eremuetan izan ezik. Halaber, bazka-landareetan eta belardietan aplikatu beharreko ongarriztatze nitrogenatuari buruzko jarduerarik egokienak biltzen ditu kodeak.

Basogintza-sektoreari dagokionez, Arabako Lurralde Historikoko Mendien Erregimena araupetzen duen uztailaren 4ko 13/1986 Foru Arauak, 9.a) artikuluan, “*arro hidrografikoen eta zingiren elikadura-arroen goi-ibarretan kokatuta dauden*” mendiak herri-onurakotzat aitortzeko ahalmena ezartzen du neurri-babes gisa.

Izan ere, arroko ubideen goi-ibarretan dauden mendi gehienak herri-onurakotzat aitortuta daude eta hau beren baso-masa, gehiena autoktonoa, iraurarazteko bermea da.

5.7. Erakundeen neurriak: koordinazio-organismoak

Asko dira beren aginpideak eta helburuak garatzerakoan urtegieta bildutako uraren kalitatean eragina duten administrazioak, erakundeak eta emakidadunak, bai publikoak bai pribatuak. Honako hauek aipa genitzake:

- Ebroko Konfederazio Hidrografikoa (Estatuko Administrazioaren erakunde autonomiaduna).
- Euskal Autonomia Erkidegoa.
- Arabako Foru Aldundia.
- Urtegiratutako ibaiaren arroko udalak eta kontzejua.
- Aprobetxamenduen emakidadunak: AMVISA, Bilbo-Bizkaia Ur Partzuergoa eta Iberdrola.

Hala eta guztiz ere, orain arte ez da erakunde bakar bat ere izan, ezta aholku eman eta proposatzeko aginpideak dituenik ere, herri-erakunde desberdinek garatzen dituzten arloko jarduerak urtegieta uraren kalitatea babesteko ikuspegitik koordinatzeko eginkizunari heldu dionik. Funtzio hauek beteko dituen erakunde baten beharra are premiazkoagoa da, ez baitago administrazio desberdinek beren arloko aginpidez baliatzerakoan bete behar dituzten irizpideak eta jardunbideak planifikatu edo adierazten dituen inolako dokumenturik.

Erakunde-mailako hutsune honetaz jabetuta, 1996an Zadorra Sistemako Urtegiak Babesteko Batzorde Teknikoa eta Zuzendaritza Batzordea izenekoak sustatu eta eratu zituzten. Foro honetan inplikaturako ia erakunde eta enpresa guztiak daude ordezkaturik, eta bertakoa izatea eta bileretan parte hartzea guztiz borondatezkoa eta aukerakoa da. Informazioa trukatzeko, diagnosiak egiteko eta jarduera-proposamenak eztabaidatzeko topagune izatea du helburu. Jarraipena aukerakoa da betiere eta Batzordeak ez du inolako ahalmen hertsagaririk.

Gertaera garrantzitsua izan zen Batzorde Teknikoak berak landutako “Jarduteko proposamenak” izeneko dokumentua 1997an aurkeztea, arazoari buruzko informazioa bildu eta diagnosia egiteko ahalegin eskerga izateaz gain, jarduteko arloko hainbat neurri kontuan hartzen baititu.

Alabaina, batzorde hauek (teknikoa eta zuzendaritzakoa) ez zuten sostengu gisako inolako oinarri formalik (ez administrazio-erabakirik ez protokolizazio-dokumenturik), borondate hutsezko bultzada baten babespean sortu baitziren, eta horrek arriskuan jartzen zuen beren jarraitasun eta egonkortasuna gorabehera politiko eta administratiboen mende.

Egoera honi irtenbidea aurkitu nahian, 1998ko amaieran lankidetzeta-hitzarmena landu da eta berresteko zain dago, jarraian adierazitako erakunde eta enpresa emakidadunek osatzen duten Zadorra Sistemako Urtegiak Babesteko Mahaia sortzeko:

- Ebroko Konfederazio Hidrografikoa.
- Eusko Jaurlaritza: Nekazaritza eta Arrantza Sailsa, Osasun Sailsa, Garraio eta Herrilan Sailsa eta Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailsa.
- Arabako Foru Aldundia: Nekazaritza Sailsa eta Hirigintza, Arkitektura eta Ingurugiro Sailsa.
- Zadorraren arroko udalak: Aramaio, Dulantzi, Arratzu-Ubarrundia, Barrundia, Burgelu, Iruraitz-Gauna, Legutio, Agurain, Donemiliaga, Otxandio, Ubide eta Zigoitia.
- Gasteizko Udal Urak/Aguas Municipales de Vitoria, SA (AMVISA)
- Bilbo-Bizkaia Ur Partzuergoa.
- Iberdrola, SA.

Mahaia, bere antolamendu eta funtzionamenduaren ondorioetarako, bi organotan oinarrituta egituratzen da: Zuzendaritza Batzordea eta Batzorde Teknikoa. Aurreikuspenen arabera, 1999ko lehen hiruhilekoan eratu eta abiaraziko da.

Zuzendaritza Batzordea Mahaia osatzen duten erakundeetako bakoitzaren ordezkari batek osatzen du eta izaera politiko nabarmena dauka. Lehentasunezkoztat jo behar diren jarduerak adieraztea eta kasu bakoitzean aplikatu daitezkeen zuzenketa-neurriak hartzeko proposamena egitea du eginkizun.

Batzorde Teknikoari, bestalde, urtegieta bildutako uretan zuzeneko nahiz zeharkako eragina izan dezaketen jarduera desberdinei buruzko egoera-diagnosiak eta ekintza-proposamenak lantzea dagokio. Bere osaera, izenak adierazten duen bezalaxe, nabarmenki teknikoa da eta Mahaia osatzen duten erakunde guztien ordezkari teknikoek osatuko dute, udaletakoek eta Iberdrola, SA sozietatekoek izan ezik.

VI. KAPITULUA

URAREN ERREGIMEN JURIDIKOA ETA AGINPIDE-BANAKETA

6. URAREN ERREGIMEN JURIDIKOA ETA AGINPIDE-BANAKETA

6.1. Sarrera

Zadorra sistemako urtegiatako uraren kalitatea hobetzeko sustatu nahi den edozein jarduerak problematika bikoitzarekin egiten du topo; alde batetik, erakunde-egituraren konplexutasunak aginpideak gehiegi zatikatzen ditu administrazio-maila desberdinen artean (kontzejua, udalak, foru-aldundiak, Eusko Jaurlaritzza, Ebroko Konfederazio Hidrografikoa...); eta bestetik, ingurune urtarraren kalitatearekin lotuta dauden eta bertan zuzeneko nahiz zeharkako eragina duten sektoreen aniztasuna oso handia da.

Esate baterako, uraren kalitatearen problematikari biztanleriaren kontsumorako horniduraren ikuspuntutik aurre egin nahi izango bagenio, problematikaren alderdi desberdinetan herri-erakunde desberdinen eskuhartzea islatzen dela ikusiko genuke.

Urtegien urbazterretako udalerrietan asentatuta dagoen biztanleriarentzako edateko uraren etxeko hornidura, Legutioren kasua esate baterako, udalen aginpidea da Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeko 25-2-l) artikulua ezartzen duenaren arabera. Hala ere, zerbitzugintza horren esparrua maila txikiagoko toki-erakunde bat izango balitz, Elosuren kasua esate baterako, aginpidea Kontzeju horri legokioke eta ez Legutioko Udalar, Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuei buruzko martxoaren 20ko 11/1995 Foru Arauko 7-1-d) artikulua xedatutakoaren arabera.

Arabako Foru Aldundiak, gainerako lurralde historikoetako bezalaxe, laguntza tekniko eta/edo finantzarioa eman ohi die udal eta kontzejuei kaptazioak egiteko, tutueriak eta deposituak instalatzeko eta urak tratatu eta edateko modukoak izan daitezten arazteko, Obra eta Zerbitzuetako Foru Planen bitartez (Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Komunuen eta bere Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko Harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legeko 7-a-5. artikulua). Aipatzekoa da, halaber, Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herrilan Sailak foru-aldundiekin izenpetutako hitzarmena, honen bitartez Administrazio Autonomikoak %50eko finantzaketa ematen baitu urei buruzko udal-jarduerei laguntzeko.

Dena dela, ur-hornidurak baliabidea ibai eta erreketatik biltzea edo, hala badagokio, urtegietatik bertatik biltzea eskatzen duenez gero, ezinbestekoa da Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren (Estatuko Administrazioaren erakunde autonomiaduna) administrazio-emakida edukitzea, Uren Legeko 57. artikulua eta hurrengoek xedatzen dutenaren arabera. Egoera honetantxe daude urak Urrunagako urtegian hartzen dituen Bilbo-

Bizkaia Ur Partzuergoa eta urak Uribarri-Ganboako urtegian hartzen dituen AMVISA (Gasteizko Udal Urak/Aguas Municipales de Vitoria, SA) udal-enpresa publikoa.

Beraz, erakundeen arteko egitura konplexu hori are gehiago korapilatzen da, ur-horniduraren kudeaketa erakunde edo ente instrumentalen bitartez burutzen delako, batzuk nortasun juridiko pribatukoak, enpresa publikoak esaterako (AMVISA) eta besteak nortasun juridiko pribatukoak, hala nola maila desberdineko herri-erakundeek osatzen dituzten partzuergoak (Bizkaiko udalek eta Bizkaiko Foru Aldundiak osatzen dute Bilbo-Bizkaia Ur Partzuergoa).

Biztanleria hornitzeko erabiltzen diren ibaibide eta ur-masen kalitatea kontrolatzeari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Osasun Publikorako Zuzendaritzari dagokio aginpide hau, baita ura edateko araztu ondoren bere kalitatea kontrolatzekoa ere.

Azkenik, ez dugu ahaztu behar ur-masa eta ibaibideen kalitate natural eta ekologikoaren babesean eta ekosistemen eta habitat, flora eta fauna basatiarraren aniztasun eta baliabideen kontserbazioan eragina dutela, besteak beste, ingurugiroa babestu eta kontserbatzeko aginpideak dituzten erakundeek har ditzaketen neurriak (Arabako Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro eta Nekazaritza sailak). Halaber, lurraldea antolatzeko aginpideak betez hartzen diren erabakiek eragina dute uraren kalitatean; horixe da, hain zuzen ere, EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren kasua (Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila).

6.2. Oinarrizko araudia

A) UREN 29/1985 LEGEA

Uren 29/1985 Legeak, abuztuaren 2koak (BOEren 189. alea, abuztuaren 8koa), indargabetu eta ordezkatu egin zuen ehun urtetik gora indarrean zeramatzan 1879ko ekainaren 13ko Uren Legea, bizitza juridiko luzean zehar emaitza oparoak izan arren nabarmen zaharkituta zegoena.

Lege-testu berriak ez du espresuki aipatzen Estatuaren oinarrizko legeriaren parte denik; beraz, hasiera batean bederen, bere aginduek Konstituzioko 149-1. artikuluaaren epigrafeek aipatzen dituzten gaietara buruz oinarrizko legeriaren izaera ez dutela pentsa liteke. Hala eta guztiz ere, Konstituzio Auzitegiak, 227/1988 epaian, Uren Legea oinarrizko lege bihurtu zuen, agindu jakin batzuk baliabide eta aprobetxamendu hidraulikoen gaietan titulartasun eskusiboa duten autonomia-erkidegoetan ere aplikatu daitezkeela ezarri.

Legeak ziklo hidrologikoaren batasunaren printzipioa jasotzen du bere egitura arau-emaile osoaren ardatz den oinarrizko kontzeptu gisa, ordurarte doktrinak eta jurisprudentzia-pronuntziamentu ugari onartzen zuten bezalaxe. Hain zuzen ere, printzipio hau esplizituki adierazten du Zioen Azalpenean:

“Halaber, ura ziklo hidrologikoaren bitartez berriztatzen den baliabide bateratua da, ondorio praktikoetarako herrialde honetako arro hidrografiko bakoitzaren barruan magnitude ia iraunkorra gordetzen duena”.

Testu arau-emaile berriak printzipio iradokitzaileen erabateko aldarrikapena egiten du 1. artikuluan. Bertan aldarrikatzen duenez, ur kontinentalak “interes orokorraren menpe dauden baliabide bateratua dira, Estatuaren herri-jabarikoa osatzen dutenak, herri-jabari hidrauliko gisa”.

Jarraian adierazten duenez, *“Estatuari dagokio, kasu guztietan, eta Lege honetan ezartzen diren hitzetan, herri-jabari hidraulikoaren gaineko edozein jarduera menpe hartuko duen plangintza hidrologikoa egitea”.*

Beraz, ura Estatuaren titulartasunpeko jabarizat hartzea eta plangintza baliabide hidraulikoak antolatzeko metodo gisa erabiltzea dira 29/1985 Legean bilduta dauden xedapenek sostengu dituzten oinarrizko pilareak.

Ibaiak, urtegiak eta gainerako ibaibideak babesteko asmoz, 29/1985 Legeak 5 metroko zortasun-zona eta 100 metroko jagoletza-zona ezartzen ditu. Bertan edozein jarduera burutu ahal izateko, administrazio hidrauliko aginpidedunaren aldez aurreko baimena beharko da (6. art.).

Baliabide hidraulikoen kudeaketa arro hidraulikoaren lurraldea esparru bakar eta zatiezintzat hartuta eta kudeaketa-batasun, deszentralizazio eta koordinazioaren printzipioak errespetatuz planteatzen da (13. art.).

Uraren Kontseilu Nazionala eratzen da gai honetako kontsulta-organo goren gisa. Orobat, arroko erakundeak sortzen dira, Plan Hidrologikoak landu, baliabide eta aprobetxamendu hidraulikoak administratu eta obra hidraulikoak eraiki eta ustiatzeko eginkizunarekin (17. art. eta hurrengoak).

Arroko erakundeei Konfederazio Hidrografiko deritze. Administrazio-ikuspegitik, Estatuaren nortasunetik bereizitako nortasun juridiko propioa duten erakunde autonomiadun gisa definitzen dira, baina Ur eta Kostaldean Estatuko Idazkaritzaren zuzendaritzapean jarduten dute, Obra Hidrauliko eta Uren Kalitatearen Zuzendaritza nagusiaren bitartez Ingurugiro Ministerioari atxikita.

Euskal Autonomia Erkidegoan Iparraldeko eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoak dira Estatuko erakunde aginpidedunak, lehenengoa isurialde kantauriarreko ibaien kasuan eta isurialde mediterraniarrekoen kasuan bigarrena. Konfederazio Hidrografiko horiek arroko erakunde gisa eratu ziren uztailaren 21eko 930 eta 931/1989 Errege Dekretuen (BOEren 178. alea, uztailaren 27koa) bidez, hurrenez hurren.

Konfederazio Hidrografiko bakoitzaren barneko antolamendu-egitura honako hauek osatzen dute: gobernu-organoak, Gobernu Batzordea (bertan autonomia-erkidego bakoitzak gutxienez mahaikide bat du) eta lehendakaria; kudeaketa-organoak, eremu geografiko mugatu eta zehatz batean jarduten dutenak, funtzio teknikoa garatuz,

hala nola Erabiltzaileen Batzarra, Urtegiak Husteko Batzordea, Ustiapen Batzordeak eta Obra Batzordeak; eta, azkenik, plangintza-organo bat, Uraren Kontseilua. Zingira edo urtegien arabera hainbat sekziotan banatuta dagoen Urtegiak Husteko Batzordeari eginkizun hau dagokio: *“eztabaidatu eta erakundeko lehendakariari proposamenak egitea arroko urtegiak eta akuiferoak bete eta husteko erregimen egokiari buruz, erabiltzaile desberdinen emakida-eskubideak errespetatuta”* (Legeko 31. art.).

Baliabideen antolamenduari dagokionez, legeak Arroko Plan Hidrologikoetara eta Plan Hidrologiko Nazionalera igortzen du, plan horien gutxieneko edukiak baino ez ditu definitzen. Aldi berean, arazuko bidera atzeratzen du haien landu eta berrikusteko prozeduraren finkapena. Arroko Plan Hidrologikoen lurralde-esparrua, Konfederazio Hidrografikoena bezalaxe, maiatzaren 8ko 650/1987 Errege Dekretuak (BOEren 122. alea, maiatzaren 22koa) definitu zuen.

Plan Hidrologiko Nazionala oraindik onartu gabe badago ere, uztailaren 24ko 1664/1998 Errege Dekretuak (BOEren 191. alea, abuztuaren 11koa) dagoeneko onartu ditu erkidegoen arteko plan hidrologikoak, hau da, autonomia-erkidego batean baino gehiagotan zehar igarotzen diren ibaien arroi dagozkienak. Onartutako planen artean, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, Ebroko Plan Hidrologikoa eta Iparralde II (Karrantza eta Aguera ibaien arroak) eta III Plan Hidrologikoak daude; azken honek Euskal Autonomia Erkidegoaz gainera beste autonomia-erkidego batean zehar igaro eta euskal kostaldean itsasoratzen diren ibaien arroak barne hartzen ditu.

IV. tituluaren uren erabilera komun eta pribatiboei buruzko jarraibideak ezartzen dira eta indargabetu egiten ditu, bertan ezarritakoaren kontra doazen neurrian, Kode Zibileko 407.etik 425.era bitarteko artikulua, ordurarte uren erregimen juridikoa jabetza berezi gisa arautzen zutenak hain zuzen ere. Era berean, erabiltzaile-elkarteen eta ur-emakiden erregimena zehazten da (57. art. eta hurrengoak), eta hauen artean lehentasunez ematekotzat aitortzen ditu biztanleria urez hornitzeari dagozkionak (58-3. art.).

Uren kalitate-maila egokia lortu eta mantentzera zuzendutako herri-jabari hidraulikoaren jagoletza eta babesa da arauak garrantzi handia ematen dion beste alderdi bat (84. art. eta hurrengoak). Herri-jabari hidraulikoaren poluzioa edo degradazioa ekar dezakeen edozein jarduera administrazio-baimenaren baldintzapean jartzen du, hots, isurketari buruzko kontzeptu zabala biltzen du. Osagarri gisa, jarduteko neurriak eta isurketak erregularizatu eta kontrolatzekoak ezartzen ditu, aurrerago apirilaren 7ko 484/1995 Errege Dekretuak (BOEren 95. alea, apirilaren 21ekoa) garatu dituenak.

Ekonomia eta finantzen ikuspegitik, bi kanon sortu dira (104 eta 105. art.): bata herri-jabari hidraulikoa okupatzeagatik, erabilitako ondasunaren balioaren %4koa; bestea, isurketak egiteagatik, formula matematiko baten bitartez kalkulatu da, isurketa bakoitzak sortzen duen poluzio-kargaren arabera, koefizienteen bitartez homogeneizatua ($R \times 10^{-5} \times V \times UCR \times 10^{-5}$).

Legearen artikuluen atala zigor-erregimena arautuz amaitzen da, berak agindutakoa errespetatu eta beteko denaren berme gisa (108-113. art.).

Azkenik, aldibaterako 1, 2 eta 3. xedapenak aipatu behar dira. Xedapen hauetan, hain zuzen, indargabetzen den 1879ko Legearen indarraldian eta bere babespean jaiotako uren emakida, aprobetxamendu eta bestelako eskubideen titularren erregimen juridikoa biltzen da. Gogoan izan behar da legeria berriak urak publiko bilakatzea ezartzen duela eta, hortaz, aldatu egiten duela lehengo emakida eta aprobetxamendu-eskubideetako askoren estatus pribatiboa.

Uren Legean bildutako aurreikuspenak betez, legea garatzeko bi araudi onartu dira:

1. 849/1986 Errege Dekretua, apirilaren 11koa, Herri Jabari Hidraulikoari buruzko Araudia (aurrerantzean HJA) onartzen duena (BOEren 103. alea, apirilaren 30ekoa).
2. 927/1988 Errege Dekretua, uztailaren 29koa, Uraren Administrazio Publikoari eta Plangintza Hidrologikoari buruzko Araudia (aurrerantzean UAPA) onartzen duena (BOEren 209. alea, abuztuaren 31koa).

HJAK Legearen aurretiazko I, IV, V, VI eta VII. tituluak garatzen ditu, hainbat alderdi jorratuz: herri-jabari hidraulikoa definitu eta erabiltzearekin zerikusia duen problematika; babes-zonak eta isurketak; herri-jabari hidraulikoa erabiltzeari dagokion ekonomia- eta finantza-erregimena; eta disziplina-erregimena eta auzitegien aginpidea. Adierazi beharra dago zigor-erregimenari dagokionean martxoaren 26ko 419/1993 Errege Dekretuak (BOEren 89. alea, apirilaren 14koa) aldatu egin duela.

Bi urte beranduago, UAPAK osatu egin zuen Uren Legearen arau bidezko garapena, uraren administrazio publikoari eta plangintza hidrologikoari buruzko II eta III. tituluak jorratuz. Bereziki aipatzekoak dira bere lau eranskinak, bertan finkatzen baitira jarraian adierazitako erabileretara zuzendutako lurrazaleko urei exiji dakiekeen kalitate-mailak: edateko uren produkzioa, bainu-erabilera, arrain-espezie batzuen bizitza eta, azkenik, molusku-hazkuntza.

Adierazi beharra dago UAPAREN I. Eranskina aldatu egin zuela uztailaren 8ko 1541/1994 Errege Dekretuak (BOEren 179. alea, uztailaren 28koa) eta, orobat, otsailaren 14ko 117/1992 Errege Dekretuak (BOEren 224. alea, irailaren 18koa), autonomia-erkidegoen administrazioan gobernu zentralaren ordezkariari buruzko aipamen guztiak kenduz. Azken aldaketa hau figura horrek autonomia-erkidegoen aginpideak inbaditzen dituela aitortzen duen Konstituzio Auzitegiaren 227/1988 epaiaren ondorio logikoa eta ezinbestekoa da.

UAPA onartzen duen uztailaren 29ko 927/1988 Errege Dekretuak hainbat aginpide-gatazka positibo metatu sortu ditu, Kataluniako Generalitateko Kontseilu Exekutiboak, Kantabriako Eskualde Diputazioko Gobernu Kontseiluak eta Eusko Jaurlaritzak Konstituzio Auzitegiaren aurrean sustatu dituztenak. Gatazka hauek ekainaren 4ko 118/1998 Epaiak (BOEren 158. alea, uztailaren 3koa) erabaki ditu; epai horrek Araudiko honako artikulua hauen aplikazioan du eragina: 2-2. artikulua; 71-2. artikulua, bigarren koma-arte; 73.etik 87.era bitarteko artikulua; 89-2. artikulua; eta 90-3. zati batean eta 4.

B) KONSTITUZIO-AUZITEGIAREN 227/1998 EPAIA, UREN LEGEARI BURUZKOA

Ezinezkoa litzateke uraren erregimen juridikoa ulertzea, ezta gaingiroki ere, Konstituzio Auzitegiaren azaroaren 29ko 227/1988 epaia aztertu gabe. Izan ere, epai honek erabakitzen ditu Uren Legearen kontra formulatutako konstituziokontraktotasun-gatazka metatuak eta konstituziokontraktotasun-errekurtso horiei metatutako hainbat aginpide-gatazka, Herri Jabari Hidraulikoari buruzko Araudia onartu zuen 849/1986 Errege Dekretuaren, arroko erakundeen eta plan hidrologikoen lurralde-esparruak definitu zituen 650/1987 Errege Dekretuaren eta hondakin-urak egiteko baimenei buruzko arau osagarriak eman zituen 1986ko abenduaren 23ko Ministro-aginduaren kontra planteatutakoak. Errekurtso horiek Balear Uharteetako Gobernu Kontseiluak (59 senadore), Kantabriako Eskualde Diputazioko Gobernu Kontseiluak, Galiziako Xuntak eta Eusko Jaurlaritzak aurkeztu zituzten.

Garrantzi handiko epai hau gertaera gogoangarria da berez, zeren doktrinaren sektore garrantzitsu baten iritziz, Uren Legea eta aginpideen estatutu bidezko banaketa bera berriz interpretatzen baititu. Jarduera honen bidez, Konstituzio Auzitegiak, sistema juridiko koherentea sortu nahian, bere funtzioen muga gainditzeko inkongruentzia eta zorroztasunik ezean eroriko zatekeen.

Epai judizial honek alderdi azpimarragarriak badu, autonomia-erkidegoen aginpideei dagokiena da. Hori dela-eta, erabaki judizialak aztergai dituen arazoak aipatzea, deskribapen gisa besterik ez bada ere, ezinbesteko eginkizuna da Estatuaren eta EAeren arteko urei buruzko aginpide-banaketa ulertu ahal izateko.

Adierazi beharra dago epaiaren iruzkina esku artean dugun azterketaren gaiarekin loturik gure iritziz garrantzitsuenak diren alderdiei buruzkoa besterik ez dela, baina honek ez du esan nahi Goi Auzitegiak aztertu dituen beste alderdi batzuk gutxiesten ditugunik, izan ere azterketa sakona egiteko modukoak lirateke-eta.

Dena den, ezin dugu aipatu gabe utzi 29/1985 Legeak uraren erregimen juridikoan sartu zuen transformazio sakona, herri-jabariko ondasuntzat aitortu eta, horrenbestez, merkataritzaz kanpoko ondasun bihurtu zuenean. Horregatik, ez da harritzekoa konstituzio-egoitzan izandako eztabaidaren zati handi bat Uren Legeak Konstituzioko 33. artikuluan aitortuta dauden jabetza-eskubidea eta bere bermeak urratu ote zituen erabakitzen eman izana.

Bereziki aipatzekoa da ur-aprobetxamenduen eta estatuko herri-jabarria erabiltzeko baimenen titularren jarrera juridikoa finkatzen duten aldibaterako 1, 2 eta 3. xedapenen idazkerari buruz sortutako polemika, beren edukietan arbitrariotasuna izan litekeela eta ustez zenbait printzipio juridiko urratzen zituztela adierazi baitzuten errekurtsogileek: arauen atzeraeraginik eza, segurtasun juridikoa eta abar. Hala ere, Konstituzio Auzitegiak alderdi errekurtsogileen argudioak gaitzetsi eta agindu horien legezketasuna berretsi zuen.

Hala eta guztiz ere, ur kontinentalen titulartasun publikoa edo pribatuari buruzko eztabaida ez da berbaldi honen xedea. Beraz, arazo polemiko honen eta sorrarazi

zuen eztabaida doktrinal eta jurisprudenzialaren existentzia aipatze hutsarekin konformatuko gara.

* * *

Uren Legeak apustu irmoa egiten du plangintzaren alde, Arroko Plan Hidrologikoen bitartez garatu beharreko Plan Hidrologiko Nazionala oinarritzat duen eskema bat diseinatuz.

Antolamendua eta plangintza egiteko aginpidea Estatuko Administrazioari dagokio (Arroko Plan Hidrologikoak Ministro Kontseiluaren Errege Dekretu bidez onartzen dira), are erkidego barruko arroak, hau da, oso-osorik autonomia-erkidego baten lurraldean zehar igarotzen diren ibaibideei dagozkienak direnean ere. Kasu hauetan autonomia-erkidegoari dagokio erkidego barruko Plan Hidrologikoa lantzeko aginpidea, baina Estatuko Gobernuari dagokio plan hori onartzea, Uraren Kontseilu Nazionalak txostena eman ondoren (Uren Legeko 38-6. art.).

Hala eta guztiz ere, Konstituzio Auzitegiak argitu eta zehaztu egin du autonomia-erkidegoek idatzitako erkidego barruko arroetako Plan Hidrologikoak Estatuko Gobernuak onartzeak adierazten duen kontrol-egintza, ondokoa adieraziz: *“Inpugnatutako legezko aginduak exijitzen duen onarpenak (Uren Legeko 38-6. art.) ez du konfiguratzen autonomia-erkidegoena soilik den aginpide bat erabiltzearen gaineko kontrol-suposiziorik”* (20 e) zuzenbidezko oinarria). Lerro batzuk beherago adierazten duenez, Gobernuaren onarpen-egintza honek *“ez du autonomia-erkidegoaren borondate planifikatzailea Estatuaren borondatearekin ordezkatzeko asmorik, hura politika hidrauliko orokorraren goragoko multzoan integratzekoa baizik, gerta litezkeen disfunczioak saihestuz”*.

* * *

Ura eta ibaien ibilguak eta ubideak Estatuaren titulartasunpeko herri-jabariko ondasuntzat aitortzea ere auzitan jarri zuten konstituziokontarakotasun-errekurtsoa sustatu zuten autonomia-erkidegoek.

Zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoak argudiatu zuen oso-osorik bere lurraldean zehar igarotzen diren uren aprobetxamenduari buruzko aginpidea berea bakarrik baldin bada, berari egokitu beharko litzaiokeela ur horiek herri-titulartasunekotzat aitortu ala ez aitortzeko eta horren ondoriozko jabaria ezartzeko aginpidea, ahalmen hau haren tresna baita. Beraz, ur kontinentalak herri-jabarikotzat jotzeko erabakia ezinbestean esleitu beharko litzaieke autonomia-erkidegoei, erkidego barruko aprobetxamenduak kudeatzeko onartuta daukaten funtsezko aginpide eskusiboaren aginpide osagarria da-eta.

Hala ere, Konstituzio Auzitegiak, Euskal Autonomia Erkidegoaren interpretaziotik aldentuz, herri-jabariko bi ondasun-mota daudela ulertu zuen: batzuetan herri-jabarikoak eta bestetan pribatuak izan daitezkeenak, herri-zerbitzu bati loturik dauden ala ez kontuan hartuta; eta beste batzuk, *“beren ezaugarri naturalek definitzen dituzten ondasun-*

mota edo -kategoria generikoak direlako”, Estatuak legeen bidez, Konstituzioko 132-2. artikuluan xedatutakoa betez, Estatuaren herri-jabetzakotzat aitortu behar dituenak (antzeko zerbait gertatzen da beste ondasun-kategoria batzuekin, lurralde-itsasoarekin eta hondartzekin esate baterako).

Konstituzio Auzitegiaren iritziz, “hasiera batean bederen, ondasun baten herri-jabetza eta euskarri natural gisa erabiltzen duten herri-aginpideak bereiz daitezke. Hori dela-eta, ura eta beste ondasun batzuk estatuaren herri-jabarikotzat aitortzeko aginpidea Estuari dagokiola onartzeak ez ditu eraso edo inbaditzen erkidego barruko uren aprobetxamendu hidraulikoen gaitan autonomia-erkidegoei aintzatetsi zaizkien aginpideak. Auzitegiak gaineratzen duenez, kontrako kasuan, ez da zilegi ikusmolde patrimonialistaz baliatzea Estatuak, erkidegoen arteko herri-uren jabea delako, hauek kudeatzeko aginpideak esleituta dituela defendatzeko.

Goi Auzitegiaren iritziz, arrazoizko argudioak daude ura Estatuaren herri-jabariko ondasuntzat aitortzeko, ura oinarritzko baliabidea baita eta izaera bateratua edukitzeaz gain, ziklo hidrológico bera osatzen baitu. Aginpideen ikuspuntutik, Konstituzio Auzitegiak Estuari legeria zibilaren arloan aintzatetsitako konstituzio-tituluetan (149-1-18. art.) eta konstituzio-eskubide eta -betebeharrak betetzerakoan espainol guztien berdintasuna zehazten duten oinarritzko baldintzak zehaztekoetan (149-1-1. art.) babesten da.

* * *

Gai hidraulikoetako aginpide-banaketa zehazterakoan, lurraldeari dagokiona da mugak ezartzeko irizpide nagusia.

Konstituzioko 149-1-22. artikulua ezartzen duenez, Estatuak aginpide eskusiboa du *“baliabide eta aprobetxamendu hidraulikoen legeria, antolamendu eta emakidei dagokienez, urak autonomia-erkidego batetik baino gehiagotatik igarotzen direnean”*. *“Ura autonomia-erkidego batetik baino gehiagotatik noiz igarotzen diren”* jakiteko erreferentziat hartu behar den lurraldea zein den zehazterakoan sortzen da arazoa.

Uren 29/1985 Legeak arro hidrografikoaren irizpidea erabiltzen du, honela ulertuta: *“ubide nagusi bakarrean biltzen diren bigarren mailako ubideen sare baten bitartez itsasoratzen diren lurraldea”* (14. art.). Eta arro hidrografikoa *“baliabidea kudeatzeko unitate gisa, zatiezintzat jotzen dela”* gaineratzen du jarraian.

Eusko Jaurlaritzak, konstituziokontraktasun-errekurtsoan zioenez, aginpideen lurralde-mugaketa arro hidrografikoaren irizpidean oinarrituta ezartzea aginpide-galera izango litzateke, zeren ia arro hidrografiko guztiak autonomia-erkidego batetik baino gehiagotatik igarotzen baitira.

Argudiatzen zuenez, horren ordez Uren Legeak *“ibaibide konkretuaren”* irizpidea jaso beharko zukeen, zentzuzkoagoa zelako eta aginpide-banaketa gehiago errespetatzen zuelako. Irizpide honen arabera, autonomia-erkidegoari legokioke ibaibide edo ur-korrante baten gaineko aginpidea hau oso-osorik bere lurraldetik igarotzen denean.

Konstituzio Auzitegiak arazo honi buruzko erabakia hartu zuen, administrazio-kudeaketako arrazoi logikoak eta teknikoak direla medio eta lehenagoko administrazio-esperientziak kontuan hartuta, ibai-arroaren kontzeptua Konstituzioko 149-1-22. artikulua kontrako ez dela interpretatuz. Izan ere, Strasburgen 1967ko maiatzaren 6an onartutako Uraren Europako Gutunaren testua aipatu zuen epaian argudio gisa: “*egokiagoa litzateke baliabide hidraulikoen administrazioa arro naturalen esparruan kokatzea muga administratibo eta politikoen esparruan kokatzea baino*” (11. puntua).

Lurpeko urei dagokienez, Konstituzio Auzitegiaren iritziz hauei ere arro hidrografikoaren lurralde-irizpidea aplika dakieke. Beraz, arro hidrografikoaren gainerako zatiarekin erlaziorik ez duten lurpeko ur-masa berriztaezinak baino ez dira izango Euskal Autonomia Erkidegoaren aginpide eskusibokoak.

* * *

Ur kontinentalen gaineko aginpideak banatzeko sistemak, lurralde-irizpidea kontuan hartzeaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoak bere Autonomia Estatutuan bildutako titulu materialak hartzen ditu erreferentziatzat. Zehazki, 10-11. artikulua ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoak aginpide eskusiboa duela “*aprobetxamendu hidrauliko, kanal eta ureztatze-sailetan, urak oso-osorik Euskal Herriaren barruan igarotzen direnean*”.

Beraz, erkidego barruko urei, hots, oso-osorik Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldetik igarotzen diren arro hidrolgikoei dagokienez, aginpide autonomikoa “*aprobetxamendu hidraulikoetara*” mugatu eta, era berean, zabaltzen da.

Konstituzio-egoitzan arazo hau eztabaidatu eta “*aprobetxamendu hidraulikoaren*” kontzeptuak zer-nolako irismen eta edukia izan behar zuen erabaki beharra planteatu zuten.

Estatuko abokatuaren arabera, Konstituzioko 149-1-22. artikulua “*baliabideak*” eta “*aprobetxamenduak*” bereizten ditu eta Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak, ostera, “*aprobetxamenduak*” baino ez ditu aipatzen 10-11. artikuluan. Hori dela-eta, ondorio hau ateratzen du, hots, Euskal Autonomia Erkidegoak ez dituela bere gain hartu ur autonomikoen gaineko baliabide hidraulikoei buruzko aginpideak eta bai, ordea, aprobetxamendu hidraulikoei dagozkienak.

Alabaina, Euskal Autonomia Erkidegoaren iritziz “*aprobetxamendu*” eta “*baliabide*” hidraulikoak kontzeptu sinonimoak dira eta, horrenbestez, ez zaio inolako garrantzirik eman behar, ez eta ondorio juridikorik atera ere, Estatutuak “*aprobetxamenduak*” bakarrik aipatu eta “*baliabideak*” ez adierazteari.

Konstituzio Auzitegiak “*aprobetxamendu hidraulikoen gaiari eman behar zaion hedadura*” zein den zehazten saiatuz erabaki zuen auzia. Horretarako, aprobetxamenduaren kontzeptua herri-jabariaren kontzeptuarekin lotuta interpretatu zuen.

Uren jabari-erregimenak urak zuzenbide pribatukoez bestelako arauari loturik daudela suposatzen du, eta arau hauek bitan banatzen dira: herri-jabaria babesteko arauak eta

jabaria erabili edo aprobetxatzekoak. Horrela, bada, lehenengoak Estatuari legozkioke eta bigarrenak Euskal Autonomia Erkidegoari.

Beraz, erkidego barruko urak babesteko erregimenari buruzko arau guztiak (zortasun-zona, eraginpeko eremua eta abar) eta emakida-erregimena arautzeari dagozkionak (hauek Konstituzioko 149-1-18. artikulua araberak: administrazio-kontratu eta -emakidei buruzko oinarritzko legeria) Estatuaren aginpidekoak izango lirarteke, erkidegoen arteko urei zein autonomikoei dagokienez.

Aitzitik, Euskal Autonomia Erkidegoari legozkioke beren babes-erregimenarekin edo emakida-erregimena arautzarekin zerikusia ez duten erkidego barruko uren gaineko aginpide guztiak. Beraz Euskal Autonomia Erkidegoaren esku egongo lirarteke zentzu hertsian interpretatutako aprobetxamendu hidraulikoen arloko aginpidea ez ezik, erkidego barruko baliabideak antolatzeke aginpidea, herri-jabariaren jagoletzakoa eta beste batzuk ere.

* * *

Epai paradigmatico hau eman zenez geroztik hamar urte igaro ondoren, Konstituzio Auzitegiak beste pronuntziamendu bat eman du, 118/1998 Epaiak, ekainaren 4koa, Kataluniako Generalitateko Kontseilu Exekutiboak, Kantabriako Eskualde Diputazioko Gobernu Kontseiluak eta Eusko Jaurlaritzak UAPA onartzen duen 927/1988 Errege Dekretuaren kontra sustatu dituzten aginpide-gatazka positibo metatuak erabakitzen dituenak.

Kontuan izan behar da 227/1988 Epaiak UAPA onartu ondoren argitara eman izanak murriztu egin duela aginpide-gatazkaren esparrua. Gainera, 118/1998 Epaiaren zuzenbidezko 3. oinarrian adierazten da Konstituzio Auzitegiak ez dituela aztertuko *“Auzitegiak erabaki berri dituen eduki arau-emaileak, nahiz eta hartutako erabakiak aztergai dituen eduki horiek Uren Legean bilduta egon eta ez legea garatzeko Araudietako batean”*.

Konstituzio Auzitegiaren pronuntziamendu berriak erabat errespetatzen du Uren Legeari buruzko 227/1988 Epaiak ezarritako doktrina eta agindu batzuei buruz egindako interpretazioak zehaztu edo argitu besterik ez du egiten, ekarpen juridiko garrantzitsurik egin gabe, azterketa honi dagokionez behinik behin.

C) EUROPAKO BATASUNEN ARAUDIA ETA ESTATUAREN ANTOLAMENDU JURIDIKORAKO INKORPORAZIOA

Ingurugiroari buruzko Europako Batasuneko araudia uren arloari dagokionez hobeto ulertu eta testuinguruan kokatzeko, guztiz komenigarria da Europako Batasuneko ingurugiro-politika 1957an sortu zenetik izan duen garapenaren deskribapen azkarra egitea.

Europako Elkarreketako hiru eratze-itunetako bakar batek ere (EIAE, EURATOM eta EEE) ez zuen aipatzen ingurugiroa, beren helburua oztopoak ezabatu eta elkarrearen esparruan merkantzia eta produktuen trukea erraztea baitzen. Araudi-mailako babesik

ez zegoenez, ingurugiroarekin zerikusi zuten EEEko lehenengo ekintzek eratze-itunaren interpretazioa bortxatu behar izan zuten legezko justifikazio gisa erabiltzeko moduko berme juridiko txiki bat aurkitu ahal izateko.

Hala, konexio-puntuak bilatu ziren EEEren Itunaren hitzaurrean: “...*elkarte barruko herrien bizi- eta lan-baldintzen etengabeko hobekuntza ezartzea bere ahaleginen funtsezko helburu gisa*”. Halaber, 2. artikuluan, EEEren helburuetako bat “*elkarte osoan ekonomia-jardueren garapen harmoniatsua, zabalkuntza etengabea eta orekatua...*” sustatzea dela adierazten duenean.

2. artikuluko helburuak 100 eta 235. artikuluekin loturik modu zabalean interpretatuz, Europako Elkartek ingurugiro-edukiak zituzten arteztarauak onartu ahal izan zituen. Dena den, estatu elkartekideen aldeko jarrera erabakigarria izan zen, ez baitzuten inoiz zalantzan jarri EEEk ingurugiroa babesteko bere politika aurrera eraman zezakeenik, eta halaxe egin zuten.

Azpimarratzeko moduko gertaera garrantzitsua izan zen 1972ko azaroaren 22an onartu zen Ingurugiroko Lehen Programa; horretarako, EEEko Kontseiluak eta herrialde elkartekideetako Estatu-buruek eta Gobernu-buruek batera egindako deklarazioaren formula erabili zuten. Deklarazioaren testuan aipatzen zutenez, ekonomia-zabalkuntza ez da helburua berez eta “*arreta berezia emango zaio ingurugiroaren babesari*”.

Hauxe da 1986ra arteko egoera orokorra. Urte honetako otsailaren 17an, Luxenburgon Europako Akta Bakarra sinatzen dutenean, VII. Titulua txertatzen dute, 3. zatia, Ingurugiroaren gaineko EEEko politikari buruzkoa (130 R artikulutik 130 T artikulura).

130-R-1 artikulua elkartearen ekintzetarako espazio zabal bat diseinatzen du. Honi esker, beste hainbat konturen artean, ez da 235. artikulura jo behariko arteztarauak onartzeko:

“Ingurugiroaren kalitatea kontserbatu, babestu eta hobetzea; pertsonen osasuna babesteko lan egitea; giza baliabideen erabilera zuhurra eta zentzuzkoa bermatzea”.

Elkartearen ekintzaren subsidiarotasunaren printzipioari eusten zaio oraindik ere, hots, “*1. atalean aintzat hartutako helburuak elkartearen mailan estatu elkartekideen mailan baino baldintza hobetan lor daitezkeenean*” jardungo da (130-R-4 art.). Hala eta guztiz ere, ez da mugatzen EEEren eta estatu elkartekideen arteko ingurugiroaren arloko aginpidea.

Maastricht 1992ko otsailaren 7an Europako Batasuneko Ituna sinatzen dutenean, aldaketak sartzen dituzte ingurugiroan eragina duten arauak onartzeko prozeduretan. Itunaren berehalako ondorio gisa, guztien adostasuna desagertu egiten da hertsiki ingurugiroari buruzkoak diren arauak onartzeko betekizun edo baldintza gisa, 130-S-2 artikuluan aurreikusitako neurrien esparru txikirako izan ezik.

Itunak bultzada handia eman zion Batasunaren ekintzari, oparotasunez hornitu baitzuen Egitura Fondoaren artean barne hartutako Kohesio Fondoak. Kohesio Fondo hau elkarteko batez bestekoaren %90etik beherako per capita errenta duten herrialdeetan ingurugiro-

inbertsioak finantzatzera zuzentzen da; Espainia herrialde hauen artean dago. Erabaki honekin EEEk hautsi egiten du herrialde hauetarako estatu elkartekideek burutu beharreko ingurugiro-politika ez finantzatzeko politika tradizionala, poluitzen duenak ordaindu behar duelako irizpide ekonomikoa elkarlearen esparruan aplikatzearen ondorio dena, ingurugiro-inbertsioak autofinantzatu ahal izateko. Horren erakusgai da ondoko datua: 1994-1999 denboraldirako gutxi gorabehera 8.000 ecu konprometitu dira 1994ko preziotan, ingurugiro-inbertsioetara zuzentzeko egitura-fondoan eskualde-helburu desberdinen arabera.

Eratze-itunen azkeneko aldaketa 1997ko urriaren 2an sinatutako Amsterdameko Itunak ekarri du, baina bertan ez da funtsezko aldaketarik sartu uren ingurugiro-babesari dagokionez. Arauak lantzeko prozesuan sartutako aldaketa askoz ere garrantzitsuagoa da, izan ere Europako Parlamentuari elkarteko arteztarauen gaineko baterako erabakiak hartzeko ahalmena ematen baitio ia.

Esku artean dugun gai zehatzaren hariari helduz, kontuan izan behar da ur kontinentalen poluzioaren kontra borrokatzeko elkarlearen neurriez hitz egitean EEEren ingurugiroari buruzko politikaren esparru zahar eta boteretsuena aipatzen dugula. Aski da Uraren Europako Gutuna 1968koa dela gogora ekartzea, urte horretako maiatzaren 6an egin zuten Strasburgeko Ministro Kontseiluan onartu zuten hain zuzen ere.

Ingurune urtarrari buruzko elkarlearen politika argi eta garbi bereizitako bi etapa arau-emaitan garatu da. Lehen fasean, 70eko hamarkadan hasitakoan, EEEk uren erabileraren araberrako kalitate-helburuak finkatzea eta substantzia toxikoen emisioak kontrolatzea ditu eginkizun nagusizat.

Frankfurten 1988an egindako ministro-seminarioak bigarren faseari ematen dio hasiera. Fase honetan, poluzioaren kontrako borrokaren tradiziozko ikusmolde konbinatuari eutsiz (poluzioaren kontrako borroka jatorrian eta uren kalitatea bermatuz), bereziki azpimarratzen da isurketen kontrola eta, bestalde, arauen gehiegizko barreiadurari mugak jartzeko premia, horretarako ordurarte indarrean zeuden arau gehienak era koherentean integratzea ahalbidetuko zuten arteztarau berriak landuz. Lehen helburuaren adibide garbia da 91/271/EEE Arteztaraua (L135 EO, maiatzaren 30ekoa), hondakin-uren bilketa eta tratamenduari buruzkoa, eta bigarren helburuarena 96/61/EEE Arteztaraua, poluzioaren prebentzio eta kontrol integralari buruzkoa.

Elkarteko urak babesteko ingurugiro-arloko **politika arau-emaitaren lehen** fase hau argiago azaldu eta hobeto ulertzeko, xedapen arau-emaitak hiru epigrafe edo multzotan bil daitezke:

1. Uretan isurtzen diren substantzia poluitzaileak kontrolatzea.
2. Erabilera jakin batzuetara (kontsumoa, bainua, hornidura eta abar) zuzenduko diren urei gutxieneko kalitate-betekizunak ezartzea.
3. Isuriko diren produktu konkretuen produkzio- edo erabilera-baldintzak kontrolatzea.

Arloko politika hauekin batera eta uraren kalitateari buruzko arteztarau desberdinak beteko direla kontrolatu ahal izateko, EEEk neurketak egiteko metodo eta prozesu bateratuak eta informazioa trukatzeko sistemak ezarri dituzte pixkanaka.

Arteztarauen **lehen multzoari** dagokionez, 76/464/EEE Arteztarau Markoa azpimarra daiteke, maiatzaren 4koa (L129 EO, maiatzaren 18koa), Elkartearen ingurune urtarrean isuritako substantzia arriskutsu jakin batzuek eragindako poluzioari buruzkoa, Ingurune Urtarrari buruzko Arteztarau Marko izenaz ezagutzen dena. Berau garatzeko eta eredu bera kopiatuz, 80/68/EEE Arteztaraua onartu zen, abenduaren 17koa (L20 EO, 1981eko urtarrilaren 26koa), lurpeko urak substantzia arriskutsu jakin batzuek eragindako poluzioaren kontra babesteari buruzkoa.

Arteztarau Markoak produktuen bi zerrenda biltzen zituen, beren osagaien toxikotasun handiago edo txikiagoaren arabera, elkarteko hizkeran zerrenda beltza eta zerrenda grisa ezagutzen zirenak. Produktu hauetako edozein isurtzeko estatu elkartekideen alde aurreko administrazio-baimena behar zen eta arteztarau markoak I. zerrendako produktuek bete behar zituzten gutxienerako balioak finkatu zituen, estatu elkartekideek erabakitzeko utziz II. zerrendako gutxienerako parametroak finkatzeko aukera.

Hala eta guztiz ere, azkeneko produktu hauei zegokienez, Arteztarau Markoaren 7. artikulua uren poluzioa murrizteko programak ezartzera behartzen zituen estatu elkartekideak. Gainera, programa horien onarpen eta aplikazioaren berri eman behar zioten Batzordeari.

I. eta II. zerrenda horiek Herri Jabari Hidraulikoari buruzko Araudia onartu zuen apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretuaren eranskinean bildu ziren. Hala ere, Estatu espainolak ez zuen onartu II. zerrendako aginduzko programak ezartzeko inolako xedapenik, eta Arroko Plan Hidrologikoetara igorri zuen horien zehaztapena, beste edozein eduki bailiren.

Arroko Plan Hidrologikoak 1998ko uztailaren 24ra arte (1664/1998 Errege Dekretua) onartu ez direnez gero, Espainia EEE-etara inkorporatu zenez geroztik 12 urte igaro ondoren, EEE-etako Justizia Auzitegiak, seigarren sailak, epaia eman du 1998ko azaroaren 25ean, honako hau erabakiz:

“1) Deklaratzea Espainiako Erresumak ez dituela bete Elkartearen ingurune urtarrean isuritako substantzia arriskutsu jakin batzuek eragindako poluzioari buruzko 1976ko maiatzaren 4ko Kontseiluaren 76/464/EEE Arteztarauko 7. artikulua arabera dagozkion betebeharrak, ez baititu ezarri ur kontinentalen eta lurraldeko itsas uren poluzioa murrizteko Arteztarau horren II. zerrendako substantziei dagozkien programak.

2) Espainiako Erresuma kostuetara kondenatzea.”

76/464/EEE Arteztarau Markoa aldatu egin dute 90/656/EEE Arteztarauak, abenduaren 4koak (L353 EO, abenduaren 17koa) eta 91/692/CEE Arteztarauak, abenduaren 23koak (L377 EO, abenduaren 31koa).

Elkartearen ekintza-lerro honen bidez arautu edo erregulatu diren isurkiak honako hauek dira:

1. Merkurioa: 82/176/EEE Arteztaraua, martxoaren 22koa (L81 EO, martxoaren 27koa) eta 84/156/EEE Arteztaraua, martxoaren 8koa (L47 EO, martxoaren 17koa). Legeriarako egokitzapena: 1987ko azaroaren 12ko Ministro Agindua (BOEren 280. alea, azaroaren 23koa).
2. Kadmioa: 83/513/EEE Arteztaraua, irailaren 26koa (L291 EO, urriaren 24koa). Legeriarako egokitzapena: 1987ko azaroaren 12ko Ministro Agindua.
3. Hexakloroziklohexanoa: 84/491/EEE Arteztaraua, urriaren 9koa (L274 EO, urriaren 17koa). Legeriarako egokitzapena: 1987ko azaroaren 12ko Ministro Agindua.
4. DDT, pentaklorofenola eta karbono tetrakloruroa: 86/280/EEE Arteztaraua, ekainaren 12koa (L81 EO, uztailaren 4koa). Legeriarako egokitzapena: 1987ko azaroaren 12ko Ministro Agindua.
5. Aldrina, dieldrina, endrina, isodrina, hexaklorobentzenoa (HCB), hexaklorobutadienoa eta kloroformoa: 88/347/EEE Arteztaraua, ekainaren 16koa (L158 EO, ekainaren 25koa). Legeriarako egokitzapena: 1989ko martxoaren 13ko Ministro Agindua (BOEren 67. alea, martxoaren 20koa).

Adierazi beharra dago 1987ko azaroaren 12ko Agindua aldatu eta osatu egin dutela geroago eman diren beste ministro-agindu batzuek:

- Agindua, 1989ko martxoaren 13koa, aplikazio-esparrua isurki jakin batzuen osagai izan daitezkeen beste substantzia kaltegarri edo arriskutsuetara zabaltzen duena (BOEren 67. alea, martxoaren 20koa).
- Agindua, 1991ko otsailaren 27koa, isurkietan dauden substantzia kaltegarri edo arriskutsuei, batez ere hexakloroziklohexanoari dagozkieni buruzko isurketa-arauak, kalitate-helburuak eta erreferentziazko neurketa-metodoak ezarri zituen Aginduaren V. eranskina aldatzen duena (BOEren 53. alea, martxoaren 2koa).
- Agindua, 1991ko ekainaren 28koa, 1987ko azaroaren 12ko Aginduaren aplikazio-esparrua isurki jakin batzuen osagai izan daitezkeen beste substantzia kaltegarri edo arriskutsuetara zabaltzen duena (BOEren 162. alea, uztailaren 8koa).
- Agindua, 1992ko maiatzaren 25koa, isurkietan dauden substantzia kaltegarri edo arriskutsuei buruzko isurketa-arauak, kalitate-helburuak eta erreferentziazko neurketa-metodoak ezarri zituen 1987ko azaroaren 12ko Agindua aldatzen duena (BOEren 129. alea, maiatzaren 29koa).

Elkartearen **bigarren** ekintza-lerroa, arestian adierazi dugun bezala, uren kalitatea beren erabileraren arabera kontrolatzera zuzendu da. Zehazki, honako erabilera hauek arautu dira:

1. Gizakiek kontsumitzeko urak:
 - 1.1. Ur sendagarriak eta ur mineral naturalak: 80/777/EEE Arteztaraua, uztailaren 15koa (L229 EO, abuztuaren 30koa), honako arteztarau hauek aldatu dutena: 80/1276/EEE, abenduaren 22koa (L375 EO, abenduaren 31koa);

85/7/EEE, abenduaren 19koa (L2 EO, 1986ko urtarrilaren 3koa); eta 96/70/EEE, urriaren 28koa (L299 EO, azaroaren 23koa). Legeriarako egokitzapena: 1164/1991 Errege Dekretua, uztailaren 22koa (BOEren 178. alea, uztailaren 26koa), 781/1998 Errege Dekretuak, apirilaren 30ekoak (BOEren 121. alea, maiatzaren 21ekoa) puntualki aldatu duena.

1.2. Biztanleria hornitzera zuzendutako urak: 75/440/EEE Arzteztaraua, uztailaren 16koa (L194 EO, uztailaren 25ekoa), honako arzteztarau hauek aldatu dutena: 79/869/EEE, urriaren 9koa (L271 EO, 1979ko urriaren 29koa); 90/656/EEE (L353 EO, 1990eko abenduaren 17koa); eta 91/692/EEE, abenduaren 23koa (L377 EO, 1991ko abenduaren 31koa). Legeriarako egokitzapena: 927/1988 Errege Dekretua, uztailaren 29koa, UAPA onartzen duena (1. Eranskina). Urtegiatako uren kalitatean zuzeneko eragina duenez, aurrerako zehazkiago aztertuko dugu beste atal batean.

1.3. Kontsumo publikora zuzendutako edateko urak: 80/778/EEE Arzteztaraua, uztailaren 15ekoa (L229 EO, abuztuaren 30ekoa), honako arzteztarau hauek aldatu dutena: 81/858/EEE, urriaren 19koa (L319 EO, 1981eko azaroaren 7koa); 90/656/EEE (L353 EO, 1990eko abenduaren 17koa); 91/692/EEE, abenduaren 23koa (L377 EO, 1991ko abenduaren 31koa); eta, azkenik, 98/83/EEE Arzteztarauak, azaroaren 3koak (L330 EO, abenduaren 5ekoa), 80/778/EEE Arzteztaraua indargabetu egin du indarrean jarri zenetik bost urte igarotakoan. Legeriarako egokitzapena: 1138/1990 Errege Dekretua, irailaren 14koa (BOEren 226. alea, irailaren 20koa), Kontsumo Publikoko Edateko Uren Hornidura eta Kontrolerako Araudi Tekniko-sanitarioa onartzen duena; 1983ko uztailaren 27ko Agindua (BOEren 193. alea, abuztuaren 13koa), analisi mikrobiologikoak egiteko metodoei buruzkoa; eta 1987ko uztailaren 1eko Agindua (BOEren 163. alea, uztailaren 9koa), analisi fisiko-kimikoak egiteko metodoei buruzkoa. Aipatu beharra dago Euskal Autonomia Erkidegoak, erkidego barruko osasun-arloan duen aginpidea betez, 353/1987 Dekretua onartu du, azaroaren 10ekoa, Kontsumo publikoko edateko urak kontrolatu eta zaintzeko sarea ezartzen duena (EHAAren 221. alea, azaroaren 23koa). Dekretu honetako 13-3. artikulua irailaren 19ko 210/1989 Dekretuak (EHAAren 190. alea, urriaren 9koa) aldatu zuen.

80/778/EEE Arzteztarauarekin loturarik ez duten arren, aipatzekoak dira, kontsumo publikoko edateko urari buruzko xedapen autonomiko bakarrak direlako, 49/1988 Dekretua, martxoaren 1ekoa, kontsumo publikoko edateko uren fluorazioari buruzkoa (EHAAren 53. alea, martxoaren 16koa) eta 1988ko ekainaren 28ko Agindua, Osasun eta Kontsumo sailburuarena, goian adierazitako 49/1988 Dekretua garatzen duena. Osasun-politika uren fluorazioaren bitartez garatzea dute helburu, hortzetako txantxarra prebenitu ahal izateko.

Bai informazioa trukatzeko prozedura komunaren diseinua, bai lurrazaleko ur kontinentalen kalitatea kontrolatzeko metodoen homogeneousazioa, ekainaren 16ko 75/440/EEE Arzteztarau Markoaren (L194 EO, 1975eko

uztailaren 25ekoa) eta urriaren 9ko 79/869/EEE Arzetarauaren (L271 EO, urriaren 21ekoa) bitartez egin da. Azken arzetarau hau aldatu egin dute 81/855/EEE, 90/656/EEE eta 91/692/EEE Arzetarauak. Araudi hau 1988ko otsailaren 8ko Aginduak (BOEren 53. alea, martxoaren 2koa) egokitu du Espainiako legeriara.

2. Arrainak bizitzeko eta molusku-hazkuntzarako urak: 78/659/EEE Arzetaraua, uztailaren 18koa (L222 EO, abuztuaren 14koa) espezie salmonikola eta ziprinikolei buruzkoa, 90/656/EEE eta 91/692/EEE Arzetarauak aldatu dutena; eta 79/923/EEE Arzetaraua, urriaren 30ekoa (L281 EO, azaroaren 10ekoa) molusku-hazkuntzari buruzkoa. Bi arzetarauen legeriarako egokitzapena: 927/1988 Errege Dekretua, uztailaren 29koa, UAPA onartzen duena (III eta IV. Eranskinak) eta 1988ko abenduaren 16ko Agindua (BOEren 306. alea, abenduaren 22koa) neurketa-metodoei dagokienez, eta 38/1989 Errege Dekretua, urtarrilaren 13koa (BOEren 17. alea, urtarrilaren 20koa).
3. Bainatzeko urak (igerilekuak izan ezik): 76/160/EEE Arzetaraua, 1975eko abenduaren 8koa (L31 EO, otsailaren 5ekoa), 90/656/EEE eta 91/692/EEE Arzetarauak aldatu dutena. Legeriarako egokitzapena: 927/1988 Errege Dekretua, uztailaren 29koa, UAPA onartzen duena (II. Eranskina) eta 734/1988 Errege Dekretua, uztailaren 27koa.

Estatu elkartekideek Batzordeari igorri beharreko txostenen edukia eta maiztasuna eta beren normalizazioa eta razionalizazioa 91/692/EEE Arzetarauak, abenduaren 23koak (L377 EO, abenduaren 31koa), arautu du.

Arzetarauen **hirugarren** eta **azken** multzoak isuri behar diren produktuen produkzioan edo erabileran bete behar diren baldintza teknikoen kontrola du aztergai. Ekintza-lerro honek merkatu librean zuzen-zuzeneko eragina duenez gero, eztabaida ugari sortu du eta, horren ondorioz, orain arte puntualki baino ez da garatu.

Politika honen adierazgarri gisa, aipatu beharra dago 80/68/EEE Arzetaraua, 1979ko abenduaren 17koa (L20 EO, urtarrilaren 26koa), titanio dioxidoaren fabrikazioa aztergai duena, 90/656/EEE eta 91/692/EEE Arzetarauak aldatu dutena.

Aipatzekoak dira, halaber, 73/404/EEE eta 73/405/EEE Arzetarauak, azaroaren 22koak (L347 EO, abenduaren 17koa), detergenteen biodegradagarritasunari eta beren neurketa-metodoari buruzkoak, 82/242/EEE eta 82/243/EEE Arzetarauak, martxoaren 31koak (L109 EO, apirilaren 22koa), aldatu dituztenak hurrenez hurren. Espainian urriaren 13ko 2816/1983 Errege Dekretuaren bidez (BOEren 270. alea, azaroaren 11koa) inplementatu dira.

Azkenik, berriz aipatu behar dugu 80/68/EEE Arzetaraua (1979ko abenduaren 17koa). Izan ere, titanio dioxidoaren fabrikazioa arautzeaz gainera, lurpeko urei esleia dakizkiekeen isurketen kontrolak eta parametroak ezartzen ditu, ordurarte 76/464/EEE Arzetarau Markoa aplikatzen zitzaizkien. UAPAREN III. tituluko eranskinaren bitartez (256.etik 258.era bitarteko artikulua) egokitu da Espainiako legeriara.

Lehen aurreratu dugun bezala, jarraian zehaztasun handiagoz aztertuko dugu **75/440/EEE Arzteztarauak, ekainaren 16koak (L194 EO, uztailaren 25ekoa), biztanleria hornitzera zuzendutako uren kalitateari buruzkoak**, arautzen duena. Izan ere, biztanleria hornitzeko edateko uraren produkziara zuzendutako lurrazaleko ur kontinentalak izan behar duen gutxieneko kalitatea arautzen du, eta hauxe izango litzateke Zadorra sistemako urtegieta uren kasua.

Barne-antolamendu juridikorako inkorporazioa UAPA onartzen duen uztailaren 29ko 927/1988 Errege Dekretuaren bidez egin da zati batean, I. Eranskinean erabilera horretara zuzendutako ur-masei aplikatu dakizkiekeen gutxieneko parametroak jasotzen baititu, baina batez ere Herrilan eta Hirigintza Ministerioaren 1988ko maiatzaren 11ko Aginduaren bitartez (BOEren 124. alea, maiatzaren 4koa).

Hala ere, Europako Elkartetako Batzordeak ulertu zuen, 1988ko maiatzaren 11ko Aginduak, bere idazkeraren termino gramatikalak kontuan hartuta, ur-korronteak eta ibaiak bakarrik zituela aztergai eta bere aplikazio-esparrutik kanpo uzten zituela lakuak, aintzirak, zingirak edo urtegiak; interpretazio honetan oinarrituta, irizpena eman zuen EEEko Itunaren 169. artikulua babespean, Espainiako xedapena elkartekoari egoki zekion eskatuz. Honen ondorioz, Herrilan eta Hirigintza Ministerioak Agindua eman zuen 1990eko urriaren 15ean (BOEren 254. alea, urriaren 23koa), 1988ko maiatzaren 11ko Aginduaren idazkera aldatu zuena, *“edateko uren hornidurara zuzendutako aprobeixamenduak dauden urtegiak edo zingirak, naturalak zein artifizialak, edo lakuak, aintzirak edo urmaelak”* barne hartuz.

Halaber, 1988ko maiatzaren 11ko Aginduaren bigarren aldaketa bat aipatu behar da, Herrilan, Garraio eta Ingurugiro Ministerioaren 1994ko azaroaren 30eko Aginduaren bitartez (BOEren 298. alea, abenduaren 14koa) egin zena. Aldaketa honen helburua adierazitako Agindua uztailaren 8ko 1541/1994 Errege Dekretuak (BOEren 179. alea, uztailaren 28koa) egindako UAPAREN aldaketara egokitzea zen, 75/440/EEE Arzteztarauak 8. artikuluan biltzen zituen suposizioetan plan hidrologikoek ezarritako gutxieneko kalitate-mailak betetzetik salbuesteko aukera txertatu baitu.

Planteamendu arau-emaileak helburu operatibo argia dauka. Biztanleria hornitzera zuzendutako urak hiru multzo edo kategoriatan banatzen ditu (A1, A2 eta A3), 1988ko maiatzaren 11ko Aginduaren II. Eranskinean dauden taulen arabera biltzen dituzten ezaugarri fisikoak, kimikoak eta biologikoak kontuan hartuta. A1 motako urei, kalitate handienekoei, tratamendu fisiko sinplea eta desinfekzioa egokituiko zaie; A2 motakoei tratamendu fisiko arrunta, tratamendu kimikoa eta desinfekzioa; azkenik, A3 motakoei tratamendu fisiko eta kimikoa, zehaketa eta desinfekzioa egokituiko zaie. Hau kontuan izanik, era berean, A3 motako gutxieneko kalitate-balio fisiko, kimiko eta biologikoak biltzen ez dituzten urak ezin izango dira biztanleria hornitzeko erabili.

Konfederazio Hidrografikoek erabakiko dute hornidurarako ur-hartune baten aldamenen dagoen ibaitarte edo ur-masa bakoitza zein multzotan dagoen bere kalitatearen arabera. Honek, era berean, eragina izan behar du arroko erakundeek berek ematen dituzten isurketa-baimenetan, ur horien kalitate-baldintzetan eraginik izan ez dezaten ahaleginduz.

Halaber, uren kalitatea neurtzeko metodoa ezartzen da, 1988ko otsailaren 8ko Agindura igorri (BOEren 53. alea, martxoaren 2koa). %10erainoko portzentaian laginak II. eranskinak adierazitako derrigorrezko balioetara ez egokitzeko aukera izatea onartzen da, betiere osasun publikorako arriskurik ez badago.

Azkenik, 1988ko maiatzaren 11ko Aginduak, adierazitako 1994ko azaroaren 30eko Aginduak egindako aldaketaren bitartez, kasuan kasuko administrazio hidrauliko aginpidedunak denboraldi jakin batean gutxieneko parametroak ez aplikatzeko erabakia ezohiko zein suposiziotan har dezakeen zehazten du. Ezohiko suposizio hauek uholdeak, hondamendi naturalak, baldintza geografiko edo meteorologiko bereziki txarrak eta abar izan daitezke.

Kalitateko parametro fisiko, kimiko eta biologikoak betetzeaz hitz egiten badugu, ukazina da neurketa-metodoek eta laginketa eta analisisien maiztasunak garrantzi handia hartzen dutela. Alderdi hauek arestian adierazitako Herrilan eta Hirigintza Ministerioaren 1988ko otsailaren 8ko Aginduak arautu ditu.

Harrigarria bada ere, Eusko Jaurlaritzak errekurtsioa jarri zuen Agindu honen kontra Konstituzio Auzitegiaren aurrean. Hain zuzen ere, 1187/1988 aginpide-gatazka positiboa sustatu zuen 2, 4 eta 6. artikuluen kontra, urriaren 31ko 208/1991 Epaia erabaki zuena. Harrigarria dela diogu ez delako ohikoa ministerioen aginduak bezalako maila apalagoko xedapen arau-emileen kontra konstituzio-egoitzan errekurtsioa jartzea.

Eusko Jaurlaritzak argudiatzen zuen biztanleria hornitzera zuzendutako uren kontrolak eta analisiak zirenez gero, agindu hori barne-osasuneko aginpide-kategorian kokatu beharko litzatekeela (EHAeko 18-1. art.) eta, horrenbestez, administrazio autonomikoaren menpeko erakundeek izan beharko luketela analisi horiek egin eta laginak hartzearen ardura, nahiz eta ministerioaren aginduan Estatuko Administrazioa bakarrik aipatu.

Estatuko abokatuak, bestalde, baliabide hidrauliko baten aprobetxamendua zenez gero, aginpide hori erkidegoen arteko arroen kasuan Estatuko Administrazioari egokitu beharko litzaikeela ulertzen zuen (Konstituzioko 149-1-22. art.).

Konstituzio Auzitegiak ondokoa zioen zuzenbidezko 4. oinarrian:

“Argudiatzen diren tituluen aurrean, adierazi beharra dago azken honekin bat etorri, hasiera batean bi edo hirutan koka daitekeen gai bati zein titulu aplika dakioken zehazteko, auzitan jarritako xedapenaren berariazkotasun eta helburu nagusiaren irizpideak erabakigarri bihurtzen direla errekurtsioaren xede den aginpidea esleitzeko. Adierazi behar da, halaber, lehen irizpidearen aplikazio gisa, baliabide eta aprobetxamendu hidraulikoei dagokien aginpide-titulua, urek izan ditzaketan erabilera eta helburu ugarien artean, aprobetxamendu jakin batean nagusitzen dena edo lehentasunezkoa dena gizakien kontsumoa bada, ondorioztatzea beharra dago kontsumo horretarako beharrezkoa den osasun-kontrolak behar adinako berariazkotasun eta garrantzia duela osasunari buruzko aginpide-

tituluen barruan kokatzen den suposizio baten aurrean gaudela pentsatzeko. Hori dela-eta, kontrol horri dagokionez, oinarrizko ahalmen arau-emaileak Estatuari legezkieke eta garapena eta burutzapena Euskal Autonomia Erkidegoari”.

Konstituzio Auzitegiak ondokoa deklaratu zuen: “*Euskal Autonomia Erkidegoari dagokiola Herrilan eta Hirigintza Ministerioaren 1998ko otsailaren 8ko Aginduko 2, 4 eta 6. artikuluetan aurreikusitako funtzioak burutzeko aginpidea”.*

* * *

1988tik aurrera hasten da ingurune urtarrari buruzko elkartearen politika arau-emailearen **bigarren fasea**. EEEk bazekien arteztarau arautzaileak ugaritzea, gehienak puntualak gainera, ez zela ingurugiroa kudeatzeko legegintzako politika egokia, ezta onuragarria ere. Askoz ere egokiagoak ziren zeharo barreiatuta zegoen araudiaren zati handi bat lekutu eta ordezkatzeko aukera emango zuten araudi koordinatzaile eta integratzaileak. Horrez gain, garrantzi handia eman zitzaion poluzioa ubideetarako isurketak arautuz kontrolatzeari. Hauexek dira bigarren garai honetako zedarrak arau-emaile nagusiak:

1. 91/271/EEE Arteztaraua, maiatzaren 21ekoa (L135 EO, maiatzaren 30ekoa), hiriko hondakin-uren tratamenduari buruzkoa.
2. 91/676/EEE Arteztaraua, abenduaren 12koa (L375 EO, abenduaren 31koa), nekazaritzan sortutako nitratoek eragindako poluzioari buruzkoa.
3. 96/61/EEE Arteztaraua, irailaren 24koa (L257 EO, urriaren 10ekoa), poluzioaren prebentzio eta kontrol integralari buruzkoa.
4. Uraren politikari buruzko Arteztarau Markoaren Proposamena.

1. 91/271/EEE ARTEZTARAUA, HIRIKO HONDAKIN-UREN TRATAMENDUARI BURUZKOA

91/271/EEE Arteztarauak, maiatzaren 21ekoak, hiriko hondakin-uren tratamendua arautzen du eta abenduaren 28ko 11/1995 Errege Dekretu Legearen (BOEren 312. alea, abenduaren 30ekoa) bitartez inkorporatu da barne-antolamendu juridikora; azken hau, era berean, martxoaren 15eko 509/1996 Errege Dekretuak (BOEren 77. alea, martxoaren 29koa) garatu du.

Zona sentikorretan hiriko hondakin-uren tratamenduetatik datozen isurkiei aplikatu beharreko parametro berriak ezartzen dituen otsailaren 27ko 98/15/EEE Arteztarauak (L67 EO, martxoaren 7koa) beranduago sartutako aldaketa puntuala urriaren 2ko 2116/1998 Errege Dekretuak (BOEren 251. alea, urriaren 20koa) egokitu du Estatu legeriara.

Araudi honek orokortu egiten du hala hiriko hondakin-urak bildu eta eramateko kolektoreak instalatzeko betebeharra nola ur horiei araztegi batean bigarren mailako tratamendua emateko betebeharra.

Estatu elkartekide guztiek betebeharrak hauek betetzeko epe batzuk jarri dira hirigune edo hiri-aglomerazio bakoitzak dituen biztanle-baliokideen (b-b) arabera (karga organiko

biodegradagarriaren arabera kalkulatzen dira, eguneko 60 gramo oxigenoko bost eguneko oxigeno-eskari biokimikoarekin (DBO₅):

HIRIGUNEA	TRATAMENDUA	URTEA
1. 15.000 b-b baino gehiago:.....	bigarren mailakoa	2001
2. 2.000 eta 15.000 bitarteko b-b:.....	bigarren mailakoa	2006
3. 10.000 b-b baino gehiago zona sentikorretan:...	hirugarren mailakoa	1999
4. Itsasora isurtzen diren 10.000 b-b baino gehiago eta 2.000 b-b baino gutxiago:.....	egokia	2006

Industriako hondakin-urek, bestalde, sistema kolektore batera edo araztegiko instalazioetara isuri aurretik, kaltegarriak ez direla bermatzera zuzendutako gutxieneko betekizunak bildu behar dituzte, eta kaltegarriak ez izatearen baldintza hori betetzen ez badute alde aurreko tratamendua eman beharko zaie (509/1996 Errege Dekretuko 8. art.).

Bigarren mailako tratamendua bigarren mailako sedimentaziodun tratamendu biologikoa barne hartzen duena da. Jariatzen diren urek 509/1996 Errege Dekretuaren I. eranskinak bi suposizioetarako adierazten dituen kontzentrazio-balioak edo erredukzio-portzentaia bete behar dituzte.

Tratamendu egokiari dagokionez, honela definitzen da: “*hiriko hondakin-urak edozein ezabaketa-prozesu edo -sistemaren bitartez tratatzea, ur hartzaileek isurketa egin ondoren aplikagarria den antolamendu juridikoan aurreikusitako kalitate-helburuak bete ditzaten*” (11/1995 Errege Dekretu Legeko 2-i) art.).

Zeharo interesgarri da 509/1996 Errege Dekretuaren II. eranskinak adierazten dituen betekizunak biltzen dituzten ingurune urtar jakin batzuk “zona sentikortzat” aitortzeko aukera. Izan ere, a)-1. atalean interpretazio-ahalegin handirik egin gabe identifika daitezke Zadorra sistemako urtegiak:

“Eutrofikoak diren edo babes-neurriak hartzen ez badira etorkizun hurbilean eutrofikoak izatera irits litezkeen lakuak, aintzirak, urtegiak, estuarioak eta itsas urak. (“Eutrofizazioztat” ulertuko da uretako nutriente-kopurua handitzea, nitrogeno- edo fosforo-konposatuena batik bat, alga eta goragoko landare-espezieen hazkunde bizkorra eragiten duena, uretan dauden organismoen arteko orekan eta eraginpean hartzen duen uraren kalitatean nahaste ezatseginak sortzen dituen).

Tratamendu gehigarri baten bidez erreduzitu behar den nutrientearen kontsiderazioan honako elementu hauek kontuan hartu ahal izango dira:

1. Lakuak eta laku, aintzira, urtegi eta ur-truke urria duten eta, horrenbestez, metaketa gerta daitekeen badia itxietan isurtzen diren ibaibideak. Zona horietan fosforo-ezabaketa aurreikustea komeni da, ezabaketa horrek eutrofizazio-mailan ondoriorik izango ez duela

frogatzen ez bada behintzat. Halaber, nitrogenoa ezabatzea kontuan hartu ahal izango da hiri-aglomerazio handietatik isurketak egiten direnean”.

Alderdi formalari dagokionez, Estatuko Administrazioari dagokio erkidegoen arteko arrotan “zona sentikorren” aitortpena egitea, autonomia-erkidegoei kontsulta egin ondoren (11/1995 Errege Dekretu Legeko 7-3. art.). Beraz, Ingurugiro Ministerioa izango litzateke Zadorra sistemako urtegiei buruzko “zona sentikorren” aitortpen hipotetiko bat onartzeko erakunde aginpideduna eta aitortpen hori, era berean, Ebroko Plan Hidrologikoan jaso beharko litzateke.

Erkidegoen arteko arro hidrografikoetako “zona sentikorren” aitortpena Ur eta Kostaldean Estatuko Idazkaritzak egin du 1988ko maiatzaren 25eko erabakiaren bitartez (BOEren 155. alea, ekainaren 30ekoa), eta Zadorra sistemako urtegiak ez dira bertan barne hartu.

“Zona sentikorren” aitortpenak konexio bidez zona horien poluzioa areagotu lezaketen hiriguneak eraginpean hartzeko birtualtasuna izango luke (11/1995 Errege Dekretu Legeko 6-3. art.).

Eremu jakin bat “zona sentikortzat” aitortzearen ondorio praktiko gisa, hiriko hondakin-urak tratatzeko instalazioek bigarren mailakoa baino tratamendu zorrotzagoa aplikatu beharko diete urei; tratamendu honen parametroak 509/1996 Errege Dekretuaren I. eranskineko 2. taulan zehazten dira. Puntu hau aldatu egin du 2116/1998 Errege Dekretuak.

Aipatu beharra dago 1995eko otsailaren 17ko Ministro Kontseiluaren erabakiaren bidez (BOEren 113. alea, maiatzaren 12koa) Hondakin Urak Saneatu eta Arazteko Plan Nazionala onartu da, arazketaren eta, azken batean, isurkiaren kalitatea bermatzeko Europako Batasuneko irizpideekin bat etorritik.

Planak irizpide objektiboak ezarri nahi ditu Ingurugiro Idazkaritzak Estatuko lurralde osoan bere aurrekontuen kargura edo Kohesio Fondoetako baliabideak autonomia-erkidegoetarantz bideratuz ematen dituen laguntzak konpromisopean jartzeko; horretarako, autonomia-erkidego bakoitzarekin alde biko hitzarmenak izenpetzeko asmoa dauka.

Azkenik, adierazi beharra dago Euskal Autonomia Erkidegoan foru-aldundiei dagokiela obra hidraulikoak egitea, betiere beste lurralde historikoetan eraginik ez duten obrak badira edo interes orokorrekoak aitortu ez badira (azaroaren 28ko 27/1983 Legeko 7 a)-10. art.). Beraz, autonomia-erkidegoei egokituko zaie lurralde historiko bat baino gehiago hartzen duen arro-tarteetan egitekoak diren saneamendu eta arazketako obrak burutzea.

2. 91/676/EEE ARTEZTARAUA, NEKAZARITZAN SORTUTAKO NITRATOEK ERAGINDAKO POLUZIOARI BURUZKOA

Elkarteko urek batez ere ongarrietatik, abere-simaurretik eta araztegiatiko lohietatik datozen nitratoak isurtzearen ondoriozko poluzio-maila handia dutela ikusteak bultzatuta,

Europako Batasunak 91/676/EEE Arzetaraua, abenduaren 12koa (L375 EO, abenduaren 31koa) eta 86/278/EEE Arzetaraua, ekainaren 12koa (L181 EO, uztailaren 8koa) onartu zituen, azkeneko hau lohiak berrerabiltzeari bakarrik aplikatzekoa.

“Nekazaritza-produkzio intentsiboak eragindako uren poluzioa gero eta nabarmenagoa da egoera jakin batzuetan. Fenomeno horren ondorioz, handitu egiten da lurrazaleko eta lurpeko uretan dagoen nitrato-kontzentrazioa eta eutrofizatu egiten dira urtegiak, estuarioak eta itsasertzeko urak.

Izan ere, urak poluitzen dituzten iturri zehaztugabeen artean, nekazaritzan ongarri nitrogenatuak gehiegi edo modu desegokian aplikatzea da gaur egungo garrantzitsuena.

Arazo honi aurre egiteko, 91/676/EEE Arzetarauak, abenduaren 12koak (LCEur 1991, 1668), Urak nekazaritzan sortutako nitratoek eragindako poluzioaren kontra babesteari buruzkoak, Estatu elkartekideei jatorri honetako nitratoek eragindako poluzioaren eraginpean dauden urak identifikatzeko betebeharra ezartzen die, nitrato-kontzentrazioak hainbat laginketa-estaziotan zaindu beharko direla adieraziz”.

Horrela hasten da aipatutako elkarteko araudia Estatuko antolamendu juridikora inkorporatzen duen otsailaren 16ko 261/1996 Errege Dekretuko (BOEren 61. alea, martxoaren 11koa) zioen azalpena.

Arau honen helburua *“nekazaritzan sortutako nitratoek eragindako ur kontinentalen eta itsasertzeko poluzioa prebenitu eta zuzentzea”* da (1. art.).

Bere aplikazio-esparrua poluzioaren eraginpean edo hala egoteko arriskuan daudelako 3-2. artikuluko zirkunstantziaren batean dauden ur-masek osatzen dute. Artikulu horren c) atalak ondokoa dio:

“Egoera eutrofikoan dauden edo 6. artikuluan araberak jarduten ez bada etorkizun hurbilean eutrofiza daitezkeen urtegiak, laku naturalak, urmaelak, estuarioak eta itsasertzeko urak”.

Autonomia erkidegoei dagokien *“zona urrakortzat izendatzea beren hurrenez hurreneko esparruetan isurketaren edo iragazketaren ondorioz aurreko artikuluan aintzat hartutako urak nitratoekin poluitzeko eragina izan dezaketen lurraldeko gainazalak”* (4-1. art.).

Nitratoek eragindako poluzioaren kontra borrokatzeko, 5. artikuluan autonomia-erkidegoetako organo aginpidedunek *“Nekazaritza-lanetan Egoki Jarduteko Kodeak”* lan ditzaten aurreikusten du, 1. eranskineko zehaztapenak kontuan hartuta; kode hauek nekazariak borondatez aplikatzekoak izango dira.

Garrantzi handiagoa dute nekazaritzan sortutako nitratoek eragindako poluzioa prebenitu eta murrizteko *“Jarduera Programek”* (6 eta 7. artikuluan). Autonomia-erkidegoei

dagokie programa hauek idaztea eta 2. eranskinean adierazitako neurriak bildu beharko dituzte, lau urteko aplikazio-horizontearekin. Nekazariak “zona urrakortzat” izendatu diren lurretan egiten dituzten nekazaritza-lanetan derrigorrez aplikatzekoak izango dira. Lurrari ongarriak eta abere-simaurra aplikatzeko ohitura razionalizatu eta mugatzea dute helburu nagusizat, laboreek aurreikuspenen arabera une jakin batean behar duten nitrogeno-kantitatearen eta erabilgarri izango duten nitrogeno-kantitatearen arteko oreka aurkitu nahian.

Halaber, urrakortzat izendatutako zonetan derrigorrez aplikatzekoak izango diren jarduera-programa hauek kasuan kasuko autonomia-erkidegoak landutako Nekazaritza-lanetan Egoki Jarduteko Kodeetan inkorporatutako neurriak barne hartu beharko dituzte (7-1. art.).

Azkenik, “uren kalitatearen laginketa eta jarraipena egiteko programa” bat sortzen da, aplikatutako programen eraginkortasuna egiaztatu eta, hala badagokio, zona urrakorren zerrenda aldatzeko (8. art.). Ondorio horretarako, nitratoen neurketa Errege Dekretuaren 4. eranskinean finkatutako erreferentzia-metodoen arabera egingo dela ezartzen da, eta “lau urtean behin urtegien, laku naturalen, urmaelen, estuarioen eta itsasertzeko uren eutrofia-egoera berrikusiko dela”.

Arteztarau hau Ingurugiroa babesteko eta espazio naturala kontserbatzeko exijentziekin bateragarriak diren nekazaritza-produkzio- metodoei buruzko ekainaren 30eko Kontseiluaren 2078/92 EEE Araudiarekin (L215 EO, uztailaren 30ekoa) lotu behar da.

Araudi horrek nekazari eta abeltzaintzako laguntza-erregimen bat aurreikusten du, produkzio-metodo ez hain intentsiboak eta ingurugiroa eta baliabide naturalak babesteko gero eta premia handiagoarekin bateragarriagoak direnak sartu edo mantentzaten. Halaber, Estatu elkartekideek nekazaritzan ongi jokatzeko arauak sartzea eta nekazaritza biologikoa garatzea bultzatzen du.

Zehazki, Araudiko 2. artikulua, “laguntza-erregimena”, 1. atalak, ondokoa adierazten du:

“Ingurugiro eta espazio naturalerako ondorio positiboak baldin baditu, erregimenak jarraian adierazitako konpromisoak hartzen dituzten nekazariak zuzendutako laguntzak barne hartu ahal izango ditu:

a) ongarrien eta/edo produktu fitosanitarioen erabilera nabarmenki murriztekoa edo dagoeneko hasi dituzten murrizketak mantentzekoa edo nekazaritza biologikoko metodoak sartu edo mantentzekoa.

(...)

d) ingurugiroa eta baliabide naturalak babesteko exijentziarekin eta espazio naturalaren eta paisajearen kontserbazioarekin bateragarriak diren bestelako produkzio-erak erabiltzekoa edo desagertzeko zorian dauden bertako arrazako animaliak haztekoa.

(...)

f) labore-lurrak gutxienez hogeitaz urtez produkzioetik erretiratzekoa, ingurugiroarekin loturik dauden helburuetarako erabiltzeko, bereziki

biotopoen erresebak edo parke naturalak osatzeko, edo urak babesteko.”

2078/92 EEE Araudia aplikatuz, Estatu espainolak elkarteko laguntzen zenbatekoa eta banaketa arautu du, ingurugiroa babesteko eta espazio naturala kontserbatzeko exijentziakin bateragarriak diren nekazaritza-produkzioko metodoak sustatzeko, urtarrilaren 20ko 51/1995 Errege Dekretuaren bitartez (BOEren 33. alea, otsailaren 8koa). Helburu hau betetzeko, lau laguntza-mota ezartzen dira, Errege Dekretuaren eranskinetan beren zenbatekoa zehaztuz:

1. Nekazaritza estentsiboa sustatzea.
2. Ingurugiro-nekazaritzako prestakuntza sustatzea.
3. Desagertzeko zorian dauden arrazak sustatzea.
4. Nekazaritza ekologiko edo biologikoa sustatzea.

51/1995 Errege Dekretuan bildutako laguntzen osagarri gisa, apirilaren 21eko 632/1995 Errege Dekretua (BOEren 112. alea, maiatzaren 11koa) onartu da, goian adierazitako lau sustapen-neurrietakoren batean oinarritutako programaren bat garatzeko konpromisoa hartzen duten nekazari eta abeltzainen errentak konpentsatzea helburu duena, Errege Dekretuaren 1. eranskinean zerrendatzen diren parke nazionalen eragin-zonetan eta babes bereziko bestelako zona sentikorretan kokatutako ustiategiak direnean.

3. 96/61/EEE ARTEZTARAUA, POLUZIOAREN PREBENTZIO ETA KONTROL INTEGRALARI BURUZKOA

Poluzioa poluzio-iturrian, hots, I. eranskinean zerrendatutako industria-instalazioetan jardunez prebenitzea, murriztea eta, ahal bada, ezabatzea helburu duen Arzteztarau Markoa da. Elkarteko hizkeran bere inzialengatik ezagutzen da: PPKI Arzteztaraua (L257 EO, urriaren 10ekoa).

Atmosferaren poluzioari eta ingurune urtarrari buruz dagoen araudia osatzen du, arzteztarau berean atmosferaren nahiz ingurune urtarraren poluzioaren kontrako borroka integratzen duen lege-esparru berria emanez. Horrez gain, lurzorua poluzioa sartzen du, ordurarte elkarreak arautu gabe zuena.

Arzteztarauaren I. eranskinean abiarazteko edo funtsezko aldaketaren bat egiteko lizentzia eskatu beharra duten industria-jardueren zerrenda biltzen du: erregaiak tratatu eta errefinatzeke instalazioak; metalen galdaketa eta transformazioa; zementu, beira eta produktu zeramikoen fabrikazioa; industria kimikoak; zabortegiak, erraustegiak eta hondakinen kudeaketa; paperaren eta paper-orearen fabrikazioa; hiltegiak eta hegazti eta txerrien hazkuntza intentsiboa kopuru jakin batetik aurrera; esnearen tratamendua eta transformazioa; materialak disolbatzaile organikoekin tratatzea; eta abar.

Elkarteko Estatu bakoitzeko organo aginpidedunak ematen duen baimenak ondokoak bildu behar ditu gutxienez:

1. Substantzia poluitzaileetarako muga gisako emisio-balioak, eskura dauden teknika onenak erabilia.
2. Sortzen diren hondakinen kudeaketari buruzko neurriak.
3. Ingurugiro-kalitateari buruzko arauen batek hala eskatzen duenean, neurri osagarriak.
4. Titularrak bertan sartzen dituen aldaketak agintariei jakinarazteko betebeharra.

Emisio poluitzaileei aplikatu beharreko muga-balioak Kontseiluak ezarri beharko ditu, Batzordeak proposatuta. Bitartean, II. eranskinean zerrendatzen diren arteztarauek ezarritakoak aplikatuko dira.

Halaber, lizentzia emateko prozeduran herritarrek parte hartzeko aukeraren printzipioa jasotzen du. Hala, instalazio-eskabideak jendaurrean jarri beharko dira epe jakin batean jendeak arrazoibideak aurkeztu ahal izateko, agintaritza aginpidedunak lizentzia emateari buruzko erabakia hartu baino lehen.

Halaber, elkartearen mailan emisio nagusien eta horien erantzuleak diren iturrien datu-base edo inbentario bat sortzea aurreikusten du. Horretarako informazioa Estatu elkartekideek eman beharko dute.

Estatu elkartekideek hiru urte dituzte, 1999ko urriaren 30era arte, elkartearen arteztarau hau beren antolamendu juridikora inkorporatzeko; horregatik ez da oraindik egokitu antolamendu espainolera. Estatuko arau horretan, baimena emateko prozedura koordinatu egin beharko da, administrazio-organo batek baino gehiagok esku hartuz gero prozeduraren izapideak egiteko jardunbidea bakarra izan dadin.

4. *URAREN POLITIKARI BURUZKO ARTEZTARAU MARKOAREN PROPOSAMENA.*

Ezin dugu urari buruzko elkarteko araudiaren azterketa deskriptiboa amaitutzat eman Kontseiluaren Arteztarau Batzordeak uren politikaren esparruan jarduteko elkartemailako markoa ezartzeko aurkeztutako proposamena ahotara ekarri gabe.

Arteztarau Markoaren proiektu honek dagoeneko izan du kontsulta-prozesu luzea (Europako Parlamentua, Ekonomia eta Gizarte Batzordea, Eskualdeen Batzordea eta abar; izan ere, 1998ko ekainaren 17ko Ingurugiro Ministroen Kontseiluak aho batez onartu zuen). Hala ere, 1997ko urriaren 2an sinatutako Amsterdameko Itunak arteztarauak landu eta onartzeko prozeduran sartutako aldaketak direla-eta, seguraski ez da 2000. urtea baino lehen onartuko, hots, Europako Parlamentuak proposamen arau-emaillea eztabaidatu eta horri buruz behin-betiko erabakia eman ondoren.

Bere helburua ez da ingurune urtarrari buruzko indarreko araudi guztia bategin eta harmonizatzea; aitzitik, urari buruzko politika osatzen duten alderdi desberdinen koordinazioa eta koherentzia ahalbidetzeko diseinatuta dago. Batzordeak onartzen duenez, urei buruzko elkartemailako politikak legegintza-marko koherente, eraginkor eta gardena behar du.

Kontinuista dela esan daiteke, ingurune urtarrari buruzko elkarte-mailako politikaren azpian dagoen ikusmolde konbinatuari eusten dion heinean: iturburuko poluzioaren kontrola uretarako kalitate-helburuen ezarpenarekin konbinatzen da.

Arteztarau Markoak ingurugiroaren babesak hartzen du ardatz eta hortik abiatuta finkatzen ditu urei buruzko politika jasagarria zuzendu behar duten lau helburu nagusiak:

1. Edateko uraren hornidura.
2. Bestelako beharretarako uraren hornidura.
3. Ingurugiroaren babesak.
4. Uholdeen eta lehorteen ondorio kaltegarriak arintzea.

Ingurugiroaren babesak izan behar du elkarte-mailako politikaren ardatza, eta ez dago beste inolako alternatibarik, zeren *“elkarteko urak kalitate oneko uraren eskariak etengabe gora egiteak dakarren presio gero eta handiagoaren eraginpean baitaude.”* (1998ko otsailaren 17ko Arteztarau Markoaren proposamenaren testua aipatzen dugu).

Arteztarau Markoak nabarmenki aldatuko du elkarteko egungo antolamendua. Arteztarau batzuek indarrean jarraituko dute eta, gainera, substantzia jakin batzuek eragindako poluzioaren kontra borrokatzeko tresna nagusiak izaten jarraituko dute. Ondokoak aipa ditzakegu esate baterako: 91/676/EEE, nekazaritzan sortutako nitratoek eragindako poluzioari buruzkoa; 91/414/EEE, produktu fitosanitarioak merkaturatzeari buruzkoa; 91/271/EEE, hondakin-uren tratamenduari buruzkoa; eta 96/61/EEE, poluzioaren prebentzio eta kontrol integralari buruzkoa.

Substantzia toxikoak eta/edo arriskutsuak arautzen dituzten arteztarauen multzoari dagokionez, arau berriak ez du espresuki aurreikusten horiek indargabetzea, baina sarreran aurreratzen du Arteztarau Markoa eta Poluzioaren Prebentzio eta Kontrol Integralari buruzko 96/61/EEE Arteztaraua osorik aplikatzeak haiek indargabetzeko aukera emango duela.

Azkenik, Arteztarau Markoaren proiektuak 26. artikulua aurreikusten du uraren kalitatea bere erabileraren arabera, kontrol-metodoak eta informazioa trukatzekoak eta lurpeko urak arautzen dituzten arteztarauak espresuki indargabetzea:

“26. artikulua - Jarraian adierazitako egintzak 2007ko abenduaren 31tik aurrerako ondorioekin indargabetuta geratzen dira:

- 75/440/EEE Arteztaraua
- 77/795/EEE Arteztaraua
- 78/659/EEE Arteztaraua
- 79/869/EEE Arteztaraua
- 79/923/EEE Arteztaraua
- 80/68/EEE Arteztaraua”.

Ekonomia- eta finantza-ikuspuntutik, Arteztarau Markoak proposatzen du ura kontsumitzeko tarifa neurri handiagoan egokitu behar dela uraren aprobetxamenduaren egintza osoak sortzen dituen ekonomia-kostuetara eta hauek era zehatzagoan islatu behar dituela.

Ekonomia-kostu horien elementurik garrantzitsuenak ondokoak dira:

1. Zerbitzuak egiteak dakartzan kostuak: edateko uraren kaptazioa eta banaketa eta hondakin-uren bilketa eta tratamendua.
2. Ingurugiro-kostuak, baliabideak agortzeari lotutakoak barne.

Proiektuko 12. artikulua xedatzen duenez, elkarteko estatu guztiek urarekin zerikusia duten zerbitzu guztien kostuak berreskuratu beharko dituzte 2010. urterako.

Halaber, EEEEn une honetan ingurune urtarrari buruz dagoen informazioa urria dela egiaztatzen da. Hori dela-eta Arteztarau Markoak zer-nolako zuzenketa-neurriak hartu behar diren eta zein ekonomia-kostu duten zehatz-mehatz jakin ahal izateko beharrezkoak diren mekanismoak proposatzen ditu.

Bere artikuluen artean honako betebeharrak hauek azpimarra daitezke: elkarteko estatuek gizakien jarduerak ingurugiroan dituen ondorioei buruzko azterlana egitekoa (6. art.); elkarteko estatuek ibai-arro bakoitzean erabiltzen den uraren ekonomia-azterketa burutzekoa (7. art.); edo elkarteko estatuek arro bakoitza kudeatzeko planak lantzekoa (16. art.).

Arteztarau Markoaren testua osatzen duten 30 artikuluen ondoren hamar eranskin daude, honako gai hauei buruzkoak:

- I. Agintaritza aginpidedunen zerrenda bat ezartzeko eskatutako informazioa.
- II. Ibai-arroaren barrutiaren ezaugarrien analisia.
- III. Gizakien jarduerak ingurugiroan duen eraginari buruzko azterketa.
- IV. Zona babestuak.
- V. Lurrazaleko eta lurpeko uren egoeraren kontrola.
- VI. Neurrien programetan barne hartu behar diren neurrien zerrenda.
- VII. Ibai-arroa kudeatzeko planak.
- VIII. Poluitzaileak.
- IX. Lehentasunezko substantziak edo substantzia-multzoak ingurune urtarrerako dituzten arriskuak aztertzearen aukeratzeko irizpideak eta ingurune urtarreko emisioak kontrolatzera zuzendutako Batzordearen berariazko estrategia lantzeko komenientzia.
- X. Ingurugiro-kalitateari buruzko arauak.

6.3. Aginpide-esparrua

A) ESTATUAREN ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ARTEKO AGINPIDE-MUGAKETA

Aginpideak mugatzeko konstituzio-sistema eratu zen moduan, autonomia-erkidegoek beren hurrenez hurrenko Autonomia Estatutuetan jasota geratzen ziren aginpide-titulua beren gain har zitzaketen. Prozesu honetan (Andaluzia, Katalunia, Galizia eta Euskal

Autonomia Erkidegoei zegokienez behintzat) Estatuak Konstituzioko 149-1. artikuluan xedatutakoaren arabera beretzat bakarrik gordetzen zituen aginpideak zituzten muga bakartzat.

Uren eta obra hidraulikoen gaiari lotzen gatzaiziola, 149-1. artikulua 22 eta 24. atalek ziotenez, Estatuak aginpide eskusiboa zuen ondokoetan:

22. “Baliabide eta aprobetxamendu hidraulikoen legeria, antolamendu eta emakidan, urak autonomia-erkidego batetik baino gehiagotatik igarotzen direnean”.

24. Interes orokorreko herrilanetan edo egiteak autonomia-erkidego bat baino gehiago eraginpean hartzen dutenetan”.

Konstituzio-testuinguru honetan, Euskal Autonomia Erkidegoak bere Autonomia Estatutua landu zuenean, 10. artikulua 11 eta 33. atalen bidez, aginpide eskusiboak hartu zituen bere gain uren eta obra hidraulikoen gaian, honako eduki hauen arabera:

“11-Aprobetxamendu hidraulikoak, kanalak eta ureztatze-sailak, urak oso-osorik Euskal Herri barruan igarotzen direnean”.

“33- Legez interes orokorrekotzat jo ez diren herrilanak edo egiterakoan beste lurralde batzuk eraginpean hartzen ez dituztenak”.

Arestian aipatu dugun bezala, Uren Legeak ezarri du Estatuaren eta autonomia-erkidegoaren arteko aginpideak mugatzen dituen irizpidea arro hidrografikoarena izango dela. Hori dela-eta, autonomia-erkidego batera baino gehiagotara zabaltzen den lurralde-esparrua duten arroetan Estatuari dagokio uren gaineko aginpide eskusiboa eta oso-osorik Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde barruan dauden arroetan aginpidea autonomikoa izango da.

Euskal Autonomia Erkidegoaren esparru geografikoari lotzen bagatzaizkio, Arabako lurralde historikoa zeharkatzen duten ibaibideak, Ebro ibaiaren adarrak direnez gero, isurialde mediterraniarrekoak direla ikusiko dugu; Bizkaia eta Gipuzkoa zeharkatzen duten erreka eta ibaiek, ordea, Bizkaiko itsasora isurtzen dituzte urak eta, horrenbestez, isurialde atlantiarrekoak dira. Lurralde historikoak eta itsas isurialdeak argi eta garbi bat datozen arren, adierazi beharra dago bat etortze hau ez dela guztiz zehatza lurralde historikoen arteko zona mugakide batzuei dagokienez.

Hala eta guztiz ere, isurialde atlantiarrekoak diren ibaien arro guztiak ez dira Euskal Autonomia Erkidegoari dagozkionak, zenbait ibai erkidegoaz kanpoko lurralde mugakideetan zehar igarotzen baitira. Gipuzkoan, esate baterako, Nafarroan jaiotzen diren ibaibideak (Bidasoa, Urumea eta Oria) daude eta, horren ondorioz, erkidegoen artekoak dira beren arroak; gauza bera gertatzen da Bizkaian Burgosko probintzia mugakidean jaiotzen diren ibaiekin (Nerbioi eta Kadagua) eta Bizkaian jaio baina urak Kantabriako Autonomia Erkidegoan isurtzen dituztenekin (Aguera eta Karrantza).

Hori guztia dela-eta, Euskal Autonomia Erkidegoan zehar igarotzen diren ibaiak, osatzen duten arro hidrologikoa erkidego barrukoa ala erkidegoen artekoa den kontuan hartuta, honako multzo hauetan sailkatzen dira:

1. ERKIDEGO BARRUKO ARROAK

Jaizubia
 Oiartzun
 Urola
 Deba
 Artibai
 Lea
 Oka
 Butroe
 Gobela
 Asua
 Galindo
 Barbadun
 eta itsasertzeko beste isurialde txiki batzuk

2. ERKIDEGOEN ARTEKO ARROAK

Isurialde atlantiarra

Bidasoa
 Urumea
 Oria
 Nerbioi-Ibaizabal
 Kadagua
 Aguera
 Karrantza

Isurialde mediterraniarra

Omeçillo
 Baia
 Zaia
 Zadorra
 Inglares
 Araia
 Ega
 Errioxa

Autonomia Estatutuko 10-11. artikuluan xedatutakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio lehenengo multzoan barne hartuta dauden, hots, oso-osorik erkidego barruko arroetan zehar igarotzen diren ibaietako aprobetxamendu hidraulikoen gaineko aginpide eskusiboa. Aitzitik, bigarren multzoko ibaietan, hau da, erkidegoen arteko arroetan, aginpide eskusiboa Estatuaren esku dago.

Erkidegoen arteko arroetako baliabide eta aprobetxamendu hidraulikoei buruzko Estatuaren funtzioak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzea 1994ko maiatzaren 31ko Transferentzien Batzorde Mistoaren Akordioan gauzatu zen, baliabide eta aprobetxamendu hidraulikoen arloko funtzioak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzekoan, uztailaren 8ko 1551/1994 Errege Dekretuaren (BOEren 174. alea, uztailaren 22koa) eta Eusko Jaurjaritzaren uztailaren 12ko 297/1994 Dekretuaren (EHAren 14. alea, uztailaren 22koa) bidez onartutakoan.

Esku artean dugun gaia behar bezala zehazteko, gogoan izan behar da transferentzia edo eskualdaketei buruzko dekretuek ez dutela aldatzen eta ezin dutela aldatu konstituzio-

multzoak ezarritako aginpide-ordena. Konstituzio Auzitegiaren doktrina finkatuaren arabera, autonomia-erkidegoen eta Estatuaren arteko aginpide-banaketa Konstituzioak eta Estatutuek bakarrik egin dezakete.

Horregatik, eskualdatutako aginpideak, interes orokorrekotzat jotzen ez ziren herrilanez gain, “oso-osorik Euskal Autonomia Erkidegoan barne hartutako arroetako” baliabide eta aprobetxamendu hidraulikoen plangintza, antolamendu eta emakidari buruzkoak baino ez ziren izan, erkidegoen arteko arroa duten ibaien aginpidea Estatuko Administrazioaren titulartasunpean geratuz. Hain zuzen ere, aginpide-eskualdaketak Gipuzkoako lau ibai (Jaizubia, Oiartzun, Urola eta Deba), Bizkaiko zortzi ibai (Artibai, Lea, Oka, Butroe, Gobela, Asua, Galindo eta Barbadun) eta itsasertzeko isurialde txikiak hartzen ditu.

Jarraian Transferentzien 297/1994 Dekretuaren B eta C atalak transkribatzen dira, hauek baitira antolamendu eta aprobetxamendu hidraulikoen arloan administrazio bati eta besteari dagokion funtzioak deskribatzen dituztenak:

“B) EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOARI ESKUALDATZEN ZAIKION ESTATUKO ADMINISTRAZIOAREN ZERBITZUAK ETA FUNTZIOAK.

Autonomia-erkidegoak bere gain hartzen ditu, bere lurralde-esparruari dagokionez, Herrilan, Garraio eta Ingurugiro Ministerioaren ondoko funtzioak eta zerbitzuak.

a) *Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean burutzen diren aprobetxamendu hidraulikoen programazioa, onarpena, exekuzioa eta ustiapena eta gainerako obra hidraulikoak, jarduera horiek bere interesekoak direnean eta egiterakoan beste autonomia-erkidego bat eraginpean hartzen ez dutenean, legez interes orokorrekotzat jotzen diren obrak izan ezik.*

b) *Hala badagokio, Toki Erakunde, entitate edo partikularrei aurreko paragrafoan adierazitako obrak burutzeko ekonomia-laguntzak ematea.*

c) *Oso-osorik Euskal Autonomia Erkidegoan barne hartuta dauden arroetako baliabide hidraulikoen antolamendua eta emakida, eta arro horietan isurketak egiteko baimenak edo herri-jabari hidraulikoa erabili edo aprobetxatzekoak eta uren eta ubideen jagoletza, hori guztia urei buruzko Estatuko legeriarekin bat etorritik eta plan hidrolagikoen esparruan.*

d) *c) paragrafoak aztergai dituen arroetarako plangintza hidrolagikoa landu eta berrikustea.*

C) ESTATUKO ADMINISTRAZIOAK BERETZAT GORDETZEN DITUEN FUNTZIOAK

Estatuko Administrazioaren eskuetan geratzen dira eta bere aginpidekoak dira oraindik ere baliabide eta aprobetxamendu hidraulikoen arloan legez esleituta dituen funtzioak, akordio honek aztergai dituenak izan ezik. Bereziki, honako hauek gordetzen ditu:

- a) Uren arloko legeria.
- b) Oso-osorik Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean barne hartuta ez dauden arroetarako plangintza hidrologikoa landu eta berrikustea.
- c) Oso-osorik Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean barne hartuta dauden arroetako Plan Hidrologikoa onartzea, abuztuaren 2ko Uren 29/1985 Legeko 38. artikulua arabera (RCL 1985, 1981, 2429 eta ApNDL 412).
- d) Baliabide hidraulikoen antolamendua eta emakida, eta ubide publikoetan isurketak egiteko baimenak eta herri-jabari hidraulikoa erabili edo aprobetxatzekoak eta uren eta ubideen jagoletza, oso-osorik Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean barne hartuta ez dauden arroetan.
- e) Beste autonomia-erkidegoren bat eraginpean hartzen duten edo legez Estatuaren interes orokorrekotzat aitortzen diren obra hidraulikoak Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-esparruan programatu, onartu, burutu eta ustiatzea.”

Aprobetxamendu hidraulikoen kudeaketa hainbat erakunde autonomikotan banatuta dagoen Estatuaren lurralde egiturara nolabait hurbiltzeko asmoz, Uren Legeko 15.d) artikulua aurreikusten du Estatuak autonomia-erkidegoen esku utzi ahal izango duela “herri-jabari hidraulikoari dagozkion baimenak ematea eta jabari horren tutoretza, autonomia-erkidego bakar baten lurralde-esparrua gainditzeko duen arro hidrografikoetan”. Bestalde, Herri Jabari Hidraulikoari buruzko Araudiko 53. artikulua autonomia-erkidegoaren esku utzitako funtzioen izapideak egitean bete beharko den prozedura garatzen du:

“1. Uren Legeko 15.d) artikulua arabera, adierazitako baimenen izapideak Estatuak autonomia-erkidego baten esku utzi dituen kasuetan, honek erabaki-proposamena formulatuko dio Arroko Erakundeari eta honek, aldi berean, erkidegoari emango dio ematen den erabakiaren berri, interesatuari jakinaraz diezaien.

2. Erabakia formulatutako proposamenarekin bat datorrela ulertuko da, proposamena Arroko Erakundearen sartzeko denetik hasi eta hiru hilabeteko epean, erakunde honek autonomia-erkidegoari erabakiaren berri eman ez dionean.”

Legezko aurreikuspen horren babespean eta lehen adierazitako 1994ko maiatzaren 31ko Transferentzien Batzorde Mistoaren Akordioa onartu zen aldi berean, Estatuak eta Euskal Autonomia Erkidegoak hitzarmen bat izenpetzeko erabakia hartu zuten: “Arro hidrografiko kantauriarretan eta Ebroaren arroan herri-jabari hidraulikoari dagozkion baimenen izapideak eta herri-jabari honen jagoletza Euskal Autonomia Erkidegoko Garraio eta Herrilan Sailaren esku uzten dituen eta arro kantauriarretan plangintza hidrologikoa lantzeko lankidetzak irizpideak zehazten dituen Hitzarmena”.

Hitzarmen horren indarrez, Euskal Autonomia Erkidegoaren esku geratu da 1-1. estipulazioan bildutako funtzioen kudeaketa. Hauexek dira funtzioak:

“a) Herri-jabari hidraulikoari eta ubideetako zortasun-zonei eta jagoletza-zonei dagozkien baimenen izapideak, oso-osorik Euskal Autonomia Erkidegoan barne hartuta ez dauden arroetan, urak Bizkaiko itsasoa eta Ebroren arroan isurtzen dituztenetan, Bidasoaren arroan izan ezik.

Dagozkien erabaki-proposamenak baldintzapen eta guzti aurkeztuko zaizkio Iparraldeko Konfederazio Hidrologikoa arroko erakundeari edo Ebroko Konfederazio Hidrologikoa arroko erakundeari, hurrenez hurren, 849/1986 Errege Dekretuko 53. artikuluan aurreikusitako hitzetan.

b) Ur eta ubideen jagoletza aipatutako arroetan, zigor-espedienteen izapideak erabaki-proposamenera arte egitea barne; proposamena Iparraldeko Konfederazio Hidrologikoaren edo Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren organo aginpidedunari aurkeztuko zaio, kasuak kasu. Adierazitako jagoletza-funtzioa aipatutako Konfederazioek, beren aginpideez baliatuz, kontrol eta gainbegiraketako funtzio orokorretarako eta jabari hidraulikoen emakiden izapideei dagozkien berariazko funtzioetarako behar dituzten langileen eta bitartekoen kalterik gabe egingo da”.

Bidasoa ibaiari dagokionez, bere urek Espainia eta Frantziako muga egiten dutenez eta nazioarteko itunei loturik daudenez gero, funtzioak erkidegoaren esku uzteko erabakiak mugatu egiten du kudeaketa eta Euskal Autonomia Erkidegoari *“herri-jabari hidraulikoak eta ubideen zortasun- eta jagoletza-zonetan baimen-eskabideak biltzea”* baino ez dagokio.

Halaber, seigarren estipulazioan ezartzen denez, Herrilan, Garraio eta Ingurugiro Ministerioari egokituko zaio Euskal Autonomia Erkidegoaren esku utzitako administrazio-jardueren kontra jartzen diren errekurtsioetan aditzeko ahalmena.

Funtzioak bere esku uzteko erabakiak, halaber, herri-jabari hidraulikoaren gaineko eta isurketen gaineko kanonen kudeaketa eta bilketa hartzen ditu eta bildutakoaren %10 arroko erakundeari transferitu beharko zaio (2. estipulazioa).

Urak Bizkaiko itsasora isurtzen dituzten erkidegoen arteko zein erkidego barruko arroen plangintza hidrologikoa ere aztertzen du funtzioak bere esku uzteko erabakiaren 6. estipulazioak. Bertan aurreikusten denez, beste hainbat koordinazio- eta partehartze-neurriren artean, *“urak Bizkaiko itsasora isurtzen dituzten Euskal Autonomia Erkidego barruko eta erkidegoen arteko arroetako Plan Hidrologikoak lantzeko, Iparraldeko Konfederazio Hidrologikoko eta Garraio eta Herrilan Saileko teknikariek osatuko duten lan-talde parekidea eratuko da”.*

Puntu honetan, egokia izan daiteke administrazio bakoitzaren aldetik gai hidraulikoetako aginpidea esleituta duten organismoak zein diren aipatzea: Estatuko administrazioari dagokionez, arroko erakundeak, hots, Ebroko Konfederazio Hidrografikoa isurialde mediterraniarreko ibaien kasuan eta Iparraldeko Konfederazio Hidrografikoa isurialde

atlantiarreko ibaiei dagokienean; Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herrilan Saileko Uren Zuzendaritza, oraindik ez baita Euskal Herriko administrazio hidraulikoa sortu eta araupetuko duen arau bakar bat ere onartu.

27/1983 Legeak, azaroaren 25ekoak, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Komunuen eta bere Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko Harremani buruzkoak, 7.b)-4. artikuluan ezartzen du lurralde historikoei dagokiela erakunde komunek emandako *“herri-ur kontinentalen eta beren ubide natural, urbazter eta zortasunen jagoletzari”* buruzko arauak garatu eta betearaztea.

Hala eta guztiz ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak ez die aginpide hau lurralde historikoei eskualdatu eta, horrenbestez, hau gertatu artean, aginpide hori Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herrilan Sailak bete behar duela pentsatu beharko da. Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Estatuaren gai hidraulikoetako aginpide-banaketaren laburpen gisa honako taula hau diseina daiteke:

AGINPIDE BANAKETA	Erkidego barruko arro atlantiarrak	Isurialde mediterraniarra eta erkidegoen arteko arro atlantiarrak
1- Obra hidraulikoak	EAE	EAE/Estatua ⁽¹⁾
2- Plagintza hidrologikoa	EAE ^{(2) (3)}	Estatua
3- Ur-emakidak	EAE	Estatua
4- Isurketa-baimenak	EAE	Estatua
5- Herri-jabariaren gaineko baimenak	EAE	EAE aginduaren bidez ^{(4) (5)}
6- Jagoletza	EAE	EAE aginduaren bidez ^{(4) (5)}

(1) Aginpidea Estatuarena izango da interes orokorrekotzat jotzen diren obra hidraulikoak edo beste autonomia-erkidego batzuk eraginpean hartzen dituztenak badira; bestela, aginpidea autonomia-erkidegoarena izango da.

(2) Plan hidrologikoak lantzea EAERI badagokio ere, Estatuak eman beharko die behin-betiko onarpena (Uren Legeko 37-6. artikulua).

(3) Funtzioak erkidegoaren esku uzteko aginduaren arabera, erkidego barruko zein erkidegoen arteko arro kantauriarretako Plan Hidrologikoak lantzeko bi administrazioetako bakoitzeko teknikari-kopuru berak osatutako lan-talde bat eratuko da.

(4) Bidasoa ibaia izan ezik, Frantziarekiko mugan dago-eta.

(5) Funtzioak erkidegoaren esku uzteko aginduaren arabera, EAERI dagokio izapideak egitea eta Ebroko edo Iparraldeko konfederazioari erabakitzea, kasuan kasu.

B) AGINPIDE-MUGAKETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN BAITAN

Zadorra sistemako urtegietao uraren kalitatearekin lotuta dauden arloen gaineko aginpideak lau erakunde-mailatan banatuta daude Euskal Autonomia Erkidegoaren baitan: kontzejuak, urbazterreko udalak, foru-aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak.

Aginpideen titulartasuna osorik edo alderdiren batean zein administrazioari dagokion jakiteko, ezinbestekoa da oinarritzko legeria horizontalera jotzea. Hala eta guztiz ere, arloko legeriak eragina izan ohi du, oinarritzko legerian bildutako aginpide-banaketan ñabardurak sartuz eta aldatuz eta, hala, aldaketak eta modulazioak sartzen dira jatorritzko diseinuan.

Atal honek zertzelada batzuk eman nahi ditu, arestian adierazitako lau administrazio-mailen arteko aginpide-banaketa konplexura hurbiltzeko, oinarritzko araudia bakarrik abiapuntutzat hartuta. Honi esker, administrazioetik arloko jarduera desberdinak urtegietao baliabide hidrikoak babestea helburu duen ingurugiro-politika baten arabera koordinatzea zein konplexua den ikusi ahal izango dugu.

Jarraian, kontzejuak, udalek, foru-aldundiek eta Eusko jaurlaritzak gai jakin batzuetan duten aginpide-titulartasuna aztertuko dugu, kasu batzuetan urtegietao uretan zuzeneko eragina dutelako edo horretarako potentzialtasuna dutelako eta, beste batzuetan aldiz, inguruak eraginpean hartzen dituztenez gero, baliabide hidraulikoan bertan eragina dutelako. Horretarako, jarraian adierazitako oinarritzko legeria hartuko dugu erreferentziatzat:

- 3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuari buruzkoa (EAEAE).
- 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Komunak eta bere Lurralde Historikotako Foru Organoen arteko Harremanei buruzkoa (LHL).
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituenak (TJOL).
- 11/1995 Foru Araua, martxoaren 20koa, Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuak buruzkoa (KFA).

1. Edateko uraren kaptazioa eta hornidura

Udalari dagokio aginpidea (TJOLko 25-2.e) artikulua: “*ur-hornidura*”) eta derrigorrez egin beharreko gutxieneko zerbitzu gisa konfiguraturata dago (TJOLko 26-1.a) artikulua: “*edateko uraren etxeko hornidura*”).

Hala ere, Arabako kontzejuen esparruan, hauek dira tradizioz zerbitzu hau egiten dutenak, eta arauen babesa dute horretarako KFAko 7-1.d) artikuluan (“*Kontzejuaren lurralde-esparruan barne hartuta dauden eta bere interes espezifikoei dagozkien obrak programatu, proiektatu eta burutzea eta zerbitzuak egitea*”).

Bestalde, foru-aldundiek udalekin eta kontzejuak elkarlanean dihardute zerbitzu hau instalatu eta egiteko, obra eta zerbitzuetako foru-planen bitartez (LHLko 7-a)-5. artikulua:

“*Obra eta Zerbitzuetako Foru Plana idatzi eta onartzea eta toki-erakundeei laguntza eta aholkularitza ematea*”).

2. Hondakin-urak eraman eta tratatzea.

Aginpidea udalei dagokie (TJOLko 25-2.1) artikulua: “*estolderia eta hondakin-uren tratamendua*”) eta udalerrri guztietan derrigorrez egin beharreko gutxieneko zerbitzu gisa konfiguratuta dago (TJOLko 26-1.a) artikulua: “*estolderia*”), hondakin-uren tratamenduari buruzko salbuespenarekin, zerbitzua egitea 5.000 biztanletik gorako udalerrietan bakarrik baita derrigorrezkoa (TJOLko 26-1.-b) artikulua: “*hondakinen tratamendua*”).

Hiriko hondakin-uren tratamenduari buruzko 91/271/EEE Arteztaraua 11/1995 Errege Dekretu Legeak Estatuko legeriara egokitu duenez gero, hondakin-uren tratamendurekin lotutako derrigorrez egitekoak diren udal-zerbitzuak arautzen dituen TJOLko 26. artikuluan aldaketa txiki bat sartu dela interpreta daiteke. 2006. urtetik aurrera derrigorrezkoa izango da bigarren mailako tratamendua 2.000 biztanle-baliokide baino gehiago dituzten udalerrietan, eta aginduzkoa izango da tratamendu egokia 2.000 biztanle-baliokide baino gutxiago dituztenetan. Beraz, hondakin-uren tratamendua parekatu egiten da, zerbitzua derrigorrez egin beharri dagokionez, edateko uraren hornidurarekin, hots, udal guztietan derrigorrez egin beharreko zerbitzua izango da, bere biztanle-kopurua edozein dela ere.

Kontzeju eta aldundien aginpideari dagokionez, arestian ur-hornidurari buruz adierazitakoa *mutatis mutandi* errepikatutzat emango dugu.

Zerbitzu hau egin eta kudeatzeko, ur-horniduraren kasuan bezalaxe, udalak elkarrekin elkartu ohi dira mankomunitateak osatzeko edo, bestela, elkarrekin eta foru-aldundiekin elkartzen dira partzuergoak osatzeko. Halaber, lurralde historiko desberdinetako udalerriak elkartuko balira, Eusko Jaurlaritzak ere esku har lezake.

3. Osasuna

Aginpidea Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari dagokio eta honek Osasun Publikorako Zuzendaritzaren bitartez betetzen du (EAEAEko 18-1. artikulua: “*Euskal Herriari dagokio barne-osasunaren arloko legeak garatzea eta legeria betearaztea*”); dena den, udalek ere badituzte esparru honetan jarduteko ahalmenak (TJOLko 25-2.h) artikulua: “*Osasungarritasun publikoaren babesa*”).

4. Obra hidraulikoak erkidego barruko arroetan

Foru-aldundiei dagokie gai honetan esku hartzeko aginpidea (LHLko 7-a)-10. artikulua: “*Egiten direnean beste lurralde historiko batzuk eraginpean hartzen ez dituzten edo Eusko Legebiltzarrak interes orokorrekotzat aitortzen ez dituen herrilanak*”) eta Eusko Jaurlaritzari obra horiek lurralde historiko baten esparrua gainditzen dutenean edo interes

orokorrekotzat aitortzen direnean (EAEAEko 10-33. artikulua). Hala ere, izatez aginpide hau autonomia-erkidegoak betetzen du, oraindik ez baitie foru-aldundiei eskualdatu.

5. *Ur-jagoletza*

Foru-aldundiek dute “*herri-ur kontinentalen jagoletzaren*” aginpidea, LHLko 7-b)-4. artikulua araberara. Kasu honetan ere, aginpide hau autonomia-erkidegoak betetzen du, oraindik ez baitie foru-aldundiei eskualdatu.

6. *Ingurugiroa*

Eusko Jaurlaritzak esleituta dauka legeak garatu eta betearazteko aginpidea (EAEAEko 11-a) artikulua: “*Ingurugiroa eta ekologia*”). Osagarri gisa, foru-aldundiek puntualki esku-hartzen dute esparru honetan, baina onartuta daukaten aginpidea “*espazio natural babestuak administratzekoa*” da (LHLko 7-c)-3. artikulua). Udalak antzeko egoeran daude (TJOLko 25-2.-f) artikulua: “*Ingurugiroaren babes*a”).

7. *Lurraldearen antolamendua eta hirigintza*

Urbazterreko udalak aginpidedunak dira Arau Subsidiarioen bitartez urtegien inguruetako erabilerak hirigintzaren ikuspegitik antolatzeke eta haien lurzoruko materializazioa kontrolatzeko (TJOLko 25-2.-d) artikulua: “*Hirigintza-arloko antolamendua, kudeaketa, burutzapena eta disziplina*”). Horren gehigarri gisa, foru-aldundiek adierazitako plangintza-tresnak onartzeko eta udalaz gaindiko interesak babesten direla zaintzeko aginpidea betetzen dute (LHLko 7-c)-5. artikulua. Atal honen idazkera aldatu egin zuen EHAAREN 136. alean, uztailearen 20koan, argitara eman zen uztailearen 16ko 5/1993 Legeak).

Lurraldearen antolamenduari buruzko aginpideari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailari dagokio titulartasuna (EAEAEko 10-31. artikulua: “*Lurraldearen eta itsasertzaren antolamendua, hirigintza eta etxebizitza*”). Honi dagokionez, foru-aldundiek aintzatetsita daukate Lurraldearen Zatiko Planak eta Lurraldearen Arloko Planak idatzi eta dagozkien izapideak egiteko, baita azkeneko hauek behin-betiko onartzeko ere (4/1990 Legea, maiatzaren 31koa, Euskal Herriko Lurraldearen Antolamenduari buruzkoa, 13 eta 20. artikulua).

8. *Nekazaritza eta abeltzaintza*

Foru-aldundiek dute aginpidea (LHLko 7-b)-1. artikulua: “*Landare-osasuna, nekazaritzaren berrikuntza eta garapena; nekazaritzako zabalkundea, sustapena eta trebakuntza; (...); landare-produkzioa...*”, eta 7-b)-2. artikulua: “*abere-produkzioa eta -osasuna*”); Eusko Jaurlaritzari alderdi orokorretan dagokion aginpidearen kalterik gabe (EAEAEko 10-9. artikulua: “*ekonomiaren antolamendu orokorraren araberako nekazaritza eta abelazkuntza*”).

9. Mendiak

Aginpide-banaketa nekazaritza eta abeltzaintzari dagokionaren antzekoa da; foru-aldundiek aginpide arau-emailea eta betearaztekoa esleituta dute (LHLko 7-a)-9. artikulua: “*Mendiak, aprobeitxamenduak, basogintza-zerbitzuak (...) basozaintza eta nekazaritza eta basogintzarako lurzoruen kontserbazioa eta hobekuntza*”).

Araba eta Bizkaiko Foru Aldundiek Arabako Lurralde Historikoko Mendien erregimena arautzen duen uztailaren 4ko 13/1986 Foru Arauaren (ALHAOren 92. alea, abuztuaren 13koa) eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Mendiei eta Espazio Natural Babestuen Administrazioari buruzko ekainaren 2ko 3/1994 Foru Arauaren (BAOren 123. alea, ekainaren 28koa) bitartez garatu dute beren aginpide arau-emailea.

10. Ibaiko arrantza

Foru-aldundiei dagokie aginpidea (LHLko 7-b)-3. artikulua: “Aberastasun piszikola kontinental eta zinegetikoaren aprobeitxamendu-erregimena”).

11. Aisia eta astialdia

Urtegien eta beren inguruen balio natural eta paisajistikoak eta jolas-erabilerak antolatzekeo premia kontuan hartuta, foru-aldundiei esleitutako aginpide hau oso adierazgarria da (LHLko 7-c)-2. artikulua “*Elkarte-garapena, emakume-izaera. Haur, gazte eta hirugarren adinekoen politika, aisia eta astialdia*”). Halaber, legezko aintzatespena dute gai honetan esku hartzeko (TJOLko 25-2.m) artikulua: “*astialdia betetzea*”).

12. Kirola

Aginpide hau ere foru-aldundiei (LHLko 7-b)-6. artikulua: “*Kirola sustatzea, eskolarteko kirol-programak eta guztiontzako kirola garatzekoak*”) eta udalei dagokie (TJOLko 25-2.-m) artikulua: “*Kultura edo kiroletako jarduerak edo instalazioak*”).

13. Kanpina eta kanpatzea

Aginpide hau Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari dagokio (EAEAEko 10-36. artikulua: “*Turismoa*”).

14. Merkantzia arriskutsuen garraioa

Aginpidea foru-aldundiei dagokie (LHLko 10. artikulua: “*...Legeria, garapen arau-emailea, goi-ikuskapena, plangintza eta koordinazioa errepedeko garraio mekanikoaren arloan...*”), Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak bide-segurtasunaren arloan betetzen dituen aginpideen kalterik gabe.

15. Errepideak, bideak eta mendiko ibilaldiak

Errepideei dagokienez, funtsezko aginpidea foru-aldundiei dagokie (LHLko 7-a)-8. artikulua: “*Errepide eta bideen plangintza, proiektua, eraikuntza, (...), erabilera eta ustiapena*”).

Bideei buruzko aginpide-banaketa dezente korapilatsuagoa da, izan ere foru-aldundiak ez ezik, udalak (TJOLko 25-2.-d) artikulua: “*...landa-bide eta oihanbideen kontserbazioa*”) eta kontzejuak ere (KFAko 7-1.b) artikulua: “*landa-bideen jagoletza*”) aginpidedunak baitira.

Mendiko ibilaldiei dagokienez, Eusko Jaurlaritzak arautu du, Euskal Autonomia Erkidegoan mendiko ibilaldiak normalizatu eta antolatzeari buruzko apirilaren 16ko 79/1996 Dekretuaren bitartez. Dena den, azken batean mendiko ibilaldiak landa-bideetan zehar egiten direnez gero, goian adierazitako hiru herri-administrazioei dagokie aginpidea.

16. Babes zibila

Aginpide hau Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak betetzen du (EAEAEko 17. artikulua), udalek beren lurralde-esparruaren barruan duten aginpidearekin batera (TJOLko 25-2.c) artikulua: “*...babes zibila...*”).

6.4. Lurraldearen antolamenduaren eta plangintza hidrologikoaren arteko erlazio-irizpideak

Espazio fisiko berean eta baliabide natural baten gainean aginpide-titulu desberdinak proiektu daitezke administrazio baten baino gehiagoren alde; hala, urtegien inguruetan batera biltzen dira baliabide eta aprobeixamendu hidraulikoak antolatzeko Estatuaren aginpideak eta lurraldea eta ingurugiroa antolatzeko autonomia-erkidegoen aginpideak. Loturak dituzten aginpide-tituluak dira alderdi ugari eta garrantzitsuetan nahasten direnak eta itxuraz elkarri kontrajartzen zaizkion goerak sor ditzaketanak.

Bi aginpideen arteko erlazioak aztertzerakoan, izaera desberdina dutela kontuan izan behar da. Lurraldearen antolamenduak espazio fisiko osoaren destinoak eta erabilerak finkatzea eta azpiegiturak eta gainerako herri-ekintzak lurraldean baloratuta antolatu eta banatzea du helburu. Beraz, izaera nabarmenki horizontala duen gaia da, lurraldean eragina duten arloko aginpide guztiak modu razional eta antolatuan bildu eta koordinatzeko bokazio orobiltzailea daukana.

Plangintza hidrologikoa, ordea, arloko izaera nabarmena daukan aginpidea da, lurraldearen gainean alde bakarreko ikuspegitik eta, horrenbestez, ikuspegi partzialetik jarduten duena. Bere helburua “*ur-eskariak ahalik eta ongien asetzea lortzea eta eskualdeko eta arloko garapena orekatu eta harmonizatzea da, bere erabilera areagotuz eta erabilerak ingurugiroarekin eta gainerako baliabide naturalekin harmonia gordeta razionalizatuz*” (Uren Legeko 38-1. art.).

Bi plangintzen esparru materialak gurutzatu eta elkarri gainjartzen zaizkio zenbait puntutan; beraz, hau ez da plano teorikora mugatzen den azterketa. Aitzitik, eragile juridikoaren ikuspegitik Zadorra sistemako urtegien inguruetan antolamendu, babes eta berrikuntzako neurriak ezarri beharko bagenu, ezinbestekoa izango litzateke bai plangintza hidrologikoaren bai lurralde-plangintzaren irismena mugatzea. Hortik abiatuta baino ezin izango dugu jakin noiz erabili behar dugun tresna juridiko bat eta/edo bestea, administrazio aginpidedunek ingurune fisiko horretan garatzeko proposatzen dituzten proiektuak eta politikak kontuan hartuta.

Horregatik, urtegien inguruetan ondorioak izan ditzaketen legeria hidraulikoaren agindu nagusiak aztertuko ditugu, baita lurraldearen antolamenduari buruzko autonomia-erkidegoaren aginpidea baliabide eta aprobetxamendu hidraulikoen antolamenduari buruzko Estatuaren aginpidearekin erlazionatu eta artikulatzen dutenak ere. Agindu horien esanahian sakondu ahal izateko, ezinbestekoa da Uren Legearen kontra jarritako konstituziokontrakotasun-errekurtsoa erabakitzen duen azaroaren 29ko 227/1988 Epaian Konstituzio Auzitegiak egindako interpretazioa kontuan hartzea.

Azalpen sistematikoa eta koherentea lortzeko asmoz, Uren Legeko artikulua beren edukiek erantzuten dieten erlazio-irizpide eta -printzipioen arabera elkartuko ditugu. Hona hemen:

1. Plan Hidrologikoen ubidearen inguruetan duten eraginaren mugak (6, 40 eta 88. artikulua).
2. Koordinazioaren oinarriko printzipioa (13-3. artikulua eta 7. xedapen gehigarria).
3. Plan Hidrologikoen nagusitasunaren printzipio subsidiarioa (41-3. artikulua).
4. Plan Hidrologikoen parke naturalen aitortzen menpe jartzea (41-2. artikulua).

* * *

1. PLAN HIDROLOGIKOEN UBIDEAREN INGURUETAN DUTEN ERAGINAREN MUGAK

Uren Legeko 6. artikulua eragina izan dezake lurraldean, 5 metroko zortasun-zona eta, gainera, 100 metroko jagoletza-zona ezartzen baitu herri-ubideen ertzetan:

“Ubideen ertzek honako hauei loturik egongo dira luzekako azalera osoan:

- a) 5 metroko zabalerako zortasun-zona bati, herri-erabilerarako.
- b) 100 metroko zabalerako jagoletza-zona bati: zona honetan baldintzapean egongo dira lurzoruen erabilera eta garatzen diren jarduerak.

Itsasoko bokaletik hurbil dauden zonetan, urtegien aldameneko ingurunean (...) bi zona horien zabalera araudi bidez zehazten den eran aldatu ahal izango da” (Herri Jabari Hidraulikoari buruzko Araudiko 9-2. artikulua garatua).

Osagarri gisa, Legeko 88-3. artikulua argitzen du zortasun- eta jagoletza-zonek urtegietao uretan ere eragina dutela: *“kasu guztietan, laku, aintzira eta urtegien ertzak ur-korronteetarako finkatutako zortasun- eta jagoletza-zonei loturik geratuko dira”*. Halaber, 2. atalean aurreikusten duenez, *“lurrazaleko urtegien inguruan, aroko erakundeak haiek ustiatzeko beharrezkoak diren zerbitzuguneak aurreikusi ahal izango ditu”*.

Herri-erabilerarako zortasun-zonari dagokionez, jarraian adierazitako berariazko helburuei lotuta dago (Herri Jabari Hidraulikoari buruzko Araudiko 7-1. artikulua):

- “a) Ubidea zaintzen duten langileen zerbitzurako igarobidea.*
- b) Ibaiko arrantza-jardueretarako igarobidea.*
- c) Pertsona edo ondasunen salbamendurako igarobidea.*
- d) Ontziak noizean behin eta horren premia izanez gero lehorreratu eta amarratzea.”*

Jagoletza-zonari dagokionez, Herri Jabari Hidraulikoari buruzko Araudiko 9-1. artikuluan aipatzen diren jarduerak eta lurzorua erabilerak aroko erakundearen alde aurreko administrazio-baimena behar dute:

- “a) Lurraren erliebe naturalaren funtsezko alterazioak.*
- b) Agregakinen erauzketak.*
- c) Mota guztietako eraikuntzak, behin-betikoak zein behin-behinekoak.*
- d) Ur-boladen erregimenean korrontea oztopatzen duen edo herri-jabari hidraulikoa degradatu edo narria dezakeen beste edozein erabilera edo jarduera”*.

Aginpideen ikuspuntutik, Konstituzio Auzitegiak interpretatu du neurri hau ez dela lurraldearen antolamenduari buruzko aginpide autonomikoa ez ezagutzearen ondorio, *“ingurugiroa babesteko oinarritzko arau orokortzat har baitaiteke”* (zuzenbidezko 25. oinarria) eta aginpide hori Estatuari aintzatesten dio Espainiako Konstituzioko 149-1-23. artikulua.

Arreta berezia merezi du Legeko 40. artikulua, Estuari ahalmena eman bailiezaioke urtegien ingurunean eragina izateko. Agindu honek aroko erakundeek erkidegoen arteko arroetako Plan Hidrologikoak lantzeko kontuan hartu beharko dituzten edukiak ezartzen ditu (UAPako 72.etik 87.era bitarteko artikuluek eta 1992ko irailaren 24ko Aginduak garatua).

Artikulu honen ataletako askok ez dute inolako eraginik beste arlo batzuen gaineko aginpide autonomikoetan. Atal batzuek, ordea, ondorioak sor ditzakete lurraldean. Hori dela-eta, arrazoi honengatik problematikoagoak izan daitezkeen atalak (f), (g), (h) eta (l) aztertuko ditugu jarraian:

- “f) Baliabide hidrauliko guztien eta erabilgarri dauden lurren aprobetxamendurik onena ziurtatuko duten ureztatze-sailletako hobekuntza eta transformazioei buruzko oinarritzko arauak.”*

Konstituzio Auzitegiaren iritziz asmoa ez da nekazaritza-politikari buruzko aginduak ezartzea; aitzitik, aurreikuspen honek Konstituzioko 149-1-13. artikuluan aurkitzen du justifikazioa (ekonomia-jardueraren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa), “*betiere legezko aginduak argudiatzen dituen arauen helburu soila ur kontinentalen aprobetxamendu hobea edo razionalagoa lortzea bada*” (zuzenbidezko 20.e oinarria).

Ezin dugu ahaztu nekazaritzako ureztatze-sailek ibai eta urtegi-tako uraren aprobetxamendua eta banaketa behar dutela eta, hain zuzen ere, baliabide hidraulikoaren eta beren aprobetxamenduen antolamendua dela arroko plan hidrologikoen helburua.

“g) Babes-perimetroak eta eraginpeko baliabidea eta ingurunea kontserbatu eta berreskuratzeko neurriak.”

Neurri hauek baliabide hidraulikoa babestea izan behar dute helburu, herri-jabari hidraulikoa poluitu edo degradatzeko arriskua baztertzeko. Beraz, helburu honetara mugatzen diren heinean, ez dute inolako gatazkarik sortu behar lurraldearen antolamenduarekin.

Babes-perimetroen antzeko erreferentziak jasotzen dira Uren Legeko 89.d) artikuluan, UAPAKo 82.ean eta HJHAko 173.ean, azkeneko honetan lurpeko akuiferoen babesari dagokionez.

Honako iritzi hau ematen du Konstituzio Auzitegiak hainbestetan aipatu dugun 227/1988 Epaian:

*“Plan hidrologikoetan “babes perimetro” izenekoak barne hartzeak, halakotzat ulertuz lurpeko uren emakida berriak eman ezin diren zonak (Uren Legeko 54.2. artikulua) edo jabari hidrikoa poluitu edo degradatzeko arriskua izan dezaketen jardueri mugak ezartzen zaizkien zona mugatzea (54.3. artikulua), **ez du inolako aginpide-arazorik planteatzen, Estatuari erkidegoen arteko arroetan hartzea dagozkion baliabide hidraulikoen babes eta aprobetxamenduari buruzko neurriak baitira.** Gauza bera esan daiteke, hasiera batean bederen, g) idazatian bertan aurreikusitako “eraginpeko baliabidea eta ingurunea kontserbatzeko neurriei” buruz. **Dena dela, “ingurunearen” kontserbazio eta babesari dagokionez, Estatuak plan hidrologikoetan barne har ditzakeen neurriak autonomia-erkidegoei dagozkien lurraldearen antolamenduari eta ingurugiroaren babesari buruzko aginpideek mugatzen dituztela zehaztea komeni da**”.*

“Aipatutako 40.g) artikuluan adierazitako kontserbazio- eta babes-neurriak Lege bereko 6.b) artikuluan xedatutakoarekin lotu behar dira, izan ere lurzorua erabilera eta garatzen diren jarduerak baldintzapean egongo direneko 100 metroko zabalerako jagoletza-zona bati loturik jartzen baititu herri-ubideen ertzak. Agindu honen konstituzionaltasuna ingurugiroaren babesari buruzko oinarritzko legeria onartzeko Estatuaren aginpidearen ondorio da (Konstituzioko

149-1-23. artikulua), plan hidrologikoei egokitzen zaielarik, ingurugiroa kontserbatu eta berreskuratzearen ondorioetarako, lurzorua erabilerak mugatzeko kasu bakoitzean beharrezkoak diren neurriak sortzea, arau osagarriak ezartzeko eta ingurugiroa babesteko beharrezko neurriak hartzeko autonomia-erkidegoen aginpidearen kalterik gabe”.

Arroko Plan Hidrologikoen artikulua hau zuhurtziaz aplikatzen ez badute, litekeena da bere interpretazioak gatazkak sortzea ibaien ubideekiko mugakideak diren zona jakin batzuetan. Irizpide teleologikoa, lortu nahi den helburua aintzat hartuz, guztiz erabilgarria izan daiteke aginpide baten edo bestearen esparruan noiz gauden mugatzeko.

“h) Administrazioak egin behar dituen basoko plan hidrologikoak eta lurzorua kontserbatzekoak.”

Goi Auzitegiaren hitzetan, basoko plan hidrologikoen “ingurugiroa babestea helburu duten oinarriko arauak baino ezin dituzte barne hartu”.

Konstituzio Auzitegiaren interpretazioa ikusita badirudi zalantzan jartzen dela Plan Hidrologikoen benetako basoko plan hidrologikoak eta lurzorua kontserbatzekoak biltzeko aukera, plan hauek nekez har baitaitezke ingurugiroa babesteko oinarriko arautzat.

“l) Uholdeek, ur-boladek eta bestelako fenomeno hidraulikoen eragindako kalteak prebenitu eta saihesteko azterketa, jardura eta obrei buruzko irizpideak.”

Konstituzio Auzitegiaren iritziz, “irizpide horiek koordinazio-agindu generiko soilak direla eta jardura eta obra konkretuen aurreikuspena suposatzen ez dutela ulertzen bada, ezin da pentsatu autonomia-erkidegoen aginpideak inbaditzen dituenik, Konstituzioko 149-1-29. artikulua Estatuaren esku uzten duen herritarren segurtasunari buruzko aginpide orokorraren adierazpena baitira”.

Azkenik, Uren Legeko 88-1. artikulua legezotasuna aztertzean, Konstituzio Auzitegiak ulertu du Estatuak ezin duela generikoki esku hartu ibaibideen eta ur-masen inguruko lurraldean; baliabide eta aprobetxamendu hidraulikoak antolatzeke aginpideak modu zehatz eta zuzenean justifikatzen duen heinean bakarrik egin dezake hori.

Argudio horretan oinarrituta, Konstituzioaren interpretatzaile gorenak konstituzio kontratatzat aitortu du Legeko 88-1. artikulua. Hauxe zen bere testua:

“Uraren kalitatea egoki babesteko, Gobernuak Lege honetako 9. artikuluan definitutako laku, aintzira eta urtegien ibilguen inguruan lurzorua erabilerak eta garatzen diren jarduerak baldintzapean egongo diren eremu bat ezarri ahal izango du”.

Konstituzio Auzitegiak arrazoitu egiten du erabakia, ondokoa esanez: “gainera, Gobernuari 88-1. artikulua ematen dizkion muga zehaztugabeen ahalmena ematea aginpideen neurria gainditzea da, autonomia-erkidego guztiek beren gain hartu

dituzten lurraldearen antolamenduari eta ingurugiroaren kudeaketari buruzko ahalmenen kalterako”.

2. KOORDINAZIOAREN OINARRIZKO PRINTZPIOA

Legegileak, lurraldea bakarra dela eta bertan arloko jarduera arras desberdinak gauza daitezkeela ikusirik, 13-3. artikulua eta 7. xedapen gehigarriaren bitartez interes-bateragarritasunaren printzipioa sartu du, arestian adierazitako lurraldearen eta ingurugiroaren antolamenduarekiko Plan Hidrologikoen nagusitasuna arintzen duena:

“Estatuak uren arloan dituen funtzioak betetzea honako printzipio hauen menpe jarriko da:

1º - (...)

2º - (...)

3º - Uraren herri-kudeaketa lurraldearen antolamendurekin, ingurugiroaren kontserbazio eta babesarekin eta natura lehengoratzearekin bateragarri egitea” (zentzu berean UAPAKo 1-3. artikulua).

Uren arloko legeria berriak, gainera, honako betebeharrak ezartzen du 7. xedapen gehigarrian: Estatuak plangintza hidraulikoa idatzi eta horretarako lurzoruerreserbak ezartzen dituenean, autonomia-erkidegoek lurraldea antolatzen dituzten aginpideak errespetatu beharko ditu. Hori dela-eta., bi administrazioek beren hurrenez hurreneko aginpideen barruan jardun behar dute administrazioen arteko koordinazio-irizpideen arabera:

“Lurzorua erabileran ezar litezkeen mugak eta egin litezkeen lurreserbak, Lege honetako 6, 11, 18-1.d), 41 eta 88. artikuluetan agindutakoak, autonomia-erkidegoek lurraldea antolatzen dituzten bete ditzaketan aginpideen kalterik gabe aplikatuko dira” (Uren Legeko 7. xedapen gehigarria).

3. PLAN HIDROLOGIKOEN NAGUSITASUNAREN PRINTZPIO SUBSIDIARIOA

Uren Legeak, 41-3. artikuluan, plangintza hidraulikoaren lurralde-plangintzarekiko nagusitasuna ezartzen du. Dena den, baieztape hau a posteriori zehaztu beharra dago, konstituzio-doktrinaren arabera:

“Aurreko atalek aztergai dituzten Plan Hidrologikoen aurreikuspenak lurraldearen hirigintza-antolamenduko tresna desberdinetan errespetatu egin beharko dira” (zentzu berean UAPAKo 120-1. artikulua).

Argitu beharra dago 41-3. artikulua adierazten duenean *“lurraldearen antolamenduak errespetatu egin beharko dituela aurreko atalek aztergai dituzten”* Plan Hidrologikoen

zehaztapenak, artikuluko horren 1. eta 2. atalei buruz ari dela. 1. atalak aukera ematen du Plan Hidrologikoek “*aurreikusitako jarduera eta obretarako beharrezkoak diren ur-eta lur-erreserbak*” ezartzeko. 2. atala, bestalde, suposizio bitxia, ingurugiro-legeriak “*zona, arro edo arro-tarte, akuifero edo ur-masa jakin batzuk babes berezikotzat*” aitortzen dituen kasuei buruzkoa da; kasu honetan, Plan Hidrologikoek aurreikuspen horiek bildu beharko dituzte.

Beraz, 41-3. artikulua arabera, jarduera eta obra hidraulikoetarako ur- eta lur-erreserbei buruzko Plan Hidrologikoaren zehaztapenak eta ingurugiro-arrazoien ondorioz zona jakin batzuk babes berezikotzat aitortzea izango da lurraldearen antolamenduak errespetatu beharko duen bakarra; aitortzen hau, era berean, Plan Hidrologiko horietan bilduta dago.

Hala ere, Estatuaren eta autonomia-erkidegoaren aginpide eskusiboaren artean gatazkarik izanez gero, hots, baliabide eta aprobetxamendu hidraulikoen antolamenduaren eta lurraldearen antolamenduaren artean, “*Estatuaren aginpidea nagusitu egingo zaio autonomia-erkidegoaren aginpideari*”. Hauxe da, behintzat, Konstituzio Auzitegiak hainbat erabakiren bidez finkatu duen doktrina; erabaki horiek, besteak beste, Euskal Herriko Lurraldearen Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen hainbat aginduren kontra jarritako konstituziokontarakotasun-errekurtsoa erabakitzen duen uztailaren 2ko 149/1988 Epaian jaso dira, zuzenbidezko 4-d oinarrian:

“Zentzu honetan, adierazi beharra dago, berriz ere, lurraldearen antolamenduari buruzko aginpide autonomikoak eta lurraldearen erabilerari dagozkion Estatuaren arloko aginpideak egoki artikulatzearen, lankidetzaren formulak ezarri beharra dagoela; izan ere, “bereziki beharrezkoak dira aginpide-tituluak batera biltzen diren suposizio hauetan eta bi aginpideen erabilera optimizatzea lortuko duten konponbideak bilatu beharko dira (Konstituzio Auzitegiaren 32/1983, 77/1984, 227/1998 eta 36/1994 Epaiak), zilegi izanik kasu bakoitzean egokienak diren teknikak aukeratzea: informazioa elkarri trukitzea, norberaren aginpidearen esparruetan alde aurreko txostenak egitea, osiera mistoko organoak sortzea, eta abar” (Konstituzio Auzitegiaren 40/1998 Epaia, zuzenbidezko 30. oinarria). Hala ere, baliteke lankidetzarako bide edo formula horiek kasu konkreturen batean sor daitezkeen gatazka konpontzeko nahikoa ez izatea, eta Konstituzio Auzitegi honek aitortu izan du kasu horietan “Estatuari ezin zaiola bere aginpide eskusiboak erabiltzeko aukera kendu beste aginpide bat dagoelako, nahiz eta hau ere autonomia-erkidego baten aginpide eskusiboa izan” (Konstituzio Auzitegiaren 56/1986 Epaia, zuzenbidezko 3. oinarria).”

Adierazi beharra dago, halaber, plan hidrologikoaren izaera loteslea eta nagusitzailea ekonomia-jardueraren plangintza orokorraren oinarriari buruzko Estatuaren aginpidearekin duten zuzeneko erlaziotik ere eratortzen dela (Espainiako Konstituzioko 149-1-13. artikulua).

4. PLAN HIDROLOGIKOAK PARKE NATURALEN AITORPENEN MENPE JARTZEA

Plan Hidrologikoak idazten dituenak beste administrazio batzuek betetzen dituzten ingurugiro-aginpideak errespetatu beharko ditu eta bere dokumentuan jaso beharko ditu administrazio-erakunde aginpidedunak egiten dituen babes natural edo ekologikoko zonen aitorpenak, Legeko 41-2. artikulua xedatzen duen bezalaxe:

“Zona, arro edo arro-tarte, akuifero edo ur-masa jakin batzuk, beren ezaugarri naturalak edo interes ekologikoa medio, babes bereziki aitortu ahal izango dira, ingurugiro-legeriarekin eta natura babestekoarekin bat etorritik. Plan Hidrologikoek zona horien sailkapena eta babesteko berariazko baldintzak jasoko dituzte.” (zentzu berean UAPako 90. artikulua 1. atala).

Oro har 41. artikulua dagokionez, Konstituzio Auzitegiak, Uren Legeari buruzko 227/1988 Epaian aitortu du bertan aintzat hartzen dela *“baliabide hidraulikoak babestera zuzendutako jarduerak lurraldearen antolamenduan eta ingurugiroaren babesean koka daitezkeen beste jarduera batzuekin batera biltzen diren suposizio bat”* (zuzenbidezko 20 e) oinarria).

Babes bereziaren aitorpen hori egiteko administrazio aginpideduna zehazteari dagokionez, Konstituzio Auzitegiak ez du erabakitzen adierazitako epaian zein administraziori egokitu behar zaion:

*“Inpugnatutako Legeak puntu honetan agintzen duena zera da, **adierazitako babes bereziko aitorpena egiteko administrazio-erakunde aginpideduna edozein dela ere, eta arazo honi buruz orain ez dugu ezertxo ere gehituko**, aitorpen horrek lotu egiten du plan hidrologikoen edukia eta, horrenbestez, plan hauetan “bildu” edo barne hartu behar da, derrigorrezko ondorio honekin, hots, jabari hidrikoa babesten duten arau horiek, era berean, lurraldea antolatzeke tresna desberdinen errespetatu egin behar dituztela (41.3. artikulua)”*.

Argigarriagoa izan zen puntu honetan Konstituzio Auzitegiaren 118/1998 Epaia, ekainaren 4koa, UAPA onartzen duen 927/1988 Errege Dekretuari buruzko aginpide-gatazka positiboak erabaki dituenak.

Kantabriako Eskualde Diputazioko Gobernu Kontseiluak inpugnatu egin zituen Uren Legeko 41-3. artikulua garatzen duen UAPako 90. artikulua 2, 3 eta 4. atalak. Arazo hau 19tik 23ra bitarteko zuzenbidezko oinarrietan aztertzen dira.

Adierazi beharra dago Kantabriarako Autonomia Estatutuak (8/1981 Lege Organikoa, abenduaren 30ekoa) “espazio natural babestuen” gaineko legeak garatzeko eta betearazteko aginpidea aintzatesten diola 23-1. artikulua. Euskal Autonomia Erkidegoari antzeko aginpidea aintzatesten dio bere Autonomia Estatutuko 11-1.a) artikulua.

Konstituzio Auzitegiaren iritziz, UAPako 90. artikulua 3. atala Uren Legeko 41-2. artikulua baino harantzago doa plan hidrologikoek “zona, arro edo arro-tarte, akuifero edo ur-masa jakin batzuk babes berezikotzat aitortzeko” aukera aintzat hartzen duenean.

Honi dagokionez, 118/1998 Epaia ondokoa adierazi du zuzenbidezko 22. oinarrian:

*“Agindua Estatuak lantzekoak diren erkidegoen arteko arroko plan hidrologikoei dagokiela, transkribatutako koma-arteak inbaditu egiten du Kantabriako Autonomia Erkidegoak espazio natural babestuen eta ingurugiroaren gaitan duen aginpidea, zeren bere lurralde-esparruan kokatutako zona, arro-tarte, akuifero edo ur-masei dagokienez, erkidegoen arteko arro batean badaude ere, **zona horiek beren ezaugarri naturalak edo interes ekologikoa medio babes berezikotzat aitortzea autonomia-erkidegoari baitagokio.**”*

UAPako 90. artikulua 4. atalak ondokoa exijitzen du: “Plan Hidrologikoa onartu ondoren hasiera ematen zaien zona babestuak aitortzeko espedienteen kasuan, ezinbestekoa izango da dagokien arroko erakundeak horiei buruzko txostena ematea”.

Konstituzio Auzitegiak 118/1998 Epaia zuzenbidezko 23. oinarrian aztertzen du arazo hau, pronuntziamendu kategorikoa egiten:

*“Beraz, Estatu Administrazioan bertan inkardinatutako erakunde baten aginduzko txostenak, nahiz eta loteslea ez izan, autonomia-erkidegoak ezaugarri naturalak edo interes ekologikoa medio zona babestuzat aitortzeko alde aurreko betekizun gisa exijituta, behar ez bezala baldintzatzen du erkidegoak bere aginpideak erabiltzeko ahalmena (Konstituzio Auzitegiaren 36/1994 Epaia, zuzenbidezko 5. oinarria; 118/1996 Epaia, zuzenbidezko 22. oinarria; 197/1996 Epaia, zuzenbidezko 13. oinarria). **Betekizun horrek, diogun bezala, erkidegoaren aginpidea baldintzatzen duen neurrian, ez du estaldurarik Estatuaren ezein aginpidetan, zona horiek aitortzeko ahalmena autonomia-erkidegoari baitagokio bere lurralde-esparruan;** beraz, gai honi buruzko aginpideak banatzeko sistemaren kontrakoa da, eta hala deklaratzeko dugu”.*

Bere epaian Konstituzio Auzitegiak zati batean onesten ditu aginpide-gatazka positiboak eta ondokoa erabakitzen du 2. atalean:

“Adierazitako Araudiko 90.3. artikulua, “zona, arro edo arro-tarte, akuifero edo ur-masa jakin batzuk babes berezikotzat aitortzeko” koma-arteak, eta 4. artikulua Kantabriako Autonomia Erkidegoaren aginpideak inbaditzen dituela deklaratzeko eta, horrenbestez, ezin dela erkidego honetan zuzenean aplikatu”.

Hitz bitan esanda, Konstituzio Auzitegiaren 227/1988 Epaia Uren Legeko 41-2. artikulua interpretatzerakoan sor zitzakeen aginpide-zalantzak inolako dudarik gabe argitu

ditu 118/1998 Epaiak, adierazitako Uren Legeko 41-2. artikulua garatzen duen UAPako 90. artikulua aztertu duenean.

Konstituzio Auzitegiak ateratzen duen ondorioaren arabera, plan hidrologikoek ezin dute babes bereziko aitortpenik egin ingurugiro-interesetan oinarrituta. Ingurugiro-gaietan eta espazio naturalen aitortpenak egitekoetan aginpideak beren gain hartu dituzten autonomia-erkidegoei dagokie aitortpen horiek egitea, hala nola Euskal Autonomia Erkidegoari, izan ere esparru honetan legegintza-lanak ere egin baititu (16/1994 Legea, ekainaren 30ekoa, Naturaren Kontserbazioari buruzkoa, BOEren 142. alea, uztailaren 27koa).

* * *

Ondorio gisara-edo, azken kontsiderazio batzuk egin daitezke. Lurraldea antolatzeko aginpidea erabiltzean, Plan Hidrologikoetan jasotako ubideen inguruneari buruzko zehaztapenak kontuan hartu eta errespetatu beharko dira honako alderdi hauei dagokienez:

- A) Planak behar dituen oinarritzko azpiegitura hidraulikoen burutzapen eta zerbitzurako beharrezkoak diren lur-erreserbak (ULko 41-1 eta 3. artikulua).
- B) Urtegiak ustiatzeko beharrezkoak diren lur-erreserbak (ULko 88-2. artikulua).
- C) Ingurugiro-arrazoiak medio, parke naturaltzat edo babes berezikotzat aitortutako zonak, arro-tarteren batean eragina badute Plan Hidrologikoek bildu behar dituztenak (ULko 41-2. artikulua).
- D) Nekazaritzako ureztatze-sailen zerbitzurako azpiegiturarako lur-erreserbak (ULko 40-f) artikulua).
- E) Babes-perimetroak eta eraginpeko baliabidea eta ingurunea kontserbatu eta berreskuratzeko neurriak (ULko 40-g) artikulua).
- F) Administrazioak egin behar dituen eta ingurugiroa babestea helburu duten basoko plan hidrologikoei eta lurzoruak kontserbatzekoei buruzko oinarritzko arauak (ULko 40-h) artikulua).
- G) Ur-boladak eta uholdeak prebenitzeko jarduerak eta obrak (ULko 40-e) artikulua).

Zerrendatutako zazpi epigrafeetatik, A, B, D eta G epigrafeak kontzeptu zabalago batean barne har litezke: *“obra hidraulikoen burutzapen eta zerbitzurako lur-erreserbak”*.

C eta F epigrafeak, plan hidrologikoetan jaso behar badira ere, berez ingurugiro-kutsu handia duten zehaztapenak planteatzen dituzte, aginpide horren menpe erabiliak, koordinazio eta sistematikako arrazoiak direla-eta arroko plan hidrologikoen edukien artean biltzen direnak.

E epigrafeak iruzkin berezia merezi du, zeren ingurugiro-legeria onartzeko Estatuaren aginpidean oinarritzen bada ere (Konstituzioko 149-1-23. artikulua), ibaibideen ingurunean esku hartzeko titulurik zabalena eskaintzen duen agindua baita eta, hain zuzen ere, lurraldea antolatzeko autonomia-erkidegoaren aginpidearekin aurkakotasun handiena izan dezakeena.

Bere babespean, plan hidrológicoek baldintzapean jar ditzakete 100 metroko zabalera jagoletza-zonan (hauxe izango litzateke perimetroaren muga fisikoa) garatzen diren jarduerak eta lurzoruaren erabilera; erabilera eta jardueren antolamendu edo debeku hau lurrazaleko eta lurpeko urak eta jabari hidrikoa orokorrean poluziotik eta degradaziotik babesteko ikuspegitik burutu behar da.

VII. KAPITULUA

ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

7. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

7.1. Ondorioak

1. Urtegiek Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren %43 hornitzen dute urez. 900.000 biztanle baino gehiagoren kontsumorako ur-eskari gero eta handiagoa asetzeko alternatibarik ez duen baliabide hidraulikoa da.
2. Zadorra sistemako urtegiek balio handiko ekosistema osatzen dute. Baliabide hauskor, urrakor eta urria da, eta mugatua gainera, narria ez dadin babestu behar dena.
3. Azken urteotan Uribarri-Ganboa eta Urrunagako urtegiek narriadura-prozesu garrantzitsua jasan dute batik bat gizakiaren presioaren ondorioz, baina nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak, hiritarrek, industrialek eta aisiakoek ere zerikusi handia izan dute.
4. Zadorra sistemako urtegi-tako urak osasun-kalitate ona dauka (A1); hala ere, poluitzaile eta nutrienteen ekarpenak direla-eta urtegiak eutrofia-prozesua jasaten ari dira. Eutrofia denbora igaro ahala gertatzen den fenomeno naturala bada ere, Zadorra sistemako urtegi-tan prozesua azeleratzen ari da gizakien jarduerak sortzen duen poluzioaren ondorioz. Egoera honek epe laburrera arazorik planteatzen ez badu ere, arazoak sor ditzake epe ertainera eta, batez ere, epe luzera, neurri egokiak hartzen ez badira.
5. Nutriente eta poluitzaileen ekarpenak ibaiadarren bitartez (poluzio puntuala) egiten dira batik bat eta nabarmenki handiagoak dira Uribarri-Ganboako urtegian Urrunagakoan baino. Ekarpnaren egiten dituzten ibai nagusiak Zadorra eta Alegria dira, honek bere izena daraman kanalaren bitartez. Nutriente-ekarpnaren hau adar-arro osoko isurketa-uren bitartez ere egiten da (poluzio zehaztugabea).
6. Nutrienteen zati garrantzitsua diren nitrogeno-konposatuak batez ere hiriko hondakin-uretatik eta abeltzaintza-ustiapenetako hondakin eta mindetatik datoz, baita nekazaritza-soberako ongarrietatik eta nekazaritza-praktika kontrolatugabeetatik ere. Bestalde, ingurugiro-poluzioa eta poluzio zehaztugabea aipatu behar dira.

7. Urtegiatara isurtzen diren pestizidek, zuzeneko poluitzaile garrantzitsua izateaz gain, mikroorganismoek ur sakonenetan burutu ohi duten materia organikoaren deskonposaketa oztopatzen dute. Pestiziden jatorria nekazaritzarekin lotu beharra dago eta hauen artean Alegria ibaitik datozenak nabarmentzen dira.
8. Hidrokarburoen kontzentrazioa gero eta handiagoa da. Hidrokarburoen jatorria askotarikoa izan daiteke: ibaien ekarpenak edo urtegiaren azaletik (ontzi motoredunak) edo urbazterretatik datozenak.
9. Benetako arriskua dago istripuren baten ondorioz poluitzaileak urtegian bildutako uretara eta arroko erreketara isurtzeko, batez ere komunikabideetatik. Izan ere, ez da denbora asko gaur egun itxita dagoen Urkiolako gasolindegiko tankeak hautsi zirela eta noizean behin kamioiak ere erori izan dira urtegiatara.
10. Egun dauden babes-neurriak ez dira nahikoa urtegian bildutako uren eutrofizazio-prozesua, karga poluitzaile gehigarriaren ekarpena edo bere ingurunearen narriadura geldiarazteko. Ez dago Zadorra sistemako urtegiatiko urak integralki babestu eta beren kalitatea bermatuko duen arloko planik, ezta lurralde-antolamendukorik ere.
Aipatu beharra dago EAEko Isurialde Mediterraniarreko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren proiektuak urtegien ubidearen inguruko 200 metroko zona batean erabilerak antolatzeko Plan Berezi bat idaztea aurreikusten duela.
11. Urtegiatiko uraren kalitatearekin zerikusia duen problematikari ezin zaio aurre egin urtegiak hornitzen dituen arro hidrologiko osoa lurralde-erreferentziatzat hartzen ez bada. Esparru geografiko natural hori abiapuntutzat hartuta baino ezin da bere inguruneke baliabideen kudeaketa eta babesba planteatu eta urtegiak poluitzen bukatzen duten edozein motatako isurketak kontrolatzen saiatu.
12. Behar-beharrezkoa da urtegiak babesteko eginkizunean inplikatur dauden administrazio desberdinen topagune izango den eta koordinazio-funtzioak beteko dituen herri-erakunde bat izatea. Erakunde edo batzorde hau leku egokia izango litzateke eztabaidatzeko, informazioa trukatzeko eta kasuan kasuko administrazioek beren gain hartuko litzuketean jarduteko proposamenak egiteko.
13. Lurraldea antolatzeko tresnak dira arroaren lurraldean eragin fisikoa duten jarduera eta politika guztiak garapen sozioekonomikoa ingurugiroa zaindu eta baliabide naturalak babestearekin orekatzea bilatuz koordinatzeko tresnarik egokienak. Antolamendu-tresna hauek lantzeko prozeduran, inplikatur dauden interes publiko eta pribatu guztien oreka ziurtatu beharko litzateke, konponbide harmonizatzailea bilatzen ahaleginduz, inplikaturtako alderdien arteko negoziatio-prozesua burutu ondoren.
Dokumentuaren beraren edukiari dagokionez, irekia izan behar luke eta derrigortasun-maila desberdinetako proposamenak bildu, alderdi batzuetan zuzeneko lotespena egon dadin eta beste batzuetan, aldiz, helburu zehatzak edo irizpideak finkatuz, are horiek lortzeko modua zehaztu gabe ere. Halaber,

jarduera jakin batzuk garatzeko mugak ezar litezke, edo motibazio berezia eskatu planteatzen diren gomendio edo irizpideetatik aldentzeko.

7.2. Gomendioak

A. OROKORRAK

1. Zadorra sistemako urtegi-tako uraren kalitatearen problematikari ikuspegi global, arlo-arte-ko eta koordinatzaile-etik aurre egitea, ar-rosa hartuz lurralde-erreferentziat-izat. Horretarako, Zadorraren Urtegi-en Arroa Babesteko Lurraldearen Arloko Plan bat idaztea proposatzen da.
2. Koordinatze-ko administrazio-organo egonkor bat eratzea, bai kontsultatu eta informatze-ko funtzioak, edo bai erabakitzekoak beteko dituen, uren kalitatean eragina duten aginpideen titular diren administrazio guztiak elkartu eta horien topagune izango dena. Ildo honetan, Zadorra Sistemako Urtegiak Babesteko Mahaia sortu eta abiaraztea garrantzi eta interes handiko gertakaria izan liteke.
3. Gizakia nekez heltze-ko moduko korridore biologiko naturalak sortzea urtegi-en aldameneko ingurunean, urbazterre-ko landaredia berreskuratzuz. Korridore hauek oso erabilgarriak izango dira beste erabilera batzuk urtegiaren ertzetik kanporatu eta ur-lamina babesteko. Antze-ko neurria hartu beharko litzateke ar-rosa ibaien eta ibaiadarren ertzetan.
4. Ar-rosa nekazaritza-ko lurraldea “zona urrakortzat” aitortze-ko aukera aztertzea (261/1996 Errege Dekretua, otsailaren 16koa, eta 91/676/EEE Arzetaraua), hala nekazaritza-n sortutako nitratoek eragindako poluzioa murrizte-ko zuzendutako jardue-ko programak landu-ko bailirateke. Jardue-ko programa hauek eta Nekazaritza-lanetan Egoki Jardute-ko Kodeak derrigorrez betetze-koak dira urragarritzat aitortutako zonetan kokatuta dauden nekazaritza-ustategietan.
5. Ebroko Konfederazio Hidrologikoaren aurrean urtegi-en arroa “zona sentikortzat” aitortze-ko proposamena sustatzea, hiriko hondakin-uren tratamenduari buruzko 91/271/EEE Arzetarauak aurreikusitakoaren ondorioetarako (11/1995 Errege Dekretu Legeak, abenduaren 28koak, eta 509/1996 Errege Dekretuak, martxoaren 15ekoak, egokitu zuten arzetaraua Estatuko legeriara). Aitorpen-proposamenari baiezkoa emango baliote, herrigune nagusietako hondakin-uren arzetegietan (HUA) hirugarren mailako tratamendua sartu beharko litzateke.

B. ARLOKOAK

6. Saneamendua:

- 6.1. Hirugarren mailako tratamendua sartzeko komeni da urak ar-rosa isurtzen dituzten herri nagusietako hondakin-uren arzetegietan (HUA): Dulantzi, Otxandio eta Agurain.

6.2. Herrigune nagusietako kolektore-sarea eta HUAen funtzionamendua hobetzea komeni da:

- Dulantzi: nitrogenoaren eta fosforoaren kontrako berariazko tratamenduak sartzea.
- Otxandio: El Limitadon kokatuta dagoen industrialde txikia HUAekin konektatzea eta bere tratamendu-ahalmena areagotzea.
- Agurain: fosforoaren eta nitrogenoaren kontrako berariazko tratamenduak sartzea. Gainera, Litutxipiko industrialdea dela-eta industria-isurketen kontrola areagotzea komeni da.

6.3. Arabako herrigune txiki eta kontzejuetan hondakinak ezabatzeko sistema kontrolatu beharko litzateke, beharrezkoa denean hobi septikoak eta iragazki biologikoak instalatuz, erregistro-putzu eta guzti.

6.4. Saneamendu-sistemen konplexutasuna, beren teknifikazio-maila altua eta hondakin-uren tratamenduan eskatzen diren kalitate-maila gero eta handiagoak direla-eta, behar-beharrezkoa da Dulantziko eta Aguraingo HUAetako mantenimendua hobetzea, gaur egun udalak berak arduratzen dira-eta.

7. Nekazaritza-lanak:

- 7.1. Urtegien eta ibai bideen ertzetan landu gabeko lurzoru-zerrendak babestea, zona bakoitzean zehazten den azaleran.
- 7.2. Ongarriak, pestizidak eta bestelako produktu fitosanitarioak neurrian erabiltzea dakarten nekazaritza-lanak sartzea.
- 7.3. Batez ere isurketa eta iragazketen ondorioz uraren poluzio zehaztugabea eragiten duen ongarri gehiegi erabiltzea kontrolatzea.

8. Abeltzaintza-lanak:

- 8.1. Ustiapen intentsiboetan, hondakinak eta mindak ezabatzeko sistemak berrikustea eta, behar diren lekuetan, hobi septikoak sartzea.
- 8.2. Abereak ur-laminara hel daitezen eragozteko, behar izanez gero urmaelak sortuz abereek bertan edan dezaten eta ez urtegiari.
- 8.3. Mendialdean abereen parasitoak hiltzeko bainuetako soberako likidoak biltzeko kanpainak egiten jarraitzea.

9. Mendiak:

- 9.1. Basoko Plan Hidrologiko bat idaztea arroan erreka eta ibaietako uren kalitatean eragina izan dezaketen basoa soiltzeko fenomenorik gerta ez dadin.

10. Kontrol analitikoak:

- 10.1. Urtegiari bildutako uren eta arroko ibaietako uren kontrol analitikoak egiteko lanak programatu eta koordinatu egin beharko lirateke, egungo egoera disfuntzionala bideratzeko. Izan ere, erakunde ugari aritzen dira laginak hartzen eta ur berberen parametro desberdinak analizatzen.
- 10.2. Dena den, beharrezko mekanismoak ezarri beharko lirateke edozein erakundek gainerako erakundeek egiten dituzten kontrol analitiko berruzko datuak berehala eskuratzeko aukera izan dezan.

11. Ibilgailu-trafikoa:

- 11.1. Urtegiak zeharkatu edo inguratzen dituzten bideetan merkantzia arriskutsuen trafikoa erabat murriztea eta ezkutuan egin ez dadin kontrolatzea.

12. Babes zibila:

- 12.1. Lehenbailehen idaztea urtegian bildutako uretan edo adarretan produktu toxikoak isuriz gero hartu beharko liratekeen neurri presakoenak aurreikusiko dituen autobabes-plan bat.

13. Aisia:

- 13.1. Ontzi motoredunen erabilera debekatzea. Dagoeneko hartu diren neurriak egokitzat jotzen dira, debeku horretarako horizonte-data bat finkatzen dutenak: Uribarri-Ganboa 2007an eta Urrunaga 2003an.
- 13.2. Bainatzeko eremuak murriztu eta egun daudenak egokitu eta ekipatzea.
- 13.3. Kanpaldiak eta karabanen instalazioa debekatu eta kontrolatzea.
- 13.4. Eremu konkretuetan mendiko ibilaldiak bultzatzea, oinezkoentzako ibilbideak prestatuz.
- 13.5. Parke eta egonlekuak behar bezala diseinatu eta ekipatzea, hondakinak sortzeko guneak izan ez daitezen.
- 13.6. Parke, egonleku eta txangoetarako leku gisa prestatuta dauden eremuetan hondakin-bilketaren maiztasuna areagotzea, baita udaldian bainatzeko eremuetan ere.

14. Hezkuntza:

- 14.1. Urtegien eta beren ingurunearen urrakortasun eta garrantziari buruzko informazio-kanpainak sustatzea. Gasteizko eta zingiren inguruetako eskualdeetako jendeari zuzenduko litzaizkieke.
- 14.2. Ikastetxeetan informazio-kanpainak antolatzea.

15. Ingurugiroa:

- 15.1. Ur-laminarako ibilgailu eta oinezkoen sarbideak murriztu eta kontrolatzea, urbazterreko landare naturalez egindako inguramendu aski zabala sortuz.
- 15.2. Ibai-ertzetatik egiten diren isurketak urtegiko uretara irits daitezen eragozteko, behar hainbat arazketa-sistema eta iragazki berde ezarriz.
- 15.3. Zingiretatik biomasa erauzteko jarduerak sustatzea, hala nola arrantza intentsiboa urte osoan, hegaztien asentamendu naturala ahalbidetzea, eta abar.
- 15.4. Ibaiadarrek isurtzen dituzten uren kalitatea kontrolatzea, sedimentu-ekarpenak ahalik eta gehien murriztuz. Ibaietan kontrolatu eta garbitzeko moduko sedimentu-tranpak erabil daitezke atxikitzeko.

16. Lurraldearen antolamendua eta hirigintza:

- 16.1. Arro osoa barne hartuko duen eta arloko politika desberdinak era antolatu eta koherentean bilduko dituen Zadorra Sistemako Urtegiak Babesteko Lurraldearen Arloko Plana lantzea.
- 16.2. Plangintzaren bitartez debekatzea arroko industrialdeetan industria kimikoak eta ezabatzeko edo kontrolatzeko problematikoak diren hondakin toxikoak sortzen dituzten fabrika-instalazioak ezartzea.

- 16.3. Hiri-plangintzaren bitartez debekatzea urtegien ertzetan asentatuta dauden landa-gune txikien egoitza-garapena.
- 16.4. Urtegieta uretako ustiapenen instalazioa debekatzea, bai arrain-haztegiak eta bai karramarro-haztegiak, hondakin organikoak sortzen dituzten instalazioak direlako eta ubideen ondoan kokatu ohi direlako. Halaber, neurri hau arroko ibai eta erreketara edo hauen tarte batzuetara zabaltzeko aukera aztertu beharko litzateke.
- 16.5. Urtegien ingurueta ugaritu diren eta narriadura faboratu duten eraikuntza eta asentamendu irregularrak (txabolak, karabanak...) ezabatzea.
- 16.6. Erdialdeko Arabako Zatikoko Lurralde Plana egitean, batez ere industriarako eta etxebizitzetarako lurrak planifikatzean, kontuan izan beharko dira hemen egindako gogoetak eta proposamenak, Zadorra sistemako urtegiak hobeto babestearren.